

**Resurreccion Maria de Azkue  
eta Pierre Broussain-en arteko  
elkarridazketa**

Correspondencia entre R.M. de  
Azkue y P. Broussain

Correspondance entre  
R.M. de Azkue et P. Broussain

(1897-1920)

**iker-4**

# **Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa**

Correspondencia entre R.M. de  
Azkue y P. Broussain

Correspondance entre  
R.M. de Azkue et P. Broussain

(1897-1920)




**Piarres Charrittonek paratua**

**EUSKALTZAINDIA**  
**Real Academia de la Lengua Vasca**  
**Académie de la Langue Basque**  
**BILBO**  
**1986**

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN  
BABESPEAN ARGITARATUA**

**PUBLICADO BAJO EL PATROCINIO DE LA  
DIPUTACION FORAL DE VIZCAYA**



© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA  
Ribera, 6. 48005 Bilbo

ISBN 84-85479-38-6  
Depósito Legal: BI. 1748-86

Fotokonposaketa: Ipar, kooperatiba elkartea  
Part. de Zurbaran, 2-4. 48007 Bilbo

Amado moldiztegia  
Mazarredo, 35. 48009 Bilbo

## AURKIBIDEA

<b>I. R.M. Azkue-k P. Broussain-i .....</b>	<b>13</b>
<b>R.M. Azkue ta Aberasturi-ren bizia urtez urte .....</b>	<b>15</b>
1. 1899 ko Garagarillaren 3 an, Bilbo-tik .....	17
2. 1899 ko VIII-9-Donostia-tik .....	18
3. 1899 ko Azaroaren 10 ean, Bilbo-tik .....	20
4. 1899 ko XII-13-Bilbo-tik .....	23
5. 1900 ko Urtarrillaren 8 an, Bilbo-tik .....	27
6. 1900, a 26 de Enero, Bilbao .....	29
7. 1900, a 6 de Abril, Bilbao .....	31
8. 1900 ko IV-14-Bilbo-tik .....	34
9. 1900, a 19 de Abril, Bilbao .....	35
10. 1900 ko Maiatzaren 30 ean, Hendaia-tik .....	37
11. 1900 ko Bagillaren 5 ean, Hendaia-tik .....	39
12. 1900, a 27 de Junio, Bilbao .....	40
13. 1900 ko Iraillaren 27 an, Bilbo-tik .....	42
14. 1900, a 21 de Noviembre, Bilbao .....	45
15. 1901 ko 1., Bilbo-tik .....	50
16. 1901, a 11 de Febrero, Bilbao .....	51
17. 1901, a 22 de Marzo, Bilbao .....	52
18. 1901, a 10 de Mayo, Bilbao .....	54
19. 1901 ko Maiatzaren 29 an, Bilbo-tik .....	56
20. 1901 ko Garagarillaren 11 an, Bilbo-tik .....	58
21. 1901, a 1 de Agosto, Bilbao .....	60
22. 1901, a 1 de Septiembre, San Sebastian .....	61
23. 1901, a 6 de Octubre, Bilbao .....	63
24. 1901, a 16 de Octubre, Bilbao .....	65
25. 1901 ko Zemendiaren 10 ean, Bilbo-tik .....	66
26. 1901 ko Abenduaren 19 an, Bilbo-tik .....	67
27. 1902 ko Urtarrillaren 8 an, Bilbo-tik .....	69
28. 1902 ko Otsaillaren 3 an, Bilbo-tik .....	70
29. 1902 ko Zezeillaren 6 an, Bilbo-tik .....	72
30. 1902 ko Epaillaren 3 an, Bilbo-tik .....	73

31.	1902 ko Epaillaren 7 an, Bilbo-tik .....	74
32.	1902 ko Maiatzaren 5 ean, Bilbo-tik .....	76
33.	1902 ko Maiatzaren 31 an, Bilbo-tik .....	81
34.	1902 ko Bagillaren 11 an, Bilbo-tik .....	83
35.	1902 ko Bagillaren 16 an, Bilbo-tik .....	85
36.	1902 ko Bagillaren 18 an, Bilbo-tik .....	86
37.	1902 ko Bagillaren 22 an, Bilbo-tik .....	87
38.	1902, a 7 de Julio, Ligi .....	88
39.	1902, a 10 de Agosto, Ligi .....	90
40.	1902 ko Agorrillaren 19 an, Ligi-tik .....	92
41.	1902 ko VIII-20, Ligi-tik .....	93
42.	1902 ko VIII-28, Ligi-tik .....	94
43.	1902 ko Urriaren 19 an Bilbo-tik .....	95
44.	1902, a 25 de Octubre, Bilbao .....	97
45.	1902, a 7 de Noviembre, Bilbao .....	99
46.	1902 ko Abenduaren 25 ean, Bilbo-tik .....	101
47.	1903, a 19 de En ero, Bilbao .....	102
48.	1903, a 29 de Enero, Bilbao .....	104
49.	1903, a 17 de Febrero, Bilbao .....	105
50.	1903, a 23 de Marzo, Bilbao .....	106
51.	1903, a 6 de Agosto, Bilbao .....	107
52.	1903, a 26 de Octubre, Bilbao .....	109
53.	1903-XII-12, Bilbao (1) .....	111
54.	1903-XII-12, Bilbao (2) .....	112
55.	1904 ko Urtarrillaren 22 an, Parise-tik .....	113
56.	1904, a 15 de Febrero, Tours .....	114
57.	1904, a 27 de Marzo, Tours .....	116
58.	1904, a 31 de Marzo, Paris .....	118
59.	1904, a 11 de Abril, London .....	119
60.	1904, a 12 de Abril, London .....	121
61.	1904, a 30 de Abril, Tours .....	123
62.	1904, a 18 de Mayo, Tours .....	125
63.	1904, a 28 de Mayo, Tours .....	127
64.	1904, a 2 de Junio, Tours .....	128
65.	1904, a 31 de Julio, Tours .....	130
66.	1904 ko Iraillaren 3 an, Lekeitio-tik .....	132
67.	1904 ko X-11, Tours-etik .....	133
68.	1904 ko Azaroaren 22 an, Tours-etik .....	134
69.	1905, a 1 de Mayo, Tours .....	136
70.	1905 ko Agorrillaren 9 an, Lekeitio-tik .....	138
71.	1905-X-24, Tours .....	139
72.	1905-XI-26, Tours .....	141
73.	1906, a 23 de Abril, Tours .....	142
74.	1906, le 2 Octubre, Bruxelles .....	143
75.	1906 ko X-10, Bruxelles-tik .....	146
76.	1906 ko X-21, Bruxelles-tik .....	147
77.	1911 ko XII-4, Bilbo-tik .....	148

78.	1912 ko VIII-22, Lekeitio-tik .....	150
79.	1913 ko V-21, Orreaga-tik .....	152
80.	1913 ko VII-8, Loiola-tik .....	153
81.	1914 ko X-30, Bilbo-tik .....	154
82.	1918, le 19 Novembre, Bilbao .....	155
83.	1919, le 3 Juin, Bilbao .....	157
84.	1920 ko III-2, Bilbo-tik .....	160
85.	1920 ko IV-16, Bilbo-tik .....	162
<b>II.</b>	<b>P. Broussain-ek R.M. Azkue-ri .....</b>	<b>163</b>
	<b>P. Broussain ta Salagoity-ren bizia urtez urte .....</b>	<b>165</b>
1.	1897, le 30 Août, Hasparren .....	167
2.	1897, le 27 Septembre, Hasparren .....	169
3.	1897, le 8 Novembre, Hasparren .....	173
4.	1897, le 13 Décembre, Paris .....	175
5.	1897, le 28 Décembre, Paris .....	176
6.	1898, le 17 Janvier, Paris .....	183
7.	1898 ko Apirilaren 30 an, Parise-tik .....	185
8.	1898 ko Maiatzaren 11 an Parise-tik .....	188
9.	1898, le 17 Mai, Paris .....	189
10.	1898, le 27 Juin, Paris .....	192
11.	1898, le 13 Juillet, Paris .....	194
12.	1898, le 1 Septembre, Paris .....	196
13.	1898, le 13 Septembre, Hasparren .....	198
14.	1898, le 15 Novembre, Paris .....	200
15.	1898, le 23 Décembre, Paris .....	203
16.	1899, le 24 Avril, Hasparren .....	205
17.	1899, le 30 Mai Bayonne .....	206
18.	1899 ko Azaroaren 26 an, Hazparne-tik .....	208
19.	1899 ko Azaroaren 20 an, Hazparne-tik .....	210
20.	1899, le 23 Décembre, Hasparren .....	211
21.	1899 ko Lotazilaren 27 an, Hazparne-tik .....	213
22.	1900, le 8 Février, Hasparren .....	214
23.	1900, le 10 Avril, Hasparren .....	216
24.	1900, le 11 Mai, Hasparren .....	217
25.	1900 ko Ekainaren 4 an, Hazparne-tik .....	221
26.	1900 ko Ekainaren 6 an, Hazparne-tik .....	225
27.	1900 ko Urriaren 3 an, Hazparne-tik .....	226
28.	1900 ko Urriaren 4 an, Hazparne-tik .....	228
29.	1900, le 18 Novembre, Hasparren .....	229
30.	1901 ko Otsailaren 1 ean, Hazparne-tik .....	231
31.	1901, le 30 Avril, Hasparren .....	232
32.	1901, le 14 Mai, Hasparren .....	234
33.	1901, le 7 Juillet, Hasparren .....	236
34.	1901, le 30 Septembre, Hasparren .....	238
35.	1901, le 9 Octobre, Hasparren .....	242
36.	1901, le 13 Octobre, Hasparren .....	244

37.	1901, le 5 Novembre, Hasparren .....	247
38.	1901, le 9 Novembre, Hasparren .....	250
39.	1901, le 13 Novembre, Hasparren .....	251
40.	1901, le 27 Novembre, Hasparren .....	253
41.	1901, le 6 Décembre, Hasparren .....	255
42.	1901, le 14 Décembre, Hasparren .....	258
43.	1901 ko Abendoaren 22 an, Hazparne-tik .....	259
44.	1902 ko Otsailaren 6 an, Hazparne-tik .....	260
45.	1902 ko Epaïlaren 9 an, Hazparne-tik .....	262
46.	1902, le 16 Mai, Hasparren .....	265
47.	1902 ko Ekainaren 9 an, Hazparne-tik .....	268
48.	1902, le 17 Juillet, Hasparren .....	270
49.	1902, le 5 Août, Hasparren .....	271
50.	1902, le 9 Novembre, Hasparren .....	272
51.	1903, le 17 Janvier, Hasparren .....	275
52.	1903, le 24 Février, Hasparren .....	277
53.	1904, le 26 Mars, Hasparren .....	279
54.	1904, le 22 Juillet, Hasparren .....	281
55.	1904, le 30 Décembre, Hasparren .....	283
56.	1905 ko Agorrilaren 5 ean, Hazparne-tik .....	287
57.	1905, le 7 Octobre, Hasparren .....	288
58.	1905, le 29 Décembre, Hasparren .....	291
59.	1906 ko Urriaren 17 an, Hazparne-tik .....	292
60.	1911, le 16 Septembre, Hasparren .....	293
61.	1911 ko Buruïlaren 25 ean, Amenduze-tik .....	294
62.	1911 ko Urriaren 9 an, Hazparne-tik .....	295
63.	1911, le 20 Novembre, Hasparren .....	296
64.	1911 ko Azaroaren 29 an, Hazparne-tik .....	298
65.	1912 ko Urtarrilaren 1 ean, Hazparne-tik .....	299
66.	1918, le 26 Août, Hasparren .....	300
67.	1918, le 24 Novembre, Hasparren .....	308
68.	1918, le 30 Novembre, Hasparren .....	312
69.	1919, le 30 Janvier, Hasparren .....	313
70.	1919, le 10 Mars, Hasparren .....	315
71.	1919, le 24 Avril, Hasparren .....	317
72.	1919, le 24 Mai, Hasparren .....	320
73.	1919, le 8 Octobre, Hasparren .....	323
74.	1919, le 29 Octobre, Hasparren .....	325
75.	1919, le 6 Novembre, Hasparren .....	328
76.	1919, le 27 Décembre, Hasparren .....	330
77.	1920, le 6 Mars, Hasparren .....	331
78.	1920 ko Epaïlaren 7 an, Hazparne-tik .....	335
79.	1920, le 12 Mars, Hasparren .....	336
80.	1920, le 20 Avril, Hasparren .....	340
<b>III.</b>	<b>Eranskinak .....</b>	<b>345</b>
	<b>L. Eleizalde-k P. Broussain-i .....</b>	<b>347</b>

1.	1916 ko Urrillaren 14 ean, Gasteiz-tik .....	347
2.	1918 ko Azaroaren 30 ean, Gasteiz-tik .....	348
3.	1919 ko Iraillaren 30 ean, Bilbo-tik .....	349
4.	1920 ko Urtarrillaren 1 ean, Bermeo-tik .....	350
	<b>P. Broussain-ek P. Lhande-ri</b> .....	351
1.	1919, le 13 Octobre 1919, Hasparren .....	351
	<b>A. Campion-ek P. Broussain-i</b> .....	353
1.	1920, a 5 de Abril, Iruña .....	353
<b>IV.</b>	<b>Izen Aurkibidea</b> .....	357



## AINTZIN-SOLASA

Badu ja zazpi zortzi bat urte *Euskera* agerkarian erran nuela, nola Jenofa Le Roy Broussain andereak eskuratu zizkidan bere Lehuntze Nagile-ko etxean zeuzkan aita zenaren paperak (P. Xarritton, «Piarres Broussain-en paperak», *Euskera*, Bilbo, 1979-1, 167-170.orr.).

Geroztik, paper zahar horitu horiek —eta beste zenbait— eskuztatu, sailkatu eta azterkatu ondoan saiatu naiz, nihonek ezagutu ez nuen nere herriar Piarres Broussain Hazparneko mediku, auzapez eta euskaltzain zenaren itxura bederen, eta ahalaz barnago oraino, haren gogo bihotzen zola berraurkitzen. Nere ikerketaren berri eman nuen Bordaleko III. Unibertsitatearen aurrean eta azkenik Frantziako Ikerkuntza eta Jakintza Sail Nagusiak argitaratu dit erdaraz nere lana (P. Charritton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques, 1895-1920*, Centre National de la Recherche Scientifique, Paris, 1985).

Orain hemen argitaratzen ditugu Piarres Broussain zenaren paperetan aurkitu genituen Resurreccion Maria de Azkue, haren adiskide minaren gutunak. Horko 85 gutunei eratziki dizkiegu Broussain-ek begiratuak zituen Luis Eleizalde-n lau gutun eta Arturo Campion-en bat. Oroz gainera, gure lan honi eman diogun izena, hots *R.M. de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa, 1897-1920*, zuzenesteko, bildu ditugu Azkue Bibliotekako artxiboan, Bilbon dauden Piarres Broussain-ek Resurreccion Maria de Azkue-ri idatzi 80 gutunak. Hauen osagarri dator ere, Pierre Lhande euskaltzain ziberotarrari euskaltzain hazpandarrak bidali gutun bat.

Argitaratuak ditugu bestalde Broussain-en paperetan aurkitu genituen idazki zenbait; hala nola Arana Goiri'tar Sabin-en bost eskutitz («Obras Completas de Sabino Arana Goiri», 2a edicion, Sendoa Donostia, 1980, t. III, 2396 - 66-71.orr.), Manex Hiriart-Urruty-ren beste lau (P. Xarritton, «Manex Hiriart-Urruty apezaren lau gutun», *Maiatz*, 1982-2, 61-66.orr.) eta Georges Lacombe euskaltzainaren hamabosteko bat (P. Charritton, «Les lettres de G.

Lacombe, 1903-1921», *Bulletin du Musée Basque*, Bayonne, 1982-4, 161-180.orr.). Agertzeko on diren beste gutun zenbait geldituko zaizkigu oraino, Jean Etchepare eta Albert Constantin medikuenak, Arbelbide apezaren eta Julian Elorza ahaldunarenak adibidez, bainan, gure ustez, hemen biltzen eta argitaratzen ditugun idazkiek hutsune ederra betetzen dute.

Hemengo 171 gutunek alabaina - hauetarik 27 argitaratu zituen, egia erran, Alfontso Irigoyen-ek, 1957 an, Azkue zenaren gorazarrez, *Euskera* aldizkariak eskaini zenbakian (A. Irigoyen, «Del Epistolario de Azkue», *Euskera* Bilbo, 1957, 346-388.orr.), besteak ordea argitaragabeak dira - idazki guzi hauek beraz hobeki ezagutarazten dizkigute, lehenik Azkue ta Broussain bi adiskide ta euskaltzale handiak berak, baina bai ta ere gero, haien inguramen guzia, ta XX. mende honen lehen laurdeneko Euskal Herria ta euskaldungoa.

Eskutitzak agertzen dira, aurkitu ditugun bezala, beren euskara edo frantses eta gaztelania hizkelkien ortografia, fonetika edo joskerazko bereizitasunekin. Ahal bezain irazkin guti eratziki diegu. Doi-doia ohar bat edo beste, hitz edo izen batzuen argigarri.

Eskerrak dizkiegu, Jenofa Le Roy-Broussain andereari bai eta Jose Antonio Arana Martija, Azkue Bibliotekako bibliotekari-ordeari, haiei jesan bait dizkiet idazki hauek guziak, eskerrak ere Bizkaiko Foru Aldundiari, haren laguntza gabe ez bait zuen liburu honek argirik ikusiko.

Bizkaiaren eta Lapurdiren arteko harremanen sendotzeko izan bedi!

Piarres Charritton.

**Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue-k  
Piarres Broussain-i**

RESURRECCION MARIA DE AZKUE TA ABERASTURI-ren  
bizia urtez urte

- 1864-VIII-5 Lekeition jaio.  
1873.XI-11 Bere aita Eusebio Dolores Azkue galdu.  
1878 Bilboko «Bizkaitar Institutuan» sartu.  
1881 Batxilergoa ukanik Gasteizeko Seminarioan sartu.  
1885 Salamankako Seminaria iragan.  
1888 udan Lekeition lehen meza eman ta Bilbon euskal katedra lortu.  
1891 «Euskal Izkindea» euskarazko lehen gramatika argitaratu.  
1893 Teologiako Doktorgoa ardietsi.  
1895 «Vizcay-tik Bizkai-ra».  
1896 Umeen Ikastetxea Bilbon sortu eta «Proyecto de ortografia» argitaratu.  
1897 urtarrila «Euskalzale» aldizkaria agertu Bilbon.  
1897 aboztua D. Lohitzuneko Euskal Bestetan partehartu ta Broussain-ekin harremanetan sartu.  
1898 «Ploërmeldarrekin» solasetan hasten, Euskal Akademiaz edo «Ikasolaz» idazten, Hiztegi lanak abiatzen.  
1900 Begoña-ko Andre Maria-ren koroatzeaz pertsu ta kantu.  
1901 Euskalzaleen Hendaia-ko ta Hondarribiako bilkuretan partehartzen, eta frantsesa ikasteari lotzen.  
1902 «Ibaizabal» sortu. Ligi-ko ta Bilboko «Akademia» lanak.  
1903 Hiztegiaren argitalpen arazoak.  
1904 urtarrilla Parisen Charles Bordes ta Vincent d'Indy-rekin, ikasle.  
1904 apirila London-en Bonaparten esku-izkribuen ondotik.  
1904 gero bi urte-t-erdi Tours-en, Mame moldiztegian, Hiztegia inprimitzen.  
1906 Bruxelles-en musika ikasten.  
1907 maiatza ta gero 2 urte Alemaniako Kolonian musika ikasten.  
1910 Herrira itzuli-ta musika idazten: «Ortzuri», «Urlo».  
1911 maiatza Jerusalem-en 9 urte lehenago bezala beilari.  
1911 iraila Baigorri ta Atarratzen kantu biltzen ari dela, «frantsesek»

PIARRES CHARRITTON

- Baiona-tik jaukitzen.  
1912 udazkena Kantu bilketa Lapurdin bururatzeko.  
1913-II-13 Bere ama Mari Karmen Aberasturi galdu.  
1914 «Urlo» operarekin dirutza handia galdu.  
1918 iraila Oñati-ko Biltzarretan mintzatu.  
1919-X-7 Euskaltzainburu sartu, «Euskera» sortu.  
1921 «Cancionero Popular Vasco» argitaratu.  
1925 «Morfologia Vasca».  
1935 «Gipuzkera osotua».  
1935-1947 «Euskalerraren Yakintza».  
1951-XI-9 Bilbon hil, 87 urtetan.

R.A.-P.B., 1

*Bilbon 1899-ko Garagar-ilaren 3-an<sup>1</sup>*

Nere adiskidea.

Eskutitz onen bitartez adierazi nai nizuke Azkue Abadearen aginduz jaun au atera dala gaur, bederatzi edo amar bat egunerako Loiolako bakartegira<sup>2</sup>; an izango da gaizki entzun ezpadiot beintzat, alperrikako etorrera egin eztezazun.

Agur eta agindu egin gentzakegunean.

*B. Mokoroa<sup>3</sup>*

<sup>1</sup> Bazuen ordukotz bi urte hurbil hasia zela Azkue ta Broussain-en arteko elkarridazketa: ikus Broussain-en bigarren eskutitzean «J'ai reçu votre seconde lettre...» (Hasparren le 27 septembre 1897). Zorigaitzez aitzinagoko gutunak galdu egin dira. Gutun hau bera ere sail honetatik ken genezakeen ez baitu Azkuek berak idatzi; B. Mokoroa-k baizik. Azkuek agindurik egina zelako jarri dugu halere hemen.

<sup>2</sup> «Loiolako bakartegira» askotan bazebilela Azkue, jakin badakigu. Han gelditzeko asmotan izan zela ere 1914 ean, irakurri izan dugu: J. A. Arana-Martija, «R. M. de Azkue», C.A.V. Bilbao, 1983, 39. orr.).

<sup>3</sup> Baleriano Mokoroa (1871-1941), euskal idazle Tolosarra, aita Justo Mari Mokoroa «Ibar» ezagunaren aita, Azkue-ren lankide izan zen EUSKALZALE aldizkaria Bilbon agertu zen urteetan (1897-1899).

*Donostiatik 9-8-1899.*

Ene adiskide mamiña:

Bizi alzara? Ezkontzaga?, ezkongei? emaztedun? Zelango bizi-bidea dozu aspaldion? Erdu edo zatoz ona datorren larunbat onetan; ta iru egunetan irureun eskutitzetan ezin esan-alako beste berba alkarregaz egingo dogu.

Ni atso-agure batzun artean bizi naz euskera ederra ikasten. Ederto nago. Berba ta esakera ederrik asko ikasi dodaz.

Datorren Ileko Andra Marietan (ilaren 8an, 9 ta 10an) izango dira euskal-iaiak Bermeon, *Centro Vasco*-ren<sup>1</sup> izenean. Euskalerriri dautsazun maitetasunak ekarriko zauz (zaitu) egun orretan gure artera. Asigarritzat edo abizaritzat erdu, neure ori, erdu Donostiara; alkarregaz poz anditan igaroko doguz 13-14 ta 15 garren egunak, egun andiak Donostian.

Erantzun nai badozu, ona emen nire zuzenbidea:

Sr. Dn. ....

*Hermanitas de los Pobres.*

*San Sebastian.*

Eta mesedez bialdu niri zure adiskide Constantin<sup>2</sup>-en zuzenbidea.

Aspaldion eskutitz bat zor dautsat eta eztakit nora egin.

Campion<sup>3</sup> bere emen dago. Mila gauza, zar da berri, esango dautsudaz, baldin bazatoz.

Donibane-tik ona ordu-ta-erdi edo ordu biko bidea dago.

Gorantziak etseko guztiai.

Zurea beti ta beti lodia.

*Resurrekzion.*

Morbihan-go anaien<sup>4</sup> ganean emen berba egingo dogu.

Erakutsiko deutsudaz nire Iztegi onen zirri-borroak<sup>5</sup>...

*Erdu.*

Esaizu zein ordutan elduko zarean, ni gelunean zure begira edo itšaropenean egon naitean.

<sup>1</sup> «Euskeldun Batzokija»-ren orde eraikia zuten Bizkaitar abertzalek, 1898 an «Centro Vasco» delakoa, mila kidez gora laster bildu baitzituen, baina Madrileko gobernuak 1899 ko irailan berean eragotzi zuen.

<sup>2</sup> Albert Constantin medikua (1873-1957), Izpuran (N.B.) jaioa, Jean Baptiste Constantin «Joanes Garaztarra», Santa Garaztar idazle ta eskolemailearen semea zen. Atrarratzen mediku, auzapez eta kontseilari jeneral izan zen. Broussain adiskideari idatzi zizkion gutunetarik nabari da zein barna zuen bihotzean sartua abertzaletasuna.

<sup>3</sup> Campion Arturo (1853-1936) Nafartar euskalzale ta historiagile nagusia. Bibliografiarentzat ikus: «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco», Cuerpo C, Jon Bilbao, T. II, 208-213.

orr., eta Broussain-ekin, «Euskeraren batasunaz», Euskaltzaindiari eskainiko dion txostenaren (*Euskera*, 1922, III-1, 4-17) osagarri ta argigarri ikus eta irakur gure argitalpen honetan Campion-ek Broussain-i idatzi azken eskutitza: Iruña, 5-IV-1920.

<sup>4</sup> «Morbihan-go Anaia» horiek, «Frères de Ploërmel» delakoa dira eta maiz aurkituko ditugu elkarridazketa honetan. Geroago Frantziatik atera beharko direlarik Azkuek lagunduko ditu eta Bilbon kokatzen.

<sup>5</sup> Ohar, orain «zirriborrotan» duen Hiztegia, 1905 ean baizik ez duela egileak argitaratzen ahalko.



R.A.-P.B., 3.

*Bilbon 1899-garren urteko  
Azaroaren 10-ean.*

Pierres Broussain jaunari:

Nere maitea: Agurtu ondoren adierazi bear nizuke, nere nagusi jaun apaiza lanbide askorekin arki dalako, erantzunazten dirala zure joan dan illaren 23-ko eskutitzari, esanaz: atsegiñik aundienarekin itsogiten dagoela zuen etorrera pozgarriari.

Au bera aitor lezaiokezu zure bide-lagun Lassalle<sup>1</sup> jaunari, eta garaiz albistaraten badezute, aterako da bat edo bat gelune edo *estaziora*.

Donostian ez omen zuen artu zure eskutitzik.

GORANTZIAK emanaz Azkue jaunaren izenean, eskaintzen dizkitzuet nere egiñal argal ta ezerezak.

*B. Mokoroa*<sup>2</sup>.

Ofo maitea<sup>3</sup>,

¿Bizi alzara? Emen naukazu udabarritik oraiñarte, lur egarberak euriari begira legez, barrua zabalik, biotza eskaka, gogoia geituaz.

Udan etorri baziña, ene adiskide ona, gauza on asko ikusiko zenduzan. Orain biotzak baiño asko geiago ez. *Centro Vasco*<sup>4</sup>ren giltza Señor Silvela-ren eskuetan dago. *Correo Vasco*<sup>5</sup>, biztuteko, lege barri bati itšaroten, *Euskalzale*<sup>6</sup> gizagaisoa erdikindurik. Gernikako *arbolea* bera, onenbeste atsekabe eroan eziñik, besomostuta.

Gero aaztu bagarik aurretiaz esango deustazu, Peru laztana<sup>7</sup>, zein egunetan atarako zarean Donibane-tik onanzko. Tamalik asko (*tamala* erderazko *lástima*, *dommage*) da gure adiskide, Pleonasma<sup>8</sup> ez etortea.

Donostiatik eskutiz bat bialduteko egon nintzan, Daranatz<sup>9</sup>-i, Duvoisin-en liburua eukiteko eskatuten neutsala; baiña enintzan azartu. Zuk esan albalekiozu, eskatu albalekiozu iru illebeterako Duvoisin-en Iztetgia<sup>11</sup>... Urkiola-ko San Antoniori eskatuko neuskio zuretzat emaztegei eder on bana banako bat.

Zatozanean ekarrizuz mesedez Duvoisin-en *Ebanyelioak*, iru edo lau liburutšu ordainduta edo *pagauta* daukatsadaz P. Haristoy<sup>10</sup>-ri (\*) Baita Bonaparte-k egiñiko *Euskerearen Carta* edo *Mapa*<sup>12</sup> pozarren ikusiko neuke, ez niretzat izateko, emengo adiskide batzuk ikusi ta barriak eskatuteko baiño. Zuk atzera emango dozu zeurea.

Mr. Lassalle etorri ezin bada, erdu zeu bakarrik. Ikusiko dozu ze ederto ibiliko garean Bizkaiko errietan.

Duvoisin-en Iztegia iru illebetean neure eskuetan eukitearren, daukadazan agin guztiak emongo nekez. Daranatz-ek nai baleu, nire Iztegiaren aurrean aitatu edo aipatuko neuke, gora andiak egiñaz, Duvoisin-en izena. Berak nai ezpaleu (*Beti*<sup>13</sup>-ni aserratu eztaitean) eneuke nik ezer esango. Berak nai dabena.

Dana dala, nai bialduten dabela nai eztabela, beti eukiko dau Daranatz maitagarriak nire bularrean maite izango daben biotz bat. Agur, adikide ona,

Atsegin izan daizuzala Bizkaian igaroteko daukazuzan egunak; eta aurrerantzean Bidasoatik onanzko euskaldunak maite izan daizuzala, nik ortiko euskaldunak dodazan baizen maite.

Aurretiaz eskutitz bat bialdu mesedez.

Gorantzi asko Lassalle jaunari.

Iñoiz egon ezpada, atsegin izango litzakiola uste dot emengo egoerea.

Zurea beti.

*Vascofilo ta Euskalzale*<sup>14</sup>.

Aspaldiko egun guztietan itota zer-egin geiegiren artean bizi izan naz, da parkatu aurrerago zuri ez erantzun izatea.

\* Orain urte bi bialdu nautsazan 25 *peseta*, esanaz Duvoisin-en *Ebanyelio* batzuk bialduteko. Badakit dirua artu ebana- nire eskutitzik artu ez... edo eztakit zer iazo dan. 25 *peseta* orretatik bost edo seigaz *Laborarien liburu bi edo iru* nai neukez, beste bost edo seigaz *Imitazione bi* ta beste enparaukaz *Ebanyelio* batzuk.

\* \* \*

<sup>1</sup> Lassalle Pierre Alphonse (1849-1905), Frantziako armadako euskaldun aintzindari ohia. Baionan etxeratua. Honi zor dio Azkuek «Oi Pello, Pello!» abestia; ikus «Cancionero Vasco», 1015. orr.

<sup>2</sup> Baleriano Mokoroa, ikus R.A., 1-3.º.

<sup>3</sup> «Otto maitea!» edo «Osaba maitea!», Azkuek bazakiken horrela deitzen ziotela Piarres Broussain-i, Hazparneko euskarari, Marie Broussain, «Xabala», (1890-1901) eta Marie Thérèse Broussain, «Miñiña» (1888-1954), Madrileko bi ilobek.

<sup>4</sup> «Centro Vasco», ikus R.A., 2-1.º.

<sup>5</sup> «Correo Vasco», 1899 an Bilbon Sabino Arana Goirik sortu zuen egunkaria: Hiru hilabete iraun zuen, F. Silvela, Madrileko ministro nagusiaren aginduz hil baitzen: 12-IX-1899.

<sup>6</sup> «Euskalzale», Azkuek Bilbon sortu euskal aldizkaria (1897-1899).

<sup>7</sup> «Peru laztana» horrela ere deitzen dio Azkuek Piarres Broussain-i.

<sup>8</sup> «Pleonasmo», Daranatz zuten lagun artean, ikus jarraian.

<sup>9</sup> Daranatz Jean Baptiste (1870-1945), Ezpeletan sortu zen, apeztu ondoan Haristoy erretoraren lagun egon Ziburun, hemendik apezpikutegian sartu Baionan 1897 an eta gero hor gelditu. Euskalzale gehienekin asko kurutzatzen zen hastapenean. Gero Baionako elizaren historia landu zuen oroz gainetik. Baionako Erakustokiari eman zituen haren paperak Manu Sotak, etxekoei erosi ondoan.

<sup>10</sup> Haristoy Pierre (1833-1901) Aihertarra, apeztu ondoan Beskoitzen egon zen eta Hazparnen, gero erretor Zalgizen, Irisarrin eta azkenik Ziburun. Euskal Herriko historiaz, bereziki Frantses Iraultza denboraz izerlan handiak egin zituen. Bere adiskide Jean Baptiste Duvoisin-ek utzi zizkion hiltzean bere esku-izkribuak eta bereziki bere Iztegia. Ikus jarraian.

<sup>11</sup> Duvoisin Jean Baptiste (1810-1891), XIX. gizaldiko euskal idazle nagusietarik bat. Ainhoan sortua, Larresoro-ko ikastegian ibilia, guardetan aintzindari egona, Luis Lucien Bonaparte printze euskalzalearen lankide bilakatu zen. Haren idazki aipagarrienak dira: *Liburu Ederra* (1856), *Laborantzako Liburua* (1858), *Biblea* (1865) eta Haristoy-ek argitaratu «Jesu Kristoren Imitazionea» (1896) ta «Ebangelio Saindua» (1898. Argitaratu gabe dago hemen aipu den Hiztegia.

<sup>12</sup> «Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés» deritzo Bonaparte printzeak 1863 an London-en argitaratu zuen Karta edo mapa horri. Broussain-en etxean, Hazparne Barrandegian ikusia zukeen Azkuek. Ikus P.B., 18.

<sup>13</sup> «Beti Ni», Haristoy-en izengoiti bat.

<sup>14</sup> «Vascofilo, «Euskalzale», Azkuek berak zarabiltzan izenordeak.

R.A.-P.B., 4.

*Bilbo-tik 13-XII-1899.*

Ene adikide lodia:

Zuri bizkaitarrez, Amari legez, berba egingo dautsut. Ondo eldu ziñeen irurok?<sup>1</sup>

Gaur egin dautsat gure adiskide ta ongile Daranatz-i<sup>2</sup> esker-eskutitza.

Egun batzuk barru artuko dozuz gure *portraitak*<sup>3</sup>.

Amabi bialdu daustez.

Ona emen zelan banatuko dodazan:

Daranatz-i ... 1

Ioannateguy<sup>4</sup>-ri ... 1

Hiriart - Urruty<sup>5</sup>-ri ... 1

Dr. Larrieu<sup>6</sup>-ri ... 1

Darricarrère<sup>7</sup>-ri ... 1

I. Arbelbide<sup>8</sup>-ri ... 1

Karmelo Echegaray<sup>9</sup>- ... 1

J. Carlos Gortazar<sup>10</sup>-1 ... 1

Nire adiskide lodiari<sup>11</sup> ... 1

Zure adiskide lodiari ... 1

Beste bi enparauak emen eukiko dodaz zuk nai duzunari bialduteko.

Onezaz ganera Larrieu-rentzat gauza batzuk artuko dozuz. Neure izenean bialdu eiozuz.

Onen antzeko eskutitza bialdu mesedez, Larrieu-ri. Gorantzi asko etñekoai.

Agur, adiskide ona.

*Azkue.*

<sup>1</sup> «Irurok»: Broussain, Arbelbide eta Darricarrère. Ikus P.B., 20.

<sup>2</sup> Daranatz J.B., Ikus R.A., 3-9.º.

<sup>3</sup> «portraitak»: frantsesetik hartu hitz horrek in deitu ohi ditugu Iparraldean «fotografiak»edo «argazkiak».

<sup>4</sup> Joannateguy (aita Basilio Belokeko beneditarra, 1837-1921), Isturiztar euskal idazlea; ikus Villasante, «Historia de la Literatura Vasca», Sendo Bilbao 1961, 193-195. orr.

<sup>5</sup> Hiriart-Urruty Manex (1859-1915), Hazpandar idazlea; ikus Villasante, op. cit., 195-196. orr.

<sup>6</sup> Dr. Larrieu J. Felix (1864-1941), Mauletar mediku, ikerle ta idazlea, Parise aldean, Montfort-l'Amaury herrian bizi izana. Jon Bilbaok eskaini bibliografiari, «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco», «Bibliogra» IV, art. Larrieu J. Felix, eratziki behar zaio Parisen eta Maulen argitaratzen zuen «Almanak Úskara» (1887-1914). Ikus P.B., 5 (Paris, 28-XII-1897).

<sup>7</sup> Darricarrère Jean Baptiste (1844-1927) guardetako kapitain ondoa, Uztariztarra, euskara ta euskal gaiak lantzen ordu ta urte luzeak iragan zituen. Bere hiztegiaren argitalpena ez zuen bururatu ahal izan, «artzi» letratik harat, diru eskasez.

<sup>8</sup> Arbelbide Jean Pierre kalonjea (1841-1905), Zaron jaioa, Nafarroa Beherean, euskal idazle garrantzitsua; ikus Villasante, op. cit., 188-190. orr.

<sup>9</sup> Karmelo Echegaray (1865-1925), Azpeitiarra euskal olerkari ta historialaria, euskal probintzietako kronikalari izendatu zuten 1895 ean eta Koldo Eleizalde-en orde, 1923 an sartu zen Euskaltzaindian. Gernikan bizi zen 1899an.

<sup>10</sup> Juan Carlos Gortazar (1864-1926) Bilbotar musikalaria ta musikologo ezaguna. Azkue-ren adiskide mina.

<sup>11</sup> Bi adiskide «lodi» horiek Azkue bera ta Broussain dira.

R.A.-P.B., 5

*Bilbotik 1900-ko Urtarrilaren 8-an*

Ene adiskide maitea:

Nire erriko<sup>1</sup> arrantzaleen artean *zigarro* bat eskatueran, biztuta eskatu oi zan; «Tšo\*: *tziarro* bat biztuta».

Nik zure eskutizai biztuta, zelanbait, erantzun nai neutsen: ez bakarrik alegin egingo nebala, baita lortu be zure bitartez, Larriue-k eskaturiko mesedea.

Montory<sup>2</sup>-ko alkatearen semearentzat abia-bila gabilz egun onetan. Zuek egon ziñeen ostatuan erantzun eben Maiatzerarte eze-bela *morroerik* bear.

*Fonda de la Estrella* deritson ostatuan erantzun eben egoslári (??) edo kozineru-geiak iru edo lau eukezala, eurak irabazi-bearrean, eguneko zerbait ikas-saritzat emon bear ebela. Beste ostatu batzuetan eztabela iñor bear erantzun dabe. Gaur arratsaldean erantzungo eidabe *Hotel Terminus*-koak. Ikusiko dogu zer diñoan. Beste tokitan sartu ezin badogu, *Centro Vasco*-n sartuteko alegin egingo dot.

Pozik artu neban mandatu au. Uste neban errazago iaditšiko nebala mutil orrentzako egopidea.

Euskera utsez argitaratu al izan arte, *Euskalzale*<sup>3</sup> geldi dago, illunpean, aurrerako indar barriak nai edo gura leukezala. *Centro Vasco* eztabe oraindiño zabaldu<sup>4</sup>. Urtebarri-egunetik etsean egon noa egun guztian. *Euskalzale* argitaratu bear danean bere, eztaukat beste tokitara ioateko usterik: neure gela aurrean lan egingo dot. Pozaldi gitšiago baiña asti geiago izango dodaz aurrerantzean. Oraintse eldu da nere eskuetara gure Darricarrère langile euskalzale errimearen eskutiz bat, Arbelbide-ren berbatsu batzuk barruan da-bezala. Gaur erantzungo deutset.

Zure euritakoa nire eskuetan dago. Echegaray (Karmelo)-k ekarri eustan. ¿Gura dozu bialdu daizudan Bayona-ra? Astean astean dabilz nire erritar batzuk lurrun-ontzi tšikietan emendik Bayonara, astero. Zeuk nora bialdu bear dan esanezkeru, aste bete barru edo lenago zeuganatuko dot. Bestela udararte emen egongo da.

*Aintzura*\*\* edo *portrait* bi bialdu neutsuzan lengo astean. ¿Ira-kurri zenduan, *Euskalzale*-ren 49 garren geia? Zeuri zuzenduriko ipuin bat ekarren. Beste zerbait, irakurgete edo *roman* tšikiren bat, ogei edo berrogei urte barru izango bada bere, zuzendu gura neuski-zu, biotzen lokarria izan daitean, Bidasoaren goibeetako euskaldunen biotzak alkartutekoa.

*Urtarrilaren 9 an.*

*Hotel Terminus*-ko zuzentzaileak esan dau egun onen baten erantzungo dabela, obeto ikusita, zuloren bat egin al balekio Montory-tarrari. Nire ezaun andia eida bera. Nik eztakit bera nor dan. Dan moduan dala zerbait egingo dogu. Badira emen beste ostatu asko; baiña onetan eleuke erdera onik ikasiko, edo euskera utsa edo erdera mordoiloiz nastaua baiño.

Atze ona itši dozue iru lapurtarrok<sup>5</sup>, Bizkaian egin dozuen tšangoan\*\*\*. Erdu onantza\*\*\*\* urtean bein gitšienez.

Agur neure adiskide *kirmena* (Bizkaitarrez-Tšorierrri ta Arratian<sup>6</sup> «*fidelis*»)

R. M. Azkue

Gutziz tšarto urten dot nik Gernikako Geure Zugatz-ondoan. Enaz ni sortu ene burua *quimicazki* ugalduteko.

Eraz itandu eiozu Hatan<sup>7</sup>-i *quimica*-k euskeraz zer esan gura daben.

*Terapéutica*

= *atera petik*

*Química*

= *sartu goitik*

Gorantziak zure etšadi maitagarri orretan, eta nire adiskide

guztiai.

\* *Mutil* = «*garçon*» esan gura dau. Bizkaiko itšas'aldean esan oi da.

\*\* Darricarrère-k bialduriko berbea.

\*\*\* Gipuzkoarrak eurrez esaten dabe *tšango*, erderazko «*expedición*», «*viaje de recreo*» adierazoteko.

\*\*\*\* Bizkairik erdian *onantza* esaten da *Onontz* edo *onantz* edo *onutz* esateko.

\* \* \*

<sup>1</sup> Lekeitio bere sorterriaz mintzo da Azkue.

<sup>2</sup> Montori da Atarratze ondoko herrixka bat. Horko auzapezaren eskeaz hitzegin dio Broussain-ek bere azken gutunean (27-XII-1899): P.B., 21.

<sup>3</sup> Gaztelania sartzera behartu nahi zuen Madrileko gobernuak, Azkue-ren aldizkaria («*Euskalzale*», 1899, III, 322).

<sup>4</sup> «*Centro Vasco*» delakoa ez da zabalduko 1901 arte: R.A., 15-5°.

<sup>5</sup> Bizkai aldean ibili diren Broussain, Arbelbide ta Darricarrère, hiru adiskideak.

<sup>6</sup> *Tsorierrri ta Arratia* dira Bizkaiko bi eskualdeen izenak.

<sup>7</sup> Hatan apezak argitaratu zuen liburuska bat estimu gutitan zaukatena: abbé Hatan, «*Explication des principaux noms propres de villages du Pays Basque Français et des Provinces Basques*», Pau, 1895.

R.A.-P.B., 6

*Bilbao, a 26 de Enero de 1900*

Carísimo amigo:

Con el afán de hacer el Diccionario voy atrasando contestaciones a cartas que estoy recibiendo. Hace una semana por lo menos estuve con el Presidente del *Centro Vasco* a preguntarle cuando se abriría la Sociedad y si podríamos colocarle de mozo a ese joven hijo del alcalde de Montory<sup>1</sup>. Me contestó el Presidente que como dentro de poco tiempo hay elecciones para Diputados provinciales, según la ley tienen que levantarse las garantías y levantadas las garantías se abrirá inmediatamente el Centro. Además me aseguró que podríamos contar con la colocación del recomendado de ustedes. Si quiere V. avisar a Larrieu que se prepare el chico... Sabe V. desde antes que en *Hotel Galdona*, donde estuvieron ustedes, prometieron colocarle en Mayo. En otras fondas no ha habido provecho. Aunque el Gobierno español mandará cerrar el Centro, pasado el período de elecciones, llegaría para entonces el mes de Mayo.

Diga V. a Larrieu lo que ocurre.

*Otro asunto.* He recibido dos cartas del laborioso Darricarrère a la primera me mandó curiosamente anotadas las diferencias que existen entre las tres ediciones de *Geroko Gero*. Las publicaremos en *Euskalzale*, cuando éste se despierte<sup>2</sup>.

En la segunda carta, que acabo de recibir, me vuelve a hablar de hacer los dos en colaboración el Diccionario. Me ha extrañado la proposición, pues ya aquí le dije hasta dos veces que la primera edición la haría yo por mi cuenta y riesgo; y que la segunda edición podríamos hacerla entre los dos. No me gusta decir que no; pero me disgusta que se me hagan proposiciones, a las que no puedo responder que sí. Por otra parte se ha tomado él el trabajo de copiar el trozo de Diccionario de Pouvreau que le faltaba a la copia de Larrieu. ¿Qué hago yo en este caso? Creo que aunque no estuviese ya con mis paisanos de aquende el Bidasoa el compromiso moral de darles el Diccionario, los elementos *pleonásticos*<sup>3</sup> que tengo en mi poder hacen innecesaria la colaboración que me ofrece Darricarrère. ¿No le parece a V.?

Cuando ya trate de hacer otra edición Basco-española, Basco-francesa, Franco-basca y Español-basca, entonces podrá muy bien tomar parte nuestro buen colega.

Si tiene V. tiempo disponible le agradeceré me escriba cuanto antes<sup>4</sup> para que yo responda luego a Darricarrère.



Recuerdo que cuando estuvo V. aquí me repitió que fuera por ahí y hasta me parece haberme V. manifestado deseos de que fuese a esa mi simpática Lapurdi por primavera. El verano, aunque estaré muy atareado, le prometo a V. hacer todo lo lo buenamente posible por complacerle. Si se casara V. en primavera y quisiera que fuera a bendecir su unión, creo que haría el sacrificio de dejar un sustituto en la clase y marcharme a esa.

Sabe V. si Herr Hugo Schuchardt, profesor de la universidad de Gratz ha empezado ya su proyectada edición del Nuevo testamento de Lizarraga de Briscous?<sup>5</sup>

Aunque no he tenido ocasión de verme hoy con nuestro cariñoso y simpático Gortázar<sup>6</sup>, creo que si supiera que estoy escribiendo a V. querría sin duda que le enviase sus recuerdos, pues tiene de V. muchos y muy buenos.

A Dios, mi carísimo Peru; sea V. muy bueno y laborioso y entusiasta amante de nuestro bello País, como siempre y bueno será que vaya V. borrapando algún trabajito acerca de raíces del dulcísimo y riquísimo *euskera*.

Suyo de corazón.

*Resurrección*

No sé qué hacer de este mi cuerpazo. Hasta el no comer me engorda; y la abstinencia misma de bebidas enciende mi sangre.

Estoy tomando agua de Zarzapanilla. Me hace casi el mismo efecto que si tomara whisky. Con esto le quiero decir que estoy fuerte, y gordo, aunque acaso no tanto como V.

Gorantzi asko et̄sekoai,  
Gure et̄sekoen gorantziak zeuri<sup>7</sup>.

<sup>1</sup> Montori-ko auzapezaren semeaz ikus aitzizineko gutunean 2. oharra.

<sup>2</sup> Axular-en obraz idatzi artikulua horren berririk ez dugu. «Euskalzale» ez zen berriz agertu.

<sup>3</sup> «Elementos pleonasticos» hau da Daranatz-ek eskuratu dion Duvoisinen hiztegia.

<sup>4</sup> Broussain-ek erantzuten dio ondoko gutunean (8-II-1900): P.B., 22.

<sup>5</sup> Hugo Schuchardt-ek Theodor Linschmann-ekin, Trübner-en baitan, Strasbourg-en, 1900 ean argitaratzen du Leizarragaren 1571 ko Testament Berria.

<sup>6</sup> Gortazar Juan Carlos aipatu da gorago: R.A., 4-10<sup>o</sup>

<sup>7</sup> Azkue, Bilboko Campo de Volantín, 15. bizi zen bere ama Mari Karmen eta bere arreba Aurora eta Dianarekin. Broussain Hazparne Barrandegian bere ama Maria eta aitaginarreba Mr. Moreau-rekin.

R.A.-P.R., 7.

*Bilbao a 6 de Abril de 1900.*

Carísimo Peru:

¿Qué hay de V.? ¿Cuando me manda V. las palabritas que debe tener coleccionadas? ¿Cómo están su Sra. Madre, el tío, sus hermanos, sus sobrinitas, Sabala y Miñiña?<sup>1</sup>. Le prometí a V. visitarle este año en esa tan poética región de nuestra Amada Euskalerra; y creo que realizaré mi promesa de aquí a quince días.

Pues ha de saber V. que la Sra. Viuda de D'Abbadie<sup>2</sup> me ha manifestado en carta muy reciente su deseo de verme en el *château* de Abbadia con el P. Ioannateguy.

Este, pocos días antes, me dijo lo mismo; añadiéndome que la Sra. iría a París antes de mediados de Mayo, y que por lo mismo preparase mi maleta.

A consecuencia de las fiestas de Aramayona nos carteamos ella y yo. Ella, finisimamente, al mandarme el dinero de los gastos y cien pesetas más, me dijo que invirtiese esta cantidad en lo que mejor me pareciese. Era una muy corta manera de corresponder a mis desvelos, pues además del pequeño trabajo que me tomé en preparar las fiestas, hice el viaje por mi cuenta, prediqué *gratis* y celebré a intención del difunto d'Abbadie, *gratis et amore* también. Menos es último (que es V. caro Peru, el primero en saberlo) acaso lo anterior haya llegado a su noticia, lo cierto es que ella tuvo conmigo esa fineza.

Yo, aunque gordo, me gusta, aunque me cuesta, ser fino; y quise invertir dicha cantidad en imprimir un *zortziko* mío dedicado a la misma señora. Seis ejemplares de esta pieza recibirá V. con esta carta para repartirlos como mejor le parezca; siendo uno para V. y otro para su tío<sup>3</sup>.

La Señora parece que de esta finura mía esta agradecida; y veremos si sale algo para la Academia o cosa análoga.

Como el cuarto día de Pascua tengo clases<sup>4</sup> me será difícil ir hasta Hazparne. ¿No sería mejor que bajase V. a Bayona y allí nos viésemos con Pleonásmo, Arbelbide y Darricarrère?. Saldré de aquí, Dios mediante, el sábado santo para Hendaya.

Le escribiré a Darricarrère, diciéndole que haríamos la segunda edición del Diccionario. Creo que se habrá convencido de la conveniencia de mi proceder, en vista de las razones que le aduje o manifesté<sup>5</sup>.

¿Si viera V. qué vergüenza o no sé que siento al no poder corresponder mejor a Larrieu!<sup>6</sup>

*El Centro Vasco*, no ha podido abrirse, pues las garantías siguen suspendidas, dicen que el día 1º de Junio se restablecerán y que inmediatamente se abrirá el Centro.

He hablado en alguna otra fonda y me han dicho que por temor de abusos no quieren tener ningún criado o paje donde tienen criadas. No olvido la promesa de *Galdona* de que le admitirá para Mayo.

Bilbao cada día se hace más negociante; por cual la vida literaria de aquí es muy lánguida. Sin embargo creo que si en cada Diputación hubiera un solo diputado entusiasta y de valer, como sería Juan Carlos Gortazar para la muestra, no sería difícil ver fundada la Academia<sup>7</sup>.

He proyectado crear con el siglo un periódico político trisemanal, en euskera desde el título hasta el pié de imprenta.

Podría llamarse *Euskalzale* o *Ze barri* o... V. dirá.

He empezado a dar tranquilamente algunos pasos. Uno que en *Euskalzale* colaboraba con el nombre de *Mañari*<sup>8</sup>, licenciado en ciencias físico-matemáticas, será regularmente el Director, si se funda el periódico.

Habría que vencer dos dificultades grandes. La escasez de dinero y de personal que redacte la publicación. La falta de dinero creo que podrá llevarse. La de personal es dificultad más grave.

Hablaremos de esto por Pascuas.

Agur, ene erritar, gogaide ta *biozkide* maitea. Eskumunak eta gorantzi asko etšekoi.

Iztegia egiten badiardut («*banakio*», «*baderaatsat*», «*badaragoiot*») laurok esaten dira Bizkaian).

Jainkoak zorioneko ta emazte on baten senar egin zaizala.

Beti zure.

R.M.A.

<sup>1</sup> Lehenago aipatu dituen Broussain-en etšekoez bestalde: ama eta aitagarreba (R.A., 6-7º), orai datoz haren haurrideak, hots Marie Broussain (1851-1938), León Guichenné deputatu behararren andrea; Jean Baptiste Broussain (1854-1906) Madrileko Marie Louise Dangeretegy bere emazte Gereziatarraren ganik bi alaba dituen, Sabala eta Miñña (R.A.-P.B., 3-º); Cyprien Broussain (1856-1913) Parisen mutil zahar hilen dena.

<sup>2</sup> Antoine d'Abbadie d'Arrast (1810-1897) euskalzale handiaz ta haren lagunaz, ikus «Enciclopedia General Ilustrada del P.V. «Cuerpo 2 Literatura I, 334 orr. eta ondokoak. Jarraian, Literatura II, ikus 57. orr. Aramaio-ko jaiak 1899 an.

<sup>3</sup> Zortziko hori «Katalintso-Zortzikoa», Bilbao Amorrortu, 1900, daiteke. Broussain-en aitaizuna berriz «tio» hori, Jean Moreau komandantea (1821-1902), Baiona-ko erreximenduren musikako aintzindari zen, Marie Salagoity (1825-1904) Barthélémy Broussain-en alargunarekin ezkondu zelarik Baionan 1866 eko uztailearen 23 an.

<sup>4</sup> 1888 eko urriaz geroz 1903 ko uztaile arte Azkuek atxikiko du Bizkaiko Aldundiak sortu duen euskal irakasle alkaia.

<sup>5</sup> Ikus aintzineko gutuna eta 4º oharra (R.A., 6).

<sup>6</sup> Ikus, R.A., 5 eta hor berean 2º oharra, ikus ere ondoko gutunean: R.A., 6.ean zer dioen Azkuek «Hotel Galdona» delakoaz.

<sup>7</sup> Izatez Bizkaiko Aldundiko Cosme de Elgezabal aldunak bultzaturik 1918 an, jaioko zaigu, Hegoaldeko lau aldundien babesean, 1919 an gure Euskaltzaindia.

<sup>8</sup> «Ibaizabal» izeneko aldizkaria sortuko du Azkuek, 1902 ko otsailaren 5 ean. Bi urte iraunen baitu. «Mañarian» jaioa zen hain zuzen eta han hilen ere da «Mañari», hau da Bustinza Evaristo «Kirikiño» (1866-1929) Azkuek aipu duen lankidea. Ikus Villasante, op. cit., 330-332. orr.

R.A.-P.B., 8

14-IV-1900

Baiona-tik zapatu onetako gabeko amarretan.

Emen naukazu, adiskide ona, egun-erdi bat *Hendaian* A. Ioannategiri begira galduta. Edo ez tatu berak artu, nik orain aste bete egini-ko eskutiza, edo etšat niri eldu berak bialduriko *depech* edo *telegramea*.

Biar goiz beranduko 11,53 ko *trenean*<sup>1</sup> urtengo dot emendik *Cambo*-rako. Zu orduko an baldin bazengoz, alkarregaz ioango giñateke *Hasparren*-en eguna igarotera ta astelenean *Urt*-era Joannateguiaren bila.

Biar-arte, adiskide maitea.

*Alleluya*

<sup>1</sup> Baionaraz geroz Azkuek, trenaz, zuzenean, egin zezakeen *Urt* (euskaraz «Ahurti»), hau da Joannategi eta Belokeko beneditarren herrirakoa, baina dirudienez, itzulia egin nahiago zuen, Kanbon gaindi, Hazparnen Broussain hartuz ararteko.

R.A.-P.B., 9.

*Bilbao a 19 de Abril de 1900*

Carísimo amigo:

En el *château* fuimos muy bien acogidos<sup>1</sup>: En cuanto llegados nos llevó la castellana a un gabinete y hablamos del asunto de la Academia; lo primero que hicimos fue resolver ...der que ella veía: la de muchedumbre... proponiendo la adopción de uno... ser el guipuzcoano o el labortano ...nes dentro de la Academia exponiendo ...stas que sirven de entrada, sirven tan...za. Al decir esto me acordaba yo de ... si entra saldrá regularmente por donde entró... de la comida quiso Dios que estuviere yo como inspirado pues quedó la anciana entusiasmada de nuestra conferencia acerca del euskera. Me acosaron a preguntas los dos clérigos que habitan en el *château*. Hasta media noche estuvimos en el piano. La señora de Abbadie es una artista de cuerpo entero. Al día siguiente celebramos otra conferencia en la Biblioteca. En ella quedaron anotadas los nombres de las personas más caracterizadas para formar parte de la Academia. Quedó la castellana comprometida a cubrir todo el déficit que produjere el sostenimiento de la Academia procurando nosotros antes obtener subvenciones de Diputaciones, corporaciones, etc.

Recuerdo que habiéndose renovado una conversación del día anterior relativa a la conjugación, expuse mi teoría... francés clásico que la señora a... como si fuera sentencia destinada a... todos los siglos. «L'unité de la... dans la multiplicité des noms... de la conjugaison dans la... des verbes».

Me enseñó la biblioteca baskongada que la tiene en lugar especial. Al manifestarle yo mi entusiasmo por las obras importantes de mí desconocidas, me invitó a que siguiera habitando dicho *château* los días consecutivos para tomar notas para el diccionario; y al decirle yo que tenía clase en Bilbao, convenimos en... a fines de Mayo pasaría yo con mis borrones a Hendaya, a pasar unos quince días entre aquellos libros. Con esto conseguiré, creo, además de nutrir mi Diccionario, remachar y terminar la cuestión de la creación de la Academia.

Acordamos en principio que habría dos asambleas generales al año, de ocho días cada una... y otoño una en Hendaya y otra ...bastián o algún pueblo inmediato ... una comisión permanente compren... siete individuos que habra de reu...ente o con cierta frecuencia, encar... de proponer cuestiones para la ...generales, fundación de escuelas, etc... quedó ella en mandarnos a Joannateguy y a mí

una cartita, en la que se había de comprometer por escrito a lo mismo que nos dijo de palabra.

Como ve V., el comienzo fue muy bueno. Veremos lo que sale. Usted estudie el asunto y propóngame cuanto le ocurra, para que en vista de los datos que vaya reuniendo le presente las Bases para la fundación de la Academia.

A mí me ocurren estas aisladas ideas:

1ª El presidente, cargo puramente honorífico, será un sacerdote (caso de que hubiere en la Academia), el más anciano de los de la clase.

2ª El cargo de académico será retribuido, percibiendo cada uno la cantidad de 1.000 francos... Los de la comisión permanente tendrán... en atención a sus trabajos y reuniones.

3ª En una de las dos casas destinadas ...generales se fundará, bajo la dirección... una escuela... la formación de maestros de 1.º ens....

4ª La Academia premiará anualmente... escritas en el dialecto que ella adoptar... y con la misma ortografía.

He hecho bien el viaje. Estamos bien todos. Agradecen aquí sus saludos y em encargan salude a V.

Adiós, mi buen amigo. Hasta el verano, que le veremos con Daranatz.

Suyo *Resurrección*

<sup>1</sup> Nahiz Hendaia Abadia-ko jauregian egin lehen egonaldiaren berriak emaiten dizkigun eskutitza urraturik eta aphurturik heldu zaigun, interesgarri iduritzen zaigu den bezala argitaratzea. Hor dugu bestalde argigarri Broussainen ihardespina eta irazkina: P.B., 24 (11-V-1900).

R.A.-P.B., 10.

*Hendaye-tik Maiatzaren 30-1900*

Ene adiskide maite Peru:

Ona ni emen zabal zabal, nai baiño, *Archevêque* bat egiñik<sup>1</sup>. Araiñegun eldu nintzan. Egun atan buru-makurketeak zer egiñik asko emon eustan. Atzo *korreoak*, ni neure Errian kanpotarra edo arrotza izanarren, ez eustan itšaron, da gaur arte eskutitz onek eztau Abbadia-ko Paradisu onetatik iges egin al izan.

Barri on bi. Bata Jaun Inchauspe<sup>2</sup>-k Andra onen bidez beren Iztegi osoa neuretzat eskiñi daustala. Nik Bilbo-tik andra oni erantzun neutsan, eskerrak emotera Inchauspe-ri etsean bertan agertuko nintzakiola. Jouänen gira biak Süberóra? Edérki bizpahirur égun igaränen dütüzü enekila...

Bigarrena. Batzaldi eder bat dauke Euskalerra guztiko musikariak Bilbon. Begoña-ko Andra Maria-ri eresi bat onena egiten dautsanentzat bi milla peseta daukaz gure adiskide Sota<sup>3</sup>-k.

Eskutitz onegaz batera elduko da zure eskutetara *El Noticiero Bilbaino*<sup>4</sup>-ren gei bat. Mesedez frantsesez biurtu eizu erderaz dagoana, Bizkaitar berbak barriz Lapurtarra beeko oar batzuetan adierazoz eiozuez. Eta gero Baionako albistarietan iragarriko bazendu, lenez ganera bere morrosko ederra izango zintzatekez.

Onezaz ganera zer-esan andirik eztaukat.

1<sup>o</sup> Andre alargun musikari onek Paris-ko Erakustaldirako<sup>5</sup> beronen etsea zabal zabal egin daustala; ta nik, zeregiñ andiak daukadazala ta atzerakuntzea erakutsi dautzadanean, bein baiño ezta izaten onelango gauzea, ta bost edo sei bidar gitšienez alegin andiakaz esan daust ioateko ta iqateko. Eta etsekoak tsarto ezpaderitsoe, Irailaren 11 edo 12 garrenean artuko dot Pariserako bidea.

2<sup>n</sup> Lanari gogor nakiola, ta eguzkia arin iabiltala.

3<sup>n</sup> Inchauspe ikustera noanean, ondo etorri-ezker, zure adiskide Constantin<sup>6</sup> ezautu gura dodala.

Ondo baiatortzu Irailerako itši eizu beraz zure Pariserate<sup>7</sup>.

Beste zerbait neukan esateko, baiña Abadie-ko zapoen kli-klo, tširritširrien kri-kri, aaten kra-kra ta tšori bizkorren tšioqueta onekaz burua giltz barik daukat eta gogamenak sartu-urtenean ume batzuk egiñik darabildaz.

Agur, ene adiskide maitea.

Amari gorantzi asko.

Sarri artio

*Abbadia-ko Apezpikua*



Ikastola<sup>8</sup>-gaitik berba gitši egin dogu. Geldi geldi egin bear izango dala diño.

<sup>1</sup> Hemen daukagu Abadia-ko andra alargunaren jauregian Azkuek egiten duen bigarren egonaldia.

<sup>2</sup> Inchauspe Emmanuel kalonjea (1815-1902) Zibero Basaburuko sorterrian etxeratua zen, 1890 ean, bere Baionako bikari nagusi kargua utzi zuelarik, apezpiku berriarekin makurtu ondoan. Inchauspe-ren euskal lanentzat ikus Villasante, op. cit., 174-176. orr. eta hemen P.B., 2. (27-IX-1897).

<sup>3</sup> Sota y Llano Ramón (1857-1936), industriari ta euskalzale bizkaitar ezaguna. «euskalerrizale» taldearen sortzailea ta Resurreccion Azkue-en adiskide mina. Ikus: J.C. Larronde, «El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri», San Sebastián, 1977, 260-280. orr.

<sup>4</sup> «El Noticiero Bilbaino», 1870-1937, Bizkaitar egunkari ezaguna.

<sup>5</sup> Pariseko «Exposition Universelle» delakoaren kariatara, 1900 ko irailaren 2 tik 5 ra, Julien Vinson, Lewy d'Abartiague eta beste euskalzale zenbaiten inguruan egin beharra zen «Euskal Ikerketen mazioarteko Biltzarra», «Congrès International des Etudes Basques». Ikus «Revue de Linguistique et de Philologie Comparée, Paris, 1900, XXXIII, 297-316.

<sup>6</sup> Constantin Albert medikua; ikus gorago: R.A., 2-2°.

<sup>7</sup> Datorren urrian eginen du Broussain-ek Pariseko itzuli hori: P.B., 27. gutuna (3-X-1900).

<sup>8</sup> «Ikasola» eta ere «Jatibatza» deitzen dute bi adiskidek beren amentsetako Akademia. Ikus: P.B., 25. gutuna (4-VI-1900).

R.A.-P.B., 11.

*Hendaya-tik 1900 Bagilla-ren 5 an*

Enetsua:

Oraintse eldu iat zure eskutitza<sup>1</sup>. Uste dot nire au baiño lenago irakurri izango dozula goizean bialdu deutsudantšu bat<sup>2</sup>.

Zapatuan urtengo dot orrako (Cambo-rako), Hendaya-tik goizeko zortziretan urtenda.

Andre au euskalzaleturik daukagu. Gaur artu dodaz Inchauspek bialduriko liburuak. Uste dot mesedegarriak izango dodazala hainitz eta *hainitz* arazo edo zeregin izango dodala garbiratuten. Burretzialdiko *afera* edo neuk eneban ondo adierazo edo etzeustan zeuk ain ondo aditu edo ulertu<sup>3</sup>. Nik nai neban *Noticiero Bilbaino*-k erderaz dakarrena, frantzesez argitaratutea; ta euskeraz dakarrena, euskeraz; baiña bizkaitarrez oarretan guttia frantzesez azaldu ta.

Zapaturarte agur gozo bat.

R.M.A.

Estaukat geiago esateko astirik.

Aoz adierazoko deutsut nire erezia.

<sup>1</sup> Ikus: P.B., 25. (4-VI-1900).

<sup>2</sup> Gutun hori ez dugu aurkitzen Broussain-en paperetan.

<sup>3</sup> «El Noticiero Bilbaino»-ren iragarpena Baiona-ko egunkarietan frantsesez agertzea nahi zuen Azkuek.

R.A.-P.B., 12.

Bilbao a 27 de Junio de 1900<sup>1</sup>

Carísimo Peru:

Ha llegado ya a mis manos el *Euskalduna* del 30 en que con alguna pequeña errata se publican los versos dedicados *Begoña-ko Andra Maria-ri* en las condiciones del certamen. *Merci bien*<sup>2</sup>. Yo espero que vendrá V. con Constantino, según lo semi-proyectado, a las fiestas de Coronación que sin duda serán espléndidas.

He aquí las pocas palabras que he podido entresacar de mi pequeño ensayo del *Diccionario de la rima*<sup>3</sup>.

ORA, perro; *artzanora* o *artzainora*, perro mastín, *lora* (B), flor *birlora*, segunda flor de las plantas.—llamase también a la alegría completa. *Tsirlora* o *tširlora*, viruta o *copeau*.—*Gora* (casi no merecía citarse por ser *goe* o *goi* + ra), *aizkora*, las voces extrañas *denpora* o *denbora* y *alkandora* o *alkondara*, camisa de hombre; *deithora*, *iora* (que no sé de quién he aprendido ni qué significa), *ganora* (B), que significa remango, garbo para trabajar, etc., y el nombre toponímico *Antzora* que es el de un barrio cercano a Mundaka.

ORE, masa; *lore* (G...), *flor*; *Adore* (B), ánimo, fuerza vital, *Labore*, cereal; *kolore* (?), *umore* (?) o *unore*; *Amore emon*, ceder, condescender.

He aquí la lista de las melodías de *mi Sallaberry*<sup>4</sup>.

1° *Adios, ene maitia*.—2° *Adios, izar ederra*.—3° *Agota*.—4° *Ahaire zahar untan*.—5° *Aitarik ezdut*.—6° *Alageraz*.—7° *Amodioaren phena*.—8° *Andereño*.—9° *Argia dela*.—10° *Argizariak zelütik*.—11° *Atharratze iauregian*.—12° *Belhaudiko bortian*.—13° *Beñat Mardoren*.—14° *Berterretchen*.—15° *Bortian*.—16° *Charmagarria*.—17° *Chori erresiñula* (hots).—18° *Chori erresiñula üdan*.—19° *Choriñuak kaloian*.—20° *Choritua nurat hua*.—21° *Eguntto batez*.—22° *Ene izar maitia*.—*Ezpeleta herrian - Gaiaz eder da - Gaztetasunak - Goizetan - Goizean goizik - Ichkerraren - Ikazketako - Iruten - Jeiki, jeiki - Jundane Estebe - Kaiku - Lili eder bat - Lurraren pian - Maitia nun zira - Mendian zoinen eder - Mendekoste - Mila zortzi ehun - Muthil gaztia - Oi! laborari gachua - Ollanda gazte - Orai banuazü - Ostiraletan duzu - Plañu niz - Prima eijerra - Sortherako alhaba - Ürzo luma gris - Zelüko izarren - Zu zira zu.*

Y no hay más.

Cuanto tenga V tiempo disponible sería bueno hiciera lo que le dije: 1° mandarme en paquete certificado las palabras que haya reunido<sup>5</sup>. 2° hacer palabras nuevas; cuantas más mejor.

Tengo anotadas una buena porción de dudas de Oihenart<sup>6</sup> y Dechepare; pero no quiero molestar a V., mi buen amigo, como esperaba, pues es de creer que Duvoisin haya anotado todas las palabras de uno y otro.

Conservo gratisimo recuerdo de nuestro viaje a Atarratze, Maule, Santa Garazi, Iruleguy, Baigorri..., etc. Por centésima vez le repito cuán conveniente sería que los Baskongados de una y otra orilla del Bidasoa nos tratásemos más.

Estos días he estado en Mundaka predicando unos sermones. ¡Qué bello es el paisaje de Guernika a dicho punto! Tengo la seguridad de que les gustará mucho.

Estos días corre por aquí la noticia de que muy pronto se abrirá el «*Centro Vasco*» ojalá.

Agur; agur, Oño.

Beti ta osoro zeurea.

*Resurrekzion.*

Salude a su madre y hermanos de Madrid que seguramente no tardarán en llegar y a nuestro excelentísimo y gordísimo amigo Hiriart Urruty<sup>7</sup>.

<sup>1</sup> Broussain-ek hilabetearen hasieran (P.B., 26) eskaini egitasmoaren arabera egin duten Zibero aldeko itzuliaren ondotik dator gutun hau.

<sup>2</sup> Baionako egunkarietan agertu dira Broussain-i esker Begoña-ko jaietako olerki ta primetako baldintzak: «Semaine de Bayonne», n.º 2.399, mercredi 20 Juin 1900 eta «Euskalduna», n.º 679, 22-VI-1900 (sic).

<sup>3</sup> Saio honen beste berririk ez dugu bildu.

<sup>4</sup> Hor dago oso osorik, J.D.J. Sallaberry, «Chants Populaires du Pays Basque», Vve Lamaignère Bayonne, 1870, delako liburu ezagunaren aurkibidea.

<sup>5</sup> Hameka aldiz ariko zaigu Azkue Broussain-ek bildu hitz horiek ezin eskuratuz.

<sup>6</sup> Azkue oroit daiteke bere adiskideak Parisetik eskuratu ohi zizkiola euskal liburu frango ta hauen artetik Oihenart-en atsotitzak, irazkin zenbait eratzikitzen zizkiela. Ikus P.B., 5. (28-XII-97).

<sup>7</sup> Larresoron iragaitean ikusi berri duke Manex Hiriart-Urruty adiskidea.

R.A.-P.B., 13

*Bilbo-tik Irailaren 27-an, 1900<sup>1</sup>*

Ene aspaldiko adiskide ta aspaldietako mutu Oño:

Zetan zara? Zetan dira zure aide ta gure adiskideak? Miñiña ta Šabala-ri aspaldion zor deutset eskutitzño bat; baiña luzatu nai nebalako, eskutitzaren orde...itat. Egunen baten artuko dabe...Jaun-artzearen musikazko gomut...

Zuk gordeta zeukastazan berba... esakera arek umegiñen dag... iakuz? Noz eskuratuko deus...? Hasparren zure abia eder... zuen eskutitzari eskutitez baino...bait naiago izan deusat erantzun.

Beste orrialdean ikusiko dozu neure eratzumena.

Artu dozuz egun onetan nik bialduriko eresi ta oi u pilotšu bi?

### *Ilargia*

(Hasparren eta Atarratzeko sendari Broussain eta Constantin ene adiskide ta bide-lagun maiteai oroimengarritšo bat)

1

Atarratzeko Paradisutik odei seaskara urbil,  
(bi nere erritar) maite artean (ninjoala orain) bi il,  
(Añamendieren) funfur gaiñetik (agertu zinidan) iñil,  
(espu sagar bat) bezen tsuri, (ziza bezela) biribil.

2

(Hura zan arrats)ta gau-giroa, oroimengarri benetan,  
zure irudia gekusenean Oniz (\*) ibaiko uretan!  
Arrai lotiak, esnatu eta zilarturik aparretan,  
zebilzenean zure masaila musu artu-emanetan.

3

Nere lagunak tšoraturikan, gogoz ziran oiuka ari,  
*Tšoriñua* ta *Urzo tšuria*, *Agota* ta *Oi laborari*.  
Ibai-ondoko arkaitz-barrendik norbait zan erantzulari,  
nere lagunen soiñu berean: bai-ari - bai; ta-ez, ez-ari.

(\*) «Oniz» eztau izena Inchauspe-ren jaioterriak?... Ibai orrek eztau beste izenik eta... ezarri lei «Oniz» izentzat?

4

«Nola gau itzal goibel antzuak erne dezake argia?  
«Eguna gautu orduan nola gaua eguntzen ari da?»  
galdetzen zuen bidazti batak, itsadonik gure epaia.  
Nola liteken argi iletik zu sortzea ilargia!

5

Aita nuen nik koblakaria, Ama det argi-zalea:  
Ez ete dit biotzak nun gorde (gordairutšo bat tšumea)  
koblakarien oztargi-tšinda, argi-zaleen ikustea,  
zuri gaur zorarazteko ta azarazteko bidea?

6

Zure argitan oianak baratz, soroak zero diruri,  
arrantzarien etšol uzkurak jauregi tšukun ta tšuri.  
Zure begiak dakuskinean ainbat baserri ta uri,  
eztigu ikusten musu goibelik ta erio-jantzirik guri.

7

Ez al ziñuzen, ilargi zarra, lengo euskaldunak agurtzen?  
ta orbelezko oe biguñetatik dantza-tokira ateratzen?  
Ta eztizko oiuaq etziran bizi, Garazi-peko Atarratzen,  
zuri egiñak, zuk eragiñak zure biotza ezitzen?

8

Suberotarrak egaldun zanko zaintsuak sortuta al dauzka?  
Ezpain biguindun Gipuzkoarra nola eztantzugu oiuka?  
Zurekin jaio ta azi dan Erri menditar onen ordeka,  
zuri mintzatzen, zure ganatzen menditu bedi goraka?

9

Su epelezko agoi ederrari (odeiak aiena bediz),  
lo dauden (gure erritar auek) esna ditezten (zu ikusiz),  
argi orretan (jakin dezaten) nor diran (beron jatorriz),  
ta aitor (dezaten biotz bakarrez:) «Bat izateko (jayo naiz)».

10

Eztai-egunez (emazte-gaia) bezin apain eta lerdin,  
argi gautarra dabilenean itzalik itzal argitzen,  
zaude eguzkia, lozko lerdetan nagiz gaua luzatutzen,  
zaude ta gogoz irentsi itzazu suzko estai orrek len-bai-len.

11

Zu bezin eder, zu bezin gozo, zu bezin maitagarria  
degu zazpi aldeko euskaldunak gure Ama Euskalerria,  
Ederra zera, maite zaitugu euskaldunak, ilargia;  
eresi gozoz gozatzen dezu (maitalarien) bizia.

12

Mendi auetan eztezu ikusi euskaldun erria baizik,  
iñoiz ubelde zikini bezela baletor erdal-talderik,  
o euskaldunen lagun zintzoa, zoaz zerura zut zutik:  
Jaunaren bizi-toki ederra apain zazu eguzkiturik.

...orretan atal biak itzulaštu...dagoz. Mesedez esaidazu zelan ...al-  
dean ipiñi lekioezan ereskai...lotots orrei, ortiko euskaldunak...daie-  
zan. Zure gogokoak baldin...gizuz ta bialdu eiozu birregin bat gure  
sendari sendo ta adiskide zindo Constantin-i.

Darricarrère-n iztegia badaukat, baiña neure usteai aitzi (se-  
cundum Larrieu) eusla gitši batu al izango deutsadaz Darricarrère-  
ri.

Gorantzi asko etšeko guztiai. Nire adiskiderik ikusi daizunean,  
bizi nazala ta geroago maiteago dodazala Euskalerria ta euskaldun  
guztiak.

Constantin-i ta gurasoai eskumunak eta gorantziak. Egunen  
baten artuko dabe nire eskutitza.

Agur Ofo

R.M.

<sup>1</sup> Laster ohartzen gara eskutitz hau, eta berekin zeukan olerkia ere, urraturik eta apurturik heldu zaigula. Olerkia bada berregin ahal izan dugu: Azkuek berak argitaratu baitzuen geroxeago: R.M. Azkue, «Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular», Bilbao Garmendia, 1917, 99-107. orr. Aldaketa zenbait badaude, gaztelaniazko itzulpenaz bestalde eta okertxo bat ere bai, Atarratzeko «tšangoa» 1900 eko ekainean izan baitzen ta ez 1898 ko urrian, liburuak dioen bezala.

<sup>2</sup> Ta «euslerik» ez izanez bere hiztegia ez du argitaratuko Darricarrère kapitainak.

R.A.-P.B., 14

*Bilbao a 21 de Noviembre de 1900*

Carisimo Peru:

Hace ya 15 días que escribí al canónigo Sr. Arbelbide, diciéndole que el joven Etcheberry<sup>1</sup> podía venir a Bilbao cuando quería, pues yo me *comprometo a costear su manutención* y demás gastos de hospedaje; sin más obligación suya que de ayudarme en mis trabajos en lo que buenamente pueda.

Más de un mes hace que escribí poco más o menos lo mismo; y la madre del dicho joven creyendo sin duda que yo exigía de él conocimientos literarios, me escribió por ... .. que su hijo servía para trabajos manuales de un comercio; pero no para trabajos literarios. Yo, por dar gusto a ella y a ustedes, di algunos pasos para colocarle en algún despacho comercial, pero me dijeron que sería muy difícil colocarle así, no sabiendo la lengua de la mayor parte de los compradores. Entonces volví a escribir a Arbelbide (como le he dicho en un principio) y no tengo contestación. El chico estará bien, le tengo buscada una casa de confianza. Sus trabajos se reducirán a hablar conmigo en franchute, pues me hace mucha falta; y luego ayudarme a poner al revés el Diccionario; es decir, a medida que vaya leyendo, por ejemplo, *Gau*, noche; *egun*, hoy... abra el Diccionario castellano y donde dice *Noche* ponga *gau*; y donde dice *hoy*, *egun*, etc.

Dije también a Arbelbide que si como creo me da gusto por su docilidad y demás buenas prendas, alguna cosita le daría para sus gastos particulares. Si quiere venir en estas condiciones, que me parecen buenas, venga cuanto antes y me digan qué día llega a Bilbao, para que le salga uno a la estación.

¿Qué se hizo del hijo del alcalde de Montory?. En el *Centro Vasco* (hoy cerrado por orden gubernativa) hay una plaza de servidor para él. Dígame si acepta; pues hay aquí muchos solicitantes.

Dentro de uno o dos meses vamos a crear una gran revista ilustrada quincenal *Arte Vasco*<sup>2</sup>. Tendrá poco de euskera. Cultivará la música del país, algo de literatura en baskuenze, fotograbados, dibujos, etc., de artistas del país.

En esta Revista espero publicar mi composicioncita *Ilargia*, letra y música. Si nuestro simpático Constantín tiene muchas ganas de conocer la música de esta composición, le mandaré manuscrita. Creo que sería bueno no se publique en *Eskualduna* hasta que salga a luz en *Arte Vasco*.



*Centro Vasco* tiene ya 1.500 socios; pero el Gobierno está duro. En cuanto los carlistas, aquí muy débiles, disparan dos tiros de perdigón, el Gobierno suspende las garantías constitucionales y cierra nuestros círculos y suspende nuestros periódicos.

*Eguna*<sup>3</sup> quisiera yo que naciera con el siglo XX. No sé si para entonces tendremos libertad para ello.

Después de la Coronación de N.<sup>a</sup> S.<sup>a</sup> de Begoña he trabajado mucho en el Diccionario; pero como soy solo... todavía me falta poner en limpio las letras *p*, *t*, *t̄s* y *u* y la mitad de *o* y *s*. Luego tengo que leer otros Diccionarios y entonces podré empezar a publicar para hacer luego el diccionario castellano-basko. He revisado ya las letras *B*, *Z* y *D* del curiosísimo vocabulario de Sallaberry<sup>4</sup> con anotaciones de Sallaberry.

¿No podría V. encargar por ahí a alguno que haga en Laburta- no lo que el buen padre de nuestro Marsellés (cuyos *du tout*, *du tout*, *du tout* y *afisionada* no puedo olvidar) ha hecho en suletino?

¡¡Qué bien me vendría que alguien (alguno de Larresoro<sup>5</sup> por ejemplo) intercalase hojas blancas entre las de Sallaberry el notario de St. Jean-Pied-de-Port y cruzase las palabras que también son laburtanas y en las páginas en blanco fuese anotando las no incluidas por Sallaberry!!

Así como yo soy poco o nada confesor (no me siento en el confesionario) para ser más baskófilo, así V. para ser más baskófilo debería ser V. menos doctor. No digo matador, para que Sallaberry el chico<sup>6</sup> no le tome a V. por torero.

En tal caso V. mismo, carísimo *alfertzarra*, según le llama a V. Constantin, podría V. hacer ese trabajito. No olvide V. la tarea de mandar una buena lista de palabras nuevas, indicando brevemente su formación. Mucho, muchísimo me alegraré de que vaya V. cuanto antes a Hendaya a conocer a aquella insigne castellana, alma de artista como pocas. Como me cuesta muchísimo escribir el francés y casi para decir «Buenos días!», «¿Cómo está V.?» tengo que abrir el Diccionario, por esto no le he escrito hace tiempo. Si va V. a Hendaya, díglele a la señora que días después de la composición *Ilargia* hice otra en Guipuzkoano titulada *Arranoa*. Quise hacer la música y no me salía ninguna de gusto. Cuando termine de poner en limpio todas las letras del Diccionario haré otra convocatoria a las musas. Veré si me inspiran mejor y más que antes. Quisiera que fuese una composición digna de la artista a quien espero dedicarla.

He aquí la traducción de algunas palabras, de *Ilargia*:

*Odei-seaska*, cuna de las nubes.

*Tsarba-sagarra*, variedad de manzana, blanca y hermosa.

*Zuza* o *Ziza*, hongo, seta muy apreciada y de buen gusto.

*Aparretan*, en espuma. En B. es *bitzetan*.

*Gordairu*, depósito, tesoro.

*Oztargi*, luz del cielo.

*T̄sinda* (Axular), chispa; «*Suco, inharra suco chinda, bera bere buruz fite iraungitçen da*» (Axul)-184, 12. Zuen *šori, šinda...* gure artean *t̄sori, t̄sinda*, dira.

*Azarazi edo azerazi*, hacer olvidar.

*Zorerazi*, hacer enloquecer.

*Et̄sol*, cabaña, choza.

*Uzkuř*, encogido, agachado, creo que pondré *makuř* que es más conocido y neto.

*Agoe* o *agoi*, masa de hierro candente, según se saca del horno.

*Sortu*, entorpecerse, hacerse más tonto para moverse.

*Lozko lerre*, baba de sueño. Bizkaitarrez *aduřa da lerre* au.

*Estaiak*, los rayos del sol. Voz muy conocida en Bizkaia.

*Ubelde*, torrente.

Aunque tengo poco tiempo disponible voy a copiar a la vuelta mi composicioncita *arranoa*. A V. debo haber empezado estas poesías por aquella ideita que me manifestó en el *odei-seaska* de *Atsoa*<sup>7</sup>, de ir escribiendo poemas a seres y fuerzas de la naturaleza.

Si a V. le gusta podría V. hacer una traduccioncita francesa (pero no para publicarla por ahora) para leer a Madame d'Abbadie a quien la dedicaré cuando llegue el día.

### *Arranoa*

1

Arranoa da nere izena, nere izatea Errege;  
ene koroia eguzkia da, nai izatea det lege.

2

Lurreko erregeen aulkien ordez odeiak ditut jartoki;  
euri ta odeiak izan oi dira nere oporretan jolaski.

3

Euriz ikuzi, aizez orraztu, ta eguzki epelez legortu;  
egadun jaio, zoritsu bizi, zarrez il eta auskortu.

4

Nere erregezko bizitza onek eztit ematen samiñik.  
Zerutik urbil, nerau urbilen beti bizi izan nai det nik.

5

Euri-iturriak baiño gorago bakar, zoria bezela,  
bizi naiz, nere ega-otsa baizik neregatzen ezala.

6

Neguan lurra zeruz jantzirik eguneratu orduan  
odei -gaiñetik dakust elurrak nolako sorrera duan.

7

Ta iñoiz jostatzen ari naizela odei beltzakin erpeka; (zarpeando)  
atzaparpetik irtetzen zaizkit tšimišta ariñak lasterka.

8

Gizonak izuz laborriturik daudenean ortz-kirrizka  
odei beltz gaitzen trumon-ardailak oi dira ene lo-korroska.

9

Egada bitan zeru ta lurra neurtzen ditut errazkiro,  
janariketan arkume-bila natorrenean goizoro.

10

Beste egaztiak nere aldean tšorikumeak dirade.  
Zeruak dio «enea zera»; lurrari diot «aut, alde».

11

Arrañoa da nere izena, nere izatea Errege;  
ene koroia eguzkia da nai izatea det lege.

Agur, Pierre. Ez *lotiegia* izan. Eta badakizu nun daukazun  
biotz biotzetik maite zauzan adiskide bat.

Gorantzi asko etšekoai, Constantini ta guztiai.

A. Joannateguy-ri bere gorantzi asko ta mamintsuak emoiozuz  
urren alkar bat egin daizuenean.

<sup>1</sup> Etcheverry Charles, 18 urteko garaztar gazte horretaz idatzia zion bai Broussain-ek berak Azkue-ri bi aldiz: P.B., 28 & 29. gutunetan (4-X-1900 eta 18-XI-1900), baina bai ta ere Arbelbidek bere aldetik.

<sup>2</sup> «Arte Vasco» izeneko ilerokoa agertuko da Bilbon bainan asko geroago, hots 1920 ean.

<sup>3</sup> «Eguna» egunkaria, ez da oraino behin argitaratuko.

<sup>4</sup> Salaberry d'Ibarrolle, A., «Vocabulaire de mots basques bas-navarrais, traduits en langue française» Vve Lamaignère Bayonne, 1857.

<sup>5</sup> Larresoro-ko Seminarioko irakasle euskalzaleak dira orduan Abbadie buruzagia, Hiriart-Urruty, Blaise Adéma eta J. Barbier. Ikus P. Charritton, «J. Etchepare medikuaren idazlanak» I, «Euskal Gaiak», Elkar, 1984.

<sup>6</sup> J.D.J. Sallaberry Mauleko notari euskalzalea.

<sup>7</sup> «Atsoa» izengoitia emana zioten lagunek orduan Santa Grazian zegoen Julien Heguy apez euskalzaleari (1860-1930): Ikus P. Lafitte «Julien Heguy apeza», Baiona, 1930.

R.A.-P.B., 15.

*Bilbo-tik 20-garren gizaldiko ene lenengo eskutitza, ene adikide iñil Peru Buruzain<sup>1</sup>-i.*

Zetan zara? Ilabete inguru da neure barriak emon neutsuzana<sup>2</sup>.  
Bide batez *Arranoa* izendun eresia bialdu neutsun. Gaur esateko daukadantsua orri tñiki onetantse sartuko alda.

1.º Urte on bat igaro daizula.

2.º Ezkondutekoa bazara, ez urte oni iges egiten itñi.

3.º Noz dator zure adiskide Etcheberry-ren anae Charles?

Gure adiskide Arbelbide-ren erantzumenari begira nago.

4.º Bialdu zeutsan gure Constantin-i *Ilargia*?

5.º Nori ezarri deutsazu Sallaberry Lapurtartuteko arazoa?

6.º Baztandar abade bat daukat berariz ekarrita<sup>4</sup>, ango eusker eder, garbi, ugaria neuri erakusten.

7.º Gorantziak etñekoai.

8.º *El Arte Vasco*, ernari dala, il iaku.

9.º Zer diño Montory-ko auzaphezak?

10.º *Centro Vasco* zabalik dago. Juan Carlos buru egin dabe<sup>5</sup>; baiña gerritik gora eztau ezer izan gura.

*Eguna*, eguzkia ikusi-orduko, gautu deusku Españiako Gobernu itzalak.

Nagia kenduteko osagarririk onena zein da?

Agur, loti!

Betiko zure adiskide

*Lodia*

<sup>1</sup> «Broussain» izenaren euskal grafia «Buruzain» izana dela egiaztatu ahal izan dugu Hazparneko udaletxean: 1804 eko zentsu liburuan «Buruzain» izeneko etxea aurkitzen baitugu.

<sup>2</sup> Ikus aintzineko gutuna: R.A., 14. (21-XI-1900).

<sup>3</sup> Gutun horretan zehazki aipu dira hemen errepikatzen diren gai gehienak: Etcheberry ta Arbelbide, Constantin medikua eta Montory-ko auzapeza, *arranoa* eta *Ilargia* eresiak, Salaberry-ren hiztegia, *El arte Vasco* eta *Eguna* bi agerkarien xedeak.

<sup>4</sup> Azkuek berak bere hiztegian (Diccionario Vasco-Español-Frances, XI.orr.) aipu duen Gorosurreta apezka.

<sup>5</sup> *Centro Vasco*-k, Juan Carlos Gortazar (R.A., 4-10º) hartu zuen buruzagi aldi honetan.

R.A.-P.B., 16.

*Bilbao a 11 de Febrero de 1901*

Carísimo amigo:

Al cabo de tanto esperar, creía que V. me diría «por fin le anuncio que me caso... el día...!, para un novio no hay pasado ni futuro y de presente no may más que su prometida. He aquí la razón de mi silencio».

No me extraño de que a mi querido Pierre Loti<sup>1</sup> se le pase un mes sin contestarme, porque a mí se me pasan sin contestar a otros.

¿Quiere V. venir a Bilbao en cuanto reciba V. esta carta. Este mismo sábado (día 16 de febrero) voy a pronunciar un discurso acerca de la música baskongada<sup>2</sup> con ejemplos lindísimos (Bizkainos, Suletinos... etc.) cantados por hábiles cantores. Conocerá V. en pleno el nacionalismo de esta región.

Querría V. enterarse de si el Sr. Alcalde de Montory tiene algún otro hijo a quien quisiese enviar a Bilbao a aprender el español?

Yo le tendría muy a gusto<sup>3</sup>. Si no hay Montorianos no podría V. encontrarme algún jovencito de trece o catorce o quince años que quisiese estar a mis servicios con manutención pagada y alguna pequeña gratificación?

Creo que el día 1º de Mayo crearemos *Eguna*.

El hijo de Etcheberry es un buen muchacho<sup>4</sup>; tiene colocación casi segura. Qué dichoso sería yo si viniese V. esta semana con otro amigo, por ejemplo, Arbelbide o Constantin o Daranatz o solo. Creo que pasaría V. días agradables. Precisamente tendré cuatro días de vacación.

«Je vous attends les bras ouverts».

He querido darle una muestra de mis adelantos<sup>5</sup>. Adios impenitente solterón y carísimo amigo Pierre.

Suyo siempre,

*Resurrección.*

<sup>1</sup> «Pierre Loti» zen, orduan Hendaian bizi zen, «Julien Viaud» (1850-1923) frantses idazle eza-gunaren izenordea; «loti» horrek euskaraz duen adierazpenaren gatik, izenorde bera emaiten dio Azkuek bere Hazparneko adiskideari.

<sup>2</sup> Hitzaldi hori argitaratu zuen gero: R.M. Azkue, «La Música Popular Vascongada», Astoreca Bilbao, 1901. Ikus zehaztasun zenbait ondoko gutunetan.

<sup>3</sup> Montori-tik etorriko ez den gaztearen orde bere laguntzeko Azkuek noizbait hartuko du beste Ziberotar gazte bat, Ligi-koa: R.A., 43.

<sup>4</sup> Etcheberry Charles hori da, Arbelbide ta Broussain-ek gomendatu gaztea Ikus, R.A., 14-1º (21-XI-1900)eko gutuna eta aintzinagokoak.

<sup>5</sup> Frantsesa ikasten hasi zaigu Azkue. Gai hori berriz aipatuko digu urrunago: R.A., 24.

R.A.-P.R., 17

*Bilbao a 22 de Marzo de 1901*

Carísimo Amigo Pierre:

Contestando a su última, gratisima como todas, dígame que el Sr. Verschaffel, sacerdote astrónomo de Abbadia<sup>1</sup>, me anunció días de recibir yo su carta la muerte de la Viuda d'Abbadie. Le escribí enseguida pidiendo circunstancias y pormenores de los últimos días de su vida, pero no me atreví a preguntarle nada de disposiciones testamentarias. Con el tiempo se sabrá si se ha acordado de la Academia. Estamos casi en vísperas de sacar a luz el periódico bisemanal. Aquí está Bustinza (a) Mañari, el que ha de ser redactor jefe<sup>2</sup>: es muy jóven muy bueno.

Dentro de pocos días se empezará a imprimir el Discurso que pronuncie en el Centro Vasco, acerca de la música popular baskongada<sup>3</sup>.

Saldrán 14 números de música; entre ellos *Barda amets egin dut* que delante de V. aprendí de la chocolatera de Lekuine y el *Mendekoste-bestetan* que no sé si aprendí de V. o de Constantin. La edición se va a hacer por suscripción voluntaria de unos amigos.

Un favor. Querrá V. mandarme a vuelta de Correo las estrofas de *Mendekoste...* Yo no sé más que esta.

*Mendekoste-bestetan  
aurten Arnei-ko errekan  
istorio bat gertatu izan da  
kasik ez beitirot erran  
bortz emaztek edan tuzte  
Amalau pinta bepetan  
iokaturikan kartetan.*

.....  
Las estrofas siguientes me vendrían muy bien; pero en seguida. Si en Hasparren no hay quien los sepa, escriba V. de mi parte a Constantin, nuestro noble y simpático Constantin; y dígame V. que me envíe directamente.

También publicaré la letra (no la música, pues no muy típica) que aprendí de su cuñada:

*Ihaz il zerautan senarra  
nik nahi nuen bezala, etc.*

¿Será abusar de la confianza de un amigo esta proposición? Yo quisiera comprobar por mí mismo los apuntes de Duvoisin y de Darricarrère, es decir, leer palabra por palabra a aldeanos de Lapurdi, Basse-Navarre y Suberoa<sup>4</sup>. A este fin quisiera tener por quince días

o tres semanas seis hombres, dos por cada región, que sepan bien su dialecto; para apuntar lo que me digan. ¿Querria V. encargarse de buscar esos hombres por medio de médicos o sacerdotes, amigos suyos?

Qué punto sería mejor para tenerlos: ¿Baigorri? ¿Sara?...

Primero espero ir a San Sebastián a pasar un mes, a terminar la segunda mitad del Diccionario que dejé de leer por falta de tiempo hace dos años.

Luego pasaré un par de días en Hendaya; y después reuniré la pequeña Academia de ultrabidasoanos.

Como no tengo delante la carta que V. me escribió no sé que más decirle.

Etcheberry<sup>5</sup> es un joven muy simpático, y de excelente conducta: está ya colocado.

Lo del joven francés déjelo hasta el verano. Yo lo traeré conmigo si lo encuentro.

A Dios, carísimo Pierre. No me prive V. del consuelo de saber noticias suyas.

Si tuviera tiempo escribiría una fábula en que habría de figurar un pájaro suelto metido en un nido hermoso, grande, renovado; y revolotearían mil pajarillos preguntando al de dentro ¿y las crías?

A Dios, carísimo. Hasta la suya.

*Resurrección.*

<sup>1</sup> Parisen hil zen Antonio Abbadia-ren alarguna. Abbadia hilez geroz eta gaur arte, beti egon da apez astronomu bat Abadia-ko jauregian. Ordukoa Verschaffel hori zen.

<sup>2</sup> «Ibaizabal» deituko duen egunkaria eta horren zuzendari jarriko duen Mañari Bustinza Evaristo, lehenago aipatuak zituen Azkuek: R.A., 7-7º.

<sup>3</sup> Bere «Centro Vasco»-ko hitzaldiarekin aipatzen dituen hiru abestietarik, hots «Barda amets egin dut», «Mendekoste bestetan» eta «Yaz hil zerautan senarra», azken hau bakarrik berrargitaratu zuen Azkuek, «Cancionero Vasco» liburuan, 352. orr.

<sup>4</sup> Ondoko urtean, Ziberoako Ligi herrian, beteko duen asmua, hemen agertzen du Azkuek, lehen aldikotz. Ikus: R.A., 38, 39, 40, 41, 42.gutunak.

<sup>5</sup> Etcheberry hori eta ere delako «frantses gaztea», aintzineko gutunean aipu ziren. Ikus: R.A., 16. 3 & 4. oharrak.



R.A.-P.B., 18.

*Bilbao a 10 de Mayo de 1901*

Carísimo amigo:

Brevemente (si es que la pluma no me resbala) le diré una porción de cosas.

1.º Que contra lo que V. cree en su última carta<sup>1</sup> no sé nada de las disposiciones testamentarias de Madame d'Abbadie.

Yo espero enviar uno de estos días un ejemplar de mi conferencia sobre la *música popular baskongada* a Hendaya, dedicándola a la memoria de Mr. y Mad. d'Abbadie; y será fácil que me escriba el sacerdote astrónomo de Hendaye y me diga algo de la testamentaria si hay cosa que pueda interesarnos.

2.º Mándeme V. a vuelta de correo los nombres y apellidos de sus sobrinitas *Šabala* y *Miñiña*, pues aunque tarde he cumplido lo que les prometí cuando hicieron la primera comunión; es decir que he escrito un dúo en Baskuence bizkaino, para típles, con letra del Sagrado Corazón del Jesús, dúo que dedico a las dos hermanitas. Sé que las dos son María, la una además Teresa; pero no recuerdo más. Se me han extraviado las tarjetas que me enviaron. Mándeme también las señas o *l'adresse* de su domicilio en Madrid<sup>2</sup>.

3.º En el Diccionario de Duvoisin<sup>3</sup>, cuya copia está ya hecha, no por mi (pues no he tenido tiempo) sino por Bustinza, hay sobra de derivados, sobra de fe en Larramendi y Compañía, exactitud en cuanto dice de los dialectos ultra-bidasoanos, y creo que faltan bastantes materiales de los mismos dialectos.

Yo no puedo creer que no haya más variantes de las mismas palabras. Por esta razón quería yo pasar unas tres semanas por ahí<sup>4</sup> y hasta me había ocurrido fijarme en Baigorri (¡qué nombre tan poético! Vale por el Janículo, Delfos, Teheran, o cualquier otro); pero si no hay necesidad, pasaré una semana con dos o tres que sepan muchas y buenas canciones populares. Tengo ganas de pasar una o dos semanas en el Roncal; pues Campion cree que serian muy fecundas mis investigaciones en aquel valle.

4.º Acabo de terminar el mes del Corazón de Jesús en bizkaino. Está ya aprobado por el obispo, hoy empiezan a imprimir. Para el 25 de este lo habrán terminado. La música (una letanía en latín, distinta de la anterior, y nueve distintas piezas en baskuenze) está en Madrid: la recibirá V. juntamente con la letra<sup>5</sup>.

5.º Hace quince días dio Campion una grandiosa conferencia sobre la personalidad del pueblo basko en el *Centro Vasco*. Si se im-

prime como creo, le mandaré un ejemplar<sup>6</sup>. Si no le mando, pídamelo; pues olvido fácilmente las cosas.

6.º A San Sebastián iré entre la primera y segunda semana de Julio. Y allí pensaremos cuándo hemos de emprender nuestra expedición<sup>7</sup> con los simpáticos Constantin, Heguy..., etc.

Es probable que venga con nosotros Juan Carlos, presidente del Centro Vasco.

<sup>8</sup> 7.º Recibí *Mendekoste* de Constantin. Lo verá V. en la Conferencia sobre la Música popular...

A Constantin le mandé la música y también la letra de *Ilargia: Atharratzeko Paradisutik...*, etc. No sé si habrá recibido.

8.º ¿Cuál es la dirección de Lassalle<sup>9</sup> en Bayona? Pues quisiera enviarle mi conferencia.

9.º Etcheberry, se conduce muy bien. Es bueno.

10.º A principios del mes que viene crearemos el bisemanal *Eguna* o como se llame.

Adiós, carísimo *mutil zaar*. Salude a los de casa y mande cuanto guste y escriba de vez en cuando a su invariable amigo.

R.M. de Azkue.

<sup>1</sup> Apirilaren 30 ekoa daiteke azken gutun hori. Hor dio Broussain-ek, Abadiako andere alar-gunaren ordenuz Azkuek zerbait bazakikeela usteko zuela: P.B., 31. (30-IV-1901).

<sup>2</sup> Broussain-en ihardespena: P.B., 32 (14-V-1901).

<sup>3</sup> Bost aipaldi ukanik dauzka Duvoisin-ek Haristoy-i utzi zion hiztegi horrek: P.B., 5 (18-XII-1897).

<sup>4</sup> Berriz aintzineko gutunean aipatu xede bera: R.A., 17-4.º.

<sup>5</sup> R. Azkue, «Jesusen Biotzaren ilara...», Bilbao Artes Gráficas, 1901.

<sup>6</sup> A. Campion, «La personalidad euskara en la historia, el derecho y la literatura», Bilbao Artes Gráficas, 1901.

<sup>7</sup> Erronkarirako itzuli hori, Iparralden gairi, Aboztuan izanen da: R.A., 21.

<sup>8</sup> 7º, 9º eta 10º zenbakietako gaiak lehenago aipatu dira. Ikus R.A., 17. eta aintzinekoak.

<sup>9</sup> Lassalle Pierre Alphonse horretaz, ikus: R.A., 3-1º. Broussain-ek erantzun dioke Azkue-ri, galdu dugun gutun batean; ikus jarraian datorren Azkue-ren gutuna: R.A., 19. (1901-V-29).

<sup>10</sup> Datorren zenbakitik hara (19-31. argitalpen honetan) Azkuek idatzi gutunak, Alfontso Irigoyen-ek argitaratu zituen «Euskera» aldizkarian, Bilbao, 1957 II. Bai ta ere Azkue-ri Broussain-ek bidaliak (31-50. gure argitalpenean). Baina hor konturatzen gara Irigoyen-en sortan falta zirela Broussain-en etxen geldituak ziren eskutitzak: Azkue-ren 22. (16-IX-1901); 27. (8-I-1902); 29. (6-III-1902); 30. (3-IV-1902) eta Broussain-en 32. (14-V-1901).

R.A.-P.B., 19

*Bilbo-tik 1901-ko Maiatzaren 29-an.*

Neure adiskide maite Peru-ri:

Biar goizean alkarren leian edo zein ariñago Hasparren-alderako bidea artuko dabe eskutitz bere moduko onek eta «*Jesusen Biotzaren Ila*»<sup>1</sup> deritson liburutšu iaio-barri batek. Auše dala uste dot nire oraiñarteko lanen artean mesedegarriena ta erri-barruratuena. Egun batzuk barru argia ikusiko dabe beste liburutšu bik: bata da «*Litania Nova SS. Cordis Jesu*»; bestea «*Jesusen Biotzari irutzuk oiu*». Biak dira musikazkoak, euskal arimadunak.

Zube loba Miñiña ta Sabalari oraintše aste bete bialdu neutsen zor neutsen oiua: eztaikit eskuetaratu ete iaken. Lassalle ta Larrieu-k artu izango dabe nire *Conferencia*; bai Daranatz, Adéma<sup>2</sup>, Constantin eta Arbelbide-k be; biar bialduko deutset Jaurgain<sup>3</sup>, Sallaberry, Joannateguy ta Bordes<sup>4</sup>-i. Gaur ilebete inguru Donostian lo egingo al dot; eta andišek iragarriko deutsut gure Euskalerra-alde maitagarri orretarako igituko nazan eguna. Iru asteren buruan ilunpetik atarako dogu, oker andirik iazo ezpalei, Albistari barria<sup>5</sup>. Onetarako amabi gizon dirutsuren izenean etzi edo etzikaramon zabalduko dogu *Emisión de acciones* erderaz esaten iakon paper bat. *Accione* bakotša 25 pesetako izango da. Ikusiko dogu zeinbat diru batuko dogun; baiña nai asko nai gitši batu Etšean dago diru andia ta Doniane-aurretik eguzkia baizen ziur atarako dogu urte-ta-erdiko gau luze onen barrutik albistaritšua.

Campion-en berbaldi ederra ifunpean dago oraindiño<sup>6</sup>. Carmelo Echegaray-en liburu barri bat<sup>7</sup> ioatzu eskutitz onegaz batera.

Zer izango ete dogu Andra Abbadie-ren Ilburukoa? Dana dala premiñazkoa da AKADEMIA (eztot gomuta zuk Lekeitio-n, oraiñ urte bi, eraturiko izena<sup>8</sup>) ta sortuko dogu. Laborariak uztaroetan maas biltzeko baiño pozagorik nago Baigorri izpiltzea, Hasparrenen oiuketea, Erronkarin osasun-batzea ta bitartean neure adiskide onakazko tšangotzea egiteko. Onanzkoan Bilbon oparo, ziri-zara ta aukeran igaroko dogu aldikada bat.

Beti zurea *R. Mari*.

<sup>1</sup> Liburu horrentzat ikus aintzineko gutuna: R.A., 18-5<sup>o</sup>. Beste bien hatzik ez dugu aurkitu E.G.I. del P.V., Jon Bilbao-ren Bibliografia-ko «Azkue» artikuluan.

<sup>2</sup> Orain arteko euskalzale izenen ondotik, hona beste zenbait: Adéma Zalduby, Gratien kallonjea (1828-1907), askotan berriz agertuko zaigu. Ikus Villasante, op. cit., 190-193.

<sup>3</sup> Jaurgain, Jean de (1842-1920) Ziberotar historialari ezaguna («La Vasconie», Pau Garet, 1898-1902. 21.). Euskalzaleen Biltzarreko buru-lehen egona.

<sup>4</sup> Charles Bordes (1863-1909), Parise Saint-Gervais-ko musikalaria. Lan gaitza egin zuen euskal musikaren alde. Ikus Jon Bilbao, «Bibliografia», op. cit. J.F. Larrieu (R.A., 4-6.<sup>o</sup>) haren Ziberotar lankidearen bitartez harremanetan sartu zen Azkue-rekin (P.B., 5<sup>o</sup>)

<sup>5</sup> «Ibaizabal» izeneko: R.A., 17-2.<sup>o</sup>.

<sup>6</sup> Ikus R.A., 18-6<sup>o</sup>.

<sup>7</sup> C. Echegaray, «De mi país», San Sebastián, 1901.

<sup>8</sup> Lapurditik Bizkaiarako itzuli hori 1899 ko Azaroaren azken egunetan egin zuten Broussain, Alberbide ta Darricarrère-k (P.B., 19). Akademiarentzat lehenbizian asmatu izena berriz «Ikasola» zuten (R.A., 10-8<sup>o</sup>).

R.A.-P.B., 20.

*Bilbo-tik 1901-ko Garagarrillaren 11-an.*

Hasparren-go Peru ene adiskide maiteari agur gozo gozoa.

Oraindiño Bilbon naukazu ta esango deutsut zegaitik. Bagilaren lenengo egunetan Donostian barruna asteko nengoala, gorputz makar da arima gizendun Juan Carlosek<sup>1</sup> arren bai arren Anbotoren izeneko musika luze amairik eztaukan bat egineko esan eustan; da arrezkero emen nago io ta su, buru-belarri lan neketsu oni nakio-la.

Il onen 25-an, luzeen dala, emon bear dot neure lan au. Berau burutu-arte ezin alde egin daiket emendik; baiña amaituta berealaše orrako bidea artuko dot.

Guilbeau-ren deia izan neban neuk be<sup>2</sup>, orain aste ta erdi, Hendaya-ko Batzarrera ioateko; ta ona zer erantzun neutsan: «*El nombre de mis amigos Adéma y Campion que V. cita en su carta que acabo de recibir me hacen creer que no se trata de reproducir el congreso de los señores Vinson, Dodgson, Charencey, Abartiague y compañía. Por lo mismo tendré mucho gusto en concurrir a la reunión indicada*»

Eta bart eldu iatan eskutiz tšiki bat, iragarri onegaz: «Congreso Basco de Hendaya el 16 de Julio a las 9 de las mañana a la Casa Consistorial. Convocación».

Gaur bialduko deutsat Guilbeau-ri papel laburtšu bat eta esango deutsat enazala Hendaya-ra ioango; bada Vinson-ek eta lagunak zer-ikusirik izango ezebelakoan emon neban nik neure berbea. Adema-ri zeuk zer bait esatea ondo izango litzake: berak, zarrena dan aldetik dei egin daigula aurten Donostiara edo norabait euskalzale guztioi, *Academia* sortuteko asmoz; da bide batez Ortografia-ren ganean berba egin leike. Adéma orain Abartiaga ta Vinson-en deira Hendayaratuko balitz, biarko egunean eurak laguntzat artuteko premiñan aurkituko litzateke. Campion-i gaur esango deutsadaz gauzatšu bi. Ez Larrieu-k ez zuk Andre d'Abbadie zanaren gauzarik aiatatu ezteustazuen-ezkero, uste dot ezabela Academia-rentzat ezer itši izango. Zure lobatšuai zuzenduriko oiua moldez agerian daukat; orra noanean eroango deutset.

Agur, Peru. Zurea beti.

R. María

<sup>1</sup> Juan Carlos Gortazar musikalaria adiskidea (R.A., 4-10<sup>o</sup>), ezpairik gabe.

<sup>2</sup> Martin Guilbeau medikua (1839-1912) Urruñan jaioa, Donibane Lohizuneko auzapez euskalzale eta errepublikazale izana zen. A. Abbadie, J.B. Duvoisin, A. Goyeneche eta beste euskalzale «zurien» aurka sortu zuen 1893 an «Association Basque» izeneko batasun berria. Honen itzalean Adéma Zalduby eta Arturo Campion euskaldun zintzo zenbaitekin Guilbeau-k bildu eta sartu nahi zituela bere adiskide «gorri» eta arrotz asko errana zuen aspaldi Broussain-ek: Ikus, P.B., 1. (30-VIII-1897) eta Guilbeau berari buruz: ikus, P.B., 2. (27-IX-1897). Oraikoa aldiz, Guilbeau-ren azken xedeetaz Broussain-ek erran dionari: P.B., 33 (7-VII-1901) du Azkuek ihardesten.

<sup>3</sup> Julien Vinson (1843-1926). Frantses inperio denboran (1866) gobernuak Baionara igorri zuen ta euskal liburugintzan jakintsun egin zen: «Bibliographie de la Langue Basque», 1891-1898. Euskaldunak berak ordea eta haien gogoa ez zituen asko maite.

<sup>4</sup> Edward Spencer Dodgson (1857-1922), euskalzale ingelesa, Euskal Herrian asko ibilia eta euskal idazle askoren argitaratzen erauntsia, adibidez d'Urte, Tartas, Leizarraga ta beste.

<sup>5</sup> Charencey Charles Felix, kondea (1832-1916), frantses euskalzalea, ikus: R.I.E.B. G. Lacombe, «H. de Charencey», 1918, IX, 223-225.

<sup>6</sup> William Lewy d'Abartiague, Irisarrin (N.B.) etxalde bat harturik politikan sartu nahi izan zen Baigorri-ko eskualdean. Debaldetan (1895). Pariseko Erakusketa Nagusiaren karietara, 1900 an Euskaldun Biltzar bat antolatu zuen halere: R.A., 10-5<sup>o</sup>.

R.A.-P.B., 21.

*Bilbao a 1 de Agosto de 1901*

A mi querido amigo Peru Broussain:

Pasado mañana sábado 3 del corriente saldré, Dios mediante, de esta villa de Bilbao para Bayona en el tren de las 7 de la mañana, para llegar a Bayona próximamente a las 3 de la tarde.

Querrá V. esperarme en la Estación? Para eso bueno sería que de antemano sepa V. la hora fija de la llegada. Yo no tengo a mano ningún guía de ferrocarriles para poder decírselo. Muy contados serán los días que podré detenerme en Hasparren; por lo cual será bueno que el lunes o martes salgamos a hacer nuestro proyectada expedición al Roncal. Muchas cosas tengo que contarle.

Ahora mismo escribiré a Juan Carlos invitándole a que venga al Roncal. Creo que no vendrá, pues no anda muy fuerte de salud. Por este año tendré que renunciar a la idea de recoger música, como también a la de detenerme en Baigorri<sup>1</sup>.

Agur, carísimo Peru; Hasta el sábado.

Suyo siempre,

*Resurrección María de Azkue.*

<sup>1</sup> Ikus Juan Carlos (Gortazar)-ekin Azkuek eta Broussain-ek egin beharra zuten Erronkari-ko itzuliaz zer zioen Azkuek hiru hilabete lehenago: R.A., 19. gutunaren azken lerroak ikus (1901-V-29).

R.A.-P.B., 22.

*San Sebastián a 1 de Septiembre 1901*

Carísimo Peru:

Tenia desde hace días ganas de escribirle para tratar del asunto de Guilbeau, mejor dicho, del asunto que a todos nos importa. El día 16 de este mes es el primero del Congreso Basko que se reunirá en Hendaya. A él asistirán Campion, Arana<sup>1</sup>, Aranzadi el de Pamplona<sup>2</sup> y otra porción de gente. ¿Cree V. que debemos dejar de asistir? Yo creo que debemos asistir. Hé aquí las razones en que me apoyo.

1.º No hay motivo (por lo menos de mi parte) para desechar la invitación de Guilbeau; pues no concurren ni Vinson, ni Dodgson, ni Abartiague. Y como yo le decía que, no concurriendo estos, había de asistir, mire V. cómo no tengo razón para oponerme.

Que Guilbeau firma sus cartas con ,, y que parece que es masón! Yo creo que lo es, a pesar de que él dice que virgulas y no puntos. Yo en caso de Darricarrère (de quien sé esto de las virgulas) no teniendo razón más poderosa, asistiría a Hendaya.

2.º Si ahora no concurrimos nosotros a este Congreso ¿conseguiríamos nosotros atraer a esos mismos baskófilos (Campion, Arana..., etc.) el día que les convocáramos? No quedarían ahora molestados? Tendríamos razones poderosas que exponer para justificar nuestra ausencia actual e iniciativa del caso impuesto?

3.º Daríamos al país triste ejemplo, al presentarnos a él divididos por razones de menor cuantía.

4.º Creo que haría mucho daño a la Constitución de la Academia el no concurrir al Congreso proyectado, así como estoy convencido de que el Actual Congreso (si concurren a él todos los elementos de valía) será un gran paso para dicha Constitución<sup>3</sup>.

Yo intentaba invitar a V. y a Daranatz a pasar el día en Hendaya hoy en ocho (es decir, el día 8 de Septiembre), para salir yo, el día 9 con destino a Bilbao, pero como creo muy probable que V. vendrá al Congreso, conseguirá V. que vengan los demás, por eso espero hacer lo siguiente:

El jueves próximo espero terminar para Elizondo, donde estoy citado con un sacerdote baztanés<sup>4</sup> que conoce bien su dialecto y que estuvo conmigo este invierno en Bilbao; y como entonces le leí todo el Diccionario a excepción de la U, ahora voy a leerle esta letra. De Elizondo esperaba yo volver a Hendaya para verme con Ustedes, el día 8; pero mi plan actual es ir de allí directamente al Roncal hasta el día 15; en el cual volveré a Hendaya.



Si tiene V. razones poderosas para no concurrir al Congreso, escribame una cartita a Elizondo (puede dirigirse a casa del Sr. Cura párroco, pues no sé en qué fonda pararé...) y si me convencen de que no debo asistir, le doy mi palabra de obrar conforme a su parecer.

No he percibido copia de la pieza de música que compuse en memoria de nuestra angelita María Teresa<sup>5</sup>. Puede V. llevarla consigo a Hendaya (si es que va; y si no, mandarme a Elizondo) donde sacaré yo una copia.

Mis cariñosos saludos a toda la familia y a V. un fuerte abrazo de su amigo.

*Resurrección*

Conque si mis razones le convencen, véngase a Hendaya con todos los que valgan. Si no queda V. convencido, escribame una carta larga, exponiéndome qué es lo que podemos y debemos hacer, si no vamos al Congreso.

Agur,

Hoy como en casa de Champion. Le hablé ya de V.

<sup>1</sup> Arana Goiri Sabino (1865-1903) abertzaletasunaren aita, elkarridazketa honetan asko aipatuko dena. Broussain-i berari idatzitako gutunentzat ikus: «Obras Completas», 2a edicion, Sendoa Donostia, 1980, t. III, 2396-66-71.orr.

<sup>2</sup> Aranzadi, Estanislao de, (1841-1918), Iruñear euskalzalea. Honen lau eskutitz badaude Broussain-en paperetan (10-XII-1901; 27-X-1902; 27-I-1903; 30-X-1904). Ikus ere, A. Champion, «Un patriota basko, E. de Aranzadi, semblanza», Euskalerrriaren Alde, 1920, X, 1.

<sup>3</sup> Ohar «Akademia sortutea» eta «ortografia-ren ganean berba egitea», aintzineko eskutitzean Azkuek zioen bezala (R.A., 20). Zitekeela euskalzale guzien asmoa.

<sup>4</sup> Ikus R.A., 15-4º.

<sup>5</sup> Ez Marie Thérèse, bainan Marie, Jean Baptiste Broussain eta Marie Louise Dangereteguy-ren alaba gaztena, 1890 can sortua zen hil Madrilén orduan.

R.A.-P.B., 23.

*Bilbao a 6 de Octubre de 1901*

Carísimo Peru:

No quería responder a su carta<sup>1</sup> sin haber estado antes con Juan Carlos el Presidente del Centro Vasco. Le pregunté acerca de la oferta que a Daranatz hicieron en Bayona dos congresistas de óptima voluntad. Me dijo que no tenían atribución del Centro Vasco para hablar así; y me añadió que hoy la situación financiera de dicho Centro es algo apurada para meterse en tales gastos<sup>2</sup>.

Respecto de su proyecto estoy en todo muy conforme. Me permitiré sin embargo hacer dos advertencias: La primera, que no hay necesidad de meter en la Comisión otro guipuzkoano, pues Mondragón (de donde es el Sr. Guerra<sup>3</sup>) aunque lingüísticamente es bizkaino, territorialmente es Guipuzkoa; y esto basta para salvar la probable y justificada susceptibilidad que V. se temía. Si a pesar de esto quiere VV. que figure otro guipuzkoano entre nosotros, yo con gusto lo aceptaría. En tal caso sería inútil recurrir a Echegaray<sup>4</sup>; pues por sus muchas ocupaciones no podría llenar el encargo. Arzac (en mi concepto, casi inútil) ya no aceptaría. Si se quiere que haya otro tesorero, adviértase antes que de este modo dividimos implícitamente en dos la Federación y ZAZPIRAK BAT sería ZAZPIRAK BI. Respecto de la elección de Fuenterrabia para punto de nuestras reuniones me parece excelente. En todo caso, si hemos de reunirnos (cosa que yo bien quisiera) sería bueno aprovechar para ello los tres primeros días de Noviembre, que son de vacación. El Presidente podría al efecto invitarnos. Lo único que yo podría hacer es recomendar a Guerra y Arana la asistencia.

Otra cosa y bien interesante. Quiere V. (pero para ello tendrá V. que dejar de ser Pierre Loti<sup>6</sup>) que el invierno del año 1902 empecemos los dos a imprimir en París un Diccionario basco-español francés? Venderíamos la edición a algún gran editor de París, como Garnier, Hachette<sup>7</sup>...&, que tienen gran comercio de libros en la América del Sur. Y si no pudiéramos vender bien la edición (que sería lo mejor) la alquilaríamos, repartiendo a mitades los gastos y las ganancias. AZKUE y BROUSSAIN o BROUSSAIN y AZKUE (como le pareciere mejor) serían los autores de la obra.

A Gortazar<sup>8</sup>, única persona a quien he mostrado el proyecto, le parece muy excelente. Para esto tendría V. que dedicar casi todo el tiempo (dejanlo a los muertos que se mueran por sí mismos) a leer el Manuscrito de Duvoisin<sup>9</sup> a tres personas o grupos de personas, reunidas por su cuenta en Hasparren, representantes de esos

tres dialectos. Estudie V. bien el proyecto dígame con la franqueza habitual entre nosotros los inconvenientes que acaso le ocurran. Aparte del gran bien que se podría hacer a la lengua, tendría yo verdadera satiasfacción en que así como los nombres de Castor y Pollux corren siempre juntos en el firmamento apegados a dos estrellas así nuestros nombres corriesen siempre unidos apegados a este libro en el humildísimo cielo de la literatura baska.

No me ocurre por hoy otra cosa que saludarle cordialmente y aguardar carta.

Suyo siempre,

*Resurrección María de Azkue.*

Dentro de algunos le mandaré unos periódicos.

<sup>1</sup> Ikus P.B., 34. (30-IX-1901).

<sup>2</sup> Broussain-en eskutitzeko azken galdeari ihardesten dio lehenik: Ez ez ziren zuzen mintzo «Centro Vasco»-ko bi kideak, ortografía txostenen argitaratzea delako elkartaren gain hartzen zutelarik Daranatzan aurrean. (P.B., 34).

<sup>3</sup> Guerra, Juan Carlos (1860-1941), ikus Villasante, op. cit., 355-357. orr. Haste hastetik Euskalzaleen batzordeko izan zen.

<sup>4</sup> Echegaray Karmelo daiteke: R.A., 4-9º.

<sup>5</sup> Arzac Antonio (1855-1904), Donostiako Euskal Erria-ren zuzendaria, hogoi urtez (1884-1904).

<sup>6</sup> Ikus: R.A., 16-1º.

<sup>7</sup> «Garnier» eta «Hachette» Pariseko argitaletxe ezagunak ditugu.

<sup>8</sup> Gortazar (Juan Carlos) musikalaria, euskalzale, ta askotan aipu den adiskidea: R.A., 4-1º; R.A., 15-5º; R.A., 20-1º, adibidez.

<sup>9</sup> Duvoisin-en hiztegia, R.A., 18-3º.

R.A.-P.B., 24.

*Bilbao a 16 de Octubre de 1901<sup>1</sup>*

A mi carísimo amigo Pierre:

No es ánimo emprender la impresión del Diccionario sin que antes se haya definido la cuestión ortográfica. De modo que mi invitación a que colaboremos juntos queda en pie. Sería lástima que no la hiciéramos juntos; pues casi resuelto como estoy a que todas maneras sea trilingüe, tendría que hacer yo solo aun la parte francesa. Por lo que pudiera ocurrir, el mes que viene empezaré o reanudaré algunos estudios prácticos (Sistema Berlitz) acerca del francés<sup>2</sup>.

Respecto del otro principalísimo asunto le diré que acepto gustoso la invitación para cualquier día y lugar, por más que como le dije ya, me hubiera venido mejor el primer triduo de Noviembre. Hace ya días que Arana eta Goiri-tar Sabino no viene a Bilbao por estar enfermo de estómago esta temporada. Campion no vendría aunque le llamásemos repetidas veces. Guerra es un hombre a quien no le gusta salir de casa, no siendo casos de grave necesidad. De modo que veo difícil que consigamos mandar respuesta colectiva a la carta de VV. Y bien mirado no parece que no es necesaria la colectividad de la respuesta. Yo escribiré por mi parte a Adéma exponiéndole mi manera de pensar y mi absoluta conformidad a reunirnos a mediados de Noviembre en Fuenterrabía. He aquí mi modo de pensar acerca de algunos de su carta<sup>4</sup>. Presidente Adéma, hasta la constitución de la Academia, aun cuando no pueda hacer nada ni siquiera acudir a las reuniones. Sucesor de Adéma, Arbelbide.

Amplíemos la Federación hasta cinco o seis mil individuos, para que tengamos 25 ó 30 francos anuales. De lo demás hablaremos en Fuenterrabía.

Juan Carlos le saluda muy cordialmente. Yo abrazo al médico, aunque con más gusto abrazaría al compañero de fatigas «diccionariales» (Passez le mot). Adiós carísimo Peru.

Suyo siempre,

*Resurrección.*

<sup>1</sup> Urriaren 9 an eta 13 an Hazparne-tik Broussain-ek bidali bi eskutitzen erantzuna dator hemen: P.B., 35 % 36.

<sup>2</sup> Mintzaira arrotzen norberak ikasteko metodo ezaguna. Horren gatik ta Frantzia Tours-en bere hiztegiarentzat zenbait hilabete iragan izan ondoan (1904-1906), Azkue-k beti gaizki menderatuko du frantsesa: Ikus adibidez, R.A., 82 & 83. eskutitzak, 1918 an eta 1919 an idatziak.

<sup>3</sup> Sabinok berak aitortzen dio Broussain-i: «Se me ha acumulado la correspondencia y el trabajo, pues hace muchos días que nada hago por no permitirmelo la salud...» (Sukarrieta Pedernales, 4-XII-1901, op. cit., «Obras Completas», III, 2396).

<sup>4</sup> Azken gai hauek eta bereziki Adéma-k Biltzarraren lehendakaritza uztea urriaren 13 ko gutunean darabila Broussain-ek: P.B., 36.

R.A.-P.B., 25.

*Bilbo-tik Zemendiaren 10-an*

Neure adiskide maite P. Broussain-i:

Pozez bete bete egiñ nau zugandik izan dodan barri bikaiñak. Andra Abbadie-ren loba ta oiñordekoa (ta dakuskunez, bere biotz jaubea) Jaungoikoak zorionez bete daiala mundu onetan da bes-tean, *Ikasola* sortu badaigu; ta ezpadaigu... be bai.

Gogoz luzatuko det Ondarrabia-ko egopidea gei orren gañean Arbelbide, Champion ta laurok zerbait edatsi ta asmo andi orren iruskin batzuk egiteko. Zeuk legez uste dot neuk be obeto izango dala Arana-ri garatz au ostendutea. Osagila zarean lez nik baiño obeto dakizu asunak onak izanarren, arduraz da geri-geri, erabilte-koak direala<sup>1</sup>. Hendayan sorturiko F.L.B.<sup>2</sup> ta or nunbait sortuteko *Ikasola*<sup>3</sup>, zeuk egoki diozunez, bana izan bear dabe. Ondarrabian nire euspenik edo laguntasunik orretarako, naizbeste zerbait gauza-tarako, bear bazendu, enaz urrun ibiliko. Onezaz ganera erazkotzat daukat zure beste gogamen au be: Hendaya-ko Batzarra ez-tala bes-tetarako sortu, Ortografia batutzeko izan ezik. Bizi bedi Hendaya-ko Batzarra (45 edo 50 kidegaz) datorren urteko irailerarte ta bere *Obia*, baldin al bada, *Ikasola*-ren *Seaska* izan bedi.

Arainegun goizean Adéma-ri Ondarrabia-rako zerbait bialdu neutsan. Eneugan usterik ezer bialduteko; baiña eskatu eustan-ezke-ro... zaarra be bada ta... Burua be bai ta... adiskide ta lagun be bada ta paper ziztrintšu bat aterateko indarrrik asko daude lau zio onek. Gaur edo biar bialdu gura neuskizuz LA PATRIA<sup>4</sup>-ren orain arte-ko geiak (iru dira eurak). Irakurri, aztu barik, Sabiñoren lana, batez be azkeneko zirikada mingarria. Egia esateko, neuk be erdi arriturik irakurri det EUSKALDUNA<sup>5</sup>-k lengo batzarragaitik diñoana. Aztu barik eroan Ondarrabia-ra Juvenal<sup>6</sup>-ek emoniko oi-uak.

Gorantziak berari. Ostatu baten egon gaitzean Ondarrabian. Agur Peru. Zurea beti biotz biotzetik.

<sup>1</sup> Arana Goiri Sabinok bere lehen idazkietan goraipatu zuen Azkue-ren lana eta bereziki «Vizcay'tik Bizkai'ra», haren antzerkia (Bizkaitarra, 19. zenbakia, Bilbao, 17-II-1895). Gero laster bi gizonen arteko harremanak mindu ziren, Azkue ta haren adiskide Ramon Sota. Aranak gogorki jaukitzearekin (Bizkaitarra, 31. z. Bilbao, 28-VII-1895).

<sup>2</sup> «Fédération Littéraire Basque» hori da bilakatuko «Euskalzaleen Biltzarra».

<sup>3</sup> «Ikastola», Akademiaren izena: R.A., 10-8.º.

<sup>4</sup> «La Patria», astekari abertzalea, 1901-1903, bizpahiru urte iraun zuena; 88. zenbakiarekin Madrileko gobernua geldiarazi baitzuen: 28-VI-1903.

<sup>5</sup> J. Hiriart-Urruty, «Eskualdun Biltzarrea», Eskualduna, 744. z., Baiona, 20-IX-1901. Irakurtzeko da ere Hiriart-Urruty-k gai beraz Broussain-i idatzi gutuna: Larresorotik, 11-X-1901.

<sup>6</sup> Juvénal, anai Arnaud Aguirre (1850-1932), Heletan (N.B.) jaioa, Hazparneko ikastegiko zu-zendaria: Ikus, N. Alzola, «Boletín de la R.S.V. de los A. del P.», 1959, 73-74. orr.

R.A.-P.B., 26.

*Bilbo-tik 1901-ko Abenduaren 19-an.*

Neure adiskide maite Broussain erneari,

Oraingo onetan garaitu nozu. Zeu itzarkortu zarean bitartean neu lotitu naz. Neure isiltasuna oskoltzat daukela emen dagoz zure iru eskutitz<sup>1</sup>. Aurrerantzean zeñ baiña zeñ erneago izan bear dogu, batez be geure berbeta eder oni iagokazan gauzetan. Iakinguraz gelditu etzaitzean esango deusut gure izkelgi onetan *oskol* esaten dogula zuen *coquille*-gaitik, eta *azal*, *écorce* ta *pelure*-ren ordez.

1) Ioannateguy-ren eskutitz baten irakurri neban, zuen ustez, ondo izango zala, bera ta ni Lyon-aldera ioatea. Premiñazko edo gauza bear-bearra balitz, nire ioaite ori, zuk badakizu nire barri, eztot utsik egingo. Baiña ni barik egin al balitz, naiago neuke. Zetarako bear nabe ni an? Elitzake naikoa izango esateko daukadana eskuz esatea? Nik uste dot baietz. Nik Mad. Saint-Bonnet<sup>2</sup> ikusi ezarren gure Akademia ezta «sans monnaie» geldituko.

2) Darricarrère-ri mila esker. Naiago neban dirua artu baleu. Eusla<sup>3</sup> barri bien izenak ona emen: *Sr. D. Julio Cejador, 5 Calle de San Francisco, 5. Oviedo, España.* *Sr. D. José Villalonga, La Cava, Deusto. Bilbao.*

Ondo izango da lenengoari ezer bialdu-orduko, «*carte postale*» bat bialdutea, an ala Madrilen bizi ete dan iakiteko; bada Madrilerako egoan.

Uste dot nik artu bako zatiren bat banatu dabela: 144-garrena da nik daukadan atzenengo orrialdea. Amabi frankoak or euki.

3) noz dozue zeuek<sup>4</sup> aginduriko *table phonique* emoteko? Gure batzarretako erabagiak ondo litzake garaiz edo orduz betetea.

4) Sabiñoren eskutitza (zuk bialdua)<sup>5</sup> emen daukat, zatitu barrik, baiña iñori irakurri barik. Zuk gordeta badaukazu Sabiñoren eskukoa, zatituko dot nik au. Baiña a gordeta ezpadaukazu, auşe bialduko deusut gorde daizun. Zuk eztakizu oraindiño nor dan Euzkadiren aita: Sabiño gizon andia da, baiña umekeri askogaz anditua.

5) Adéma beeratutea kaltegarria izango genduke<sup>6</sup>, beintzat ezautuen eztaben alde onetan. «Orrek eziñ alkar artu dabe. Eztabe gauza onik egingo» esango leukee. Batzarretik kanpora Arbelbidek eta Darantzek bete daikee aren buruko utsa. Batzarrean bertan ezker-eskuma-gaz burutsuak eztaukaz?

6) Araiñegun artu nebazan Campionek bialduta *Projet* eta *Questionnaire* batzuk<sup>7</sup>, guztiak frantsesez. Gaur bialduko deusut gure adiskide Sur-andiri paper au, sei *oui* erraietan dabezala.

7) Zuk ekarririko oiu edo kantika piloan gauza polit asko dagoz<sup>8</sup>, batez be dantzarakoen artean. Irunen eneutsan ain mamintsua eritši.

8) Buenos Aires-ko *Laurak-Bat*<sup>9</sup> izendun Batzokian neure bes-tengusu bat Larrea, dago Buru. Gizon gaztea da, burutsua, Espaiña ta Frantzia, Italia baizen urrun biotzetik eta Euskalerritik daukaza-na. Aren bitartez uste dot lortuko dogula gure Euskalboditza alde aretan zabal-zabal egitea. Bizkai-alde onetan, umekeri barik lan egin badaigu, sei pesetako lagunik asko ta asko batuko doguzala nago ziur.

Agur Pierre erne, gabonak ondo igaro ta gorantziak zure iato-kiko Madame Broussain-i. Ikasiko etedau berbetan ni noaneko? Zurea beti, *Azkue abadea*.

<sup>1</sup> Broussain-en hiru eskutitz horiek, hauek daitezke: P.B., 40. (27-XI-1901); 41. (6-XII-1901); 42. (14-XII-1901).

<sup>2</sup> Madame de Saint-Bonnet hori zen D'Abbadie andere alargun zenaren iloba eta oinordekoa. Lyon-en bizi zen.

<sup>3</sup> «Eusla» edo harpidedun horiek Darricarrère-k argitaratzen hasi —baina bakarrik hasi— zuen hiztegia zuten eskatzen.

<sup>4</sup> Broussain eta Darricarrère-k zuten asmu hori agertua eta lana agindua: P.B., 39.

<sup>5</sup> Ikus P.B., 41. Aintzineko eskutitzean bezala: R.A., 25-1.º, hemen ere Azkuek gaitzerraiten du Sabinoren gatik.

<sup>6</sup> Biltzarraren buru Adéma-ren orde Arbelbide jartzea asmatu zutela Broussain ta Baiona-ko bere lagunek, badakigu: Ikus urriaren 13 ko gutuna, P.B., 36. Azkuek ordea ez du horrelakorik onartzen.

<sup>7</sup> Baionan prestatu «araudia» eta «itaunketa» Campion-ek behar zituen gaztelaniaz jarri, baina, dirudienez Frantsesez bidali ditu, ziren bezala: P.B., 39.

<sup>8</sup> Ondarrabiara, Arberatzeko erretorari anai Juvéñal-ek edeki euskal kantu bilduma ekarria zukeen Broussain-ek, Azkue-rentzat: P.B., 37.

<sup>9</sup> «Laurak Bat», euskaldun elkarte, Buenos Aires-en sortua 1877 an, ta orain arte dirauena.

R.A.-P.B., 27

*Bilbo-tik 1902-ko Urtarrillaren 9-an.*

Ene adiskide Peru Haspandarrari:

1. Eztakit ala agiraka ala eske asi.

Noz dator zuen *table phonique*? Bildur naz gauza onik egingo ete dogun. Il onen amaia baiño lenago egiteko, gauza nekagarri ta arazotsu au zimendu barik dago oraindiño.

2. Sabiñ-ek eztakit atze onik emongo ete-deuskun, gure arlo onetan beintzat.

Aspaldion sama-samaragiño dago sartuta urten-ezindako zingira baten. Filipiñas-en egoniko fraide ekandu tšarreko batzun kontra (\*) *La Patria*-n berba egin dau ta damutuko iako. Gure obispo jaunak esku artu dau gauza onetan, da batek badaki zelan *urtengo daben Sabiñ-ek* zingira onetatik<sup>1</sup>.

Oraindiño eztau beronek ezer esan Hendaya-ko Batzarraren ganean. Bestela bialduko neutsun *La Patria*.

3. *Ibaizabal* eldu izango da onezkero zure eskuetara<sup>2</sup>. Zer die-ritšazu? Kazkarra? Erderakadaz adabatuegia? Ala mutiltšu bizkorra, dala uste dozu? Maite dot *Ibaizabal* gizagaisoa. Nekezaleen sein pagu-gorri sendo marroiz-iantziai langosē begi ona deusat Euskera errukariaren Benjamin samur izan gurakotšu oni.

4. Gaur eldu iat zure koñata Maria Luisa-ren eskutitz bat, euskerazkoa, guztiz ederto egiña, barruan gure Sabala maitearen gomutagarri bat dabela. (\*\*\*) Erantzun gura neuskio, eskerrak emonaz; da eztakit nun bizi dan Madrilen: aztu iat. Esan gura deustazu zeuk lenbailen?

Bialdu eidazuz orko nire adiskideen barriak, baldin ezer bada-kizu.

Gu (Juan Carlos da beste lau) martitzen guztietan batuko gara aurrerantzean *Ibaizabal*-i ugatza emoteko.

Agur, ene adiskide ona; urte barri on on bat izan daizula ta alkar ikusteko egunak alik ariñen igaro daizala bere bideak.

Gorantziak Abel-i.

Beti zurea.

*Resurrección.*

\* Gernikan Ikastetše bat dauke fraide onek.

\*\* Sarrien erabilteko liburu baten sartu dot gomutagarri au.

\* \* \*

<sup>1</sup> Gernika-ko Agustindar fraideetaz izan eztabaidaz ikus «La Patria»-ren 1901 eko abendoko eta 1902 ko urtarrileko zenbakiak, hots 6.tik 13.ekoak.

<sup>2</sup> Bi urte eskas (1902-1903) iraunen du Bilbo-ko euskal astekari honek, Azkuek urrenxeago dioen bezala, Azkuek berak, Juan Carlos Gortazar, Evaristo Bustinza «Kirikiño» ta bizpalau lagunek, astero «ugatza emonez».



R.A.-P.B., 28.

*Bilbo-tik 1902-ko Otsailaren 3-an.*

Nere adiskide maite Broussain, Campion, Guerra ta Mugica-ri.

Gaur zortzi, il onen 10-an. Donostiratu zaitezela, arren, eskatzen dizutet eskutiz onen bidez. Zergaitik edo norengatik? Zertara?. Neronentzako mesedea balitz eskatzen dizutedana, enintzake ausartuko neguaren errailetan zuek bilerazten. Irakurri ezazue gogoz eskutitz au ta nik bezela zuek ere uste badezute ajola aundiz begiratzeko ta erabakitzeke gauza dala, biotzaren berotasunak eztatzen bidean otza asmatzen utziko.

Lenbizi nai dizutet Guilbeau-ri oraindik orain nik egiñikako eskutitza erakutsi:

*Bilbo-tik 1902-ko ilbeltzaren 28-an. Donibane Lohitzun-go jaun Guilbeau sendalariari: Atzo eldu zitzaidan zuk bialdu edo igorririkako Tableau phonétique. Mila esker. Aspaldion zuri bialtzeko nuen liburutsoa gaur berean irtengo da uri ontatik.*

Egun auetan irakurri det, arriturik, emengo albistari edo periodikoetan euskalzaleai egindako deia<sup>1</sup>. Nork eman die eskubidea dei orren azpiko gizon batzuei? Baiñan eulien zirikadak eztatze loa galarazten eta baitzen dizut nere itza eztatzen zure asmo ederrari kontrarik iñoiz ere egingo, **BALDIN IÑOLAZ ERE IROZO TA ERAMAN EZIN LITEKEN GAUZARIK GERTA EZPALEDI**. Argiro erakutsiko dizut nere gogamena. Paperetan irakurri det Ondarrabia-ko Biltzarrean botoa izango dutela (korreoz edo postaz ere bai) «*todos los vascos que estudien el euzkera, escriban en él o al menos deseen su vida y perfeccionamiento*». Beraz nere atezaiak ere, atezaitzea utzi gabe, erabaki dezake zer egin bear degun. Ni lotsa edo ahalke izango nintzake egiatzko euskalzalea eztatzen asmo ontarako biltzen. Nere ustez, Adéma ta zuzaz kanpo, beste irugarren bat ari izan da berrizatze aukerak egiten. Ezta ala? Baldin, uste dedan bezela, ogei lagunetik gora, «*taf-dunak*»<sup>2</sup> berak eta iñork euskalzaletzat eztatzen eztatzenak, dei onek erakarrita gure arteratzea eskatuko balute, **ENAIZ ONDARRABIARA JOANGO**. Umeak umekeriak egin nai badituzte, bil ditezela umeakin. Eskari bat. Nere susmo au utsa bada, «*taf-dun*» oiek izena bialtzen eztatzen, zati zati egin zazu eskutitz au. Baiñan nere susmo au bete baledi, neronek agertuko det eskutitz au bear danean. Broussain-i bialduko diot eskutitz onen *kopia* bat. Agur, jaun Guilbeau. Agindu nai dezuna zure erritar ta lagun oni.

*Azkue.*

Orain irakurri ezazute atzoko LA PATRIA-k (Arana-Goiri-ren albistariak) dakarren berri au: «*Son muchas las adhesiones, según se nos comunica, que, respondiendo a la convocatoria de M. Guilbeau y después de publicarse la circular remitida a la prensa por los Congresistas de Hendaya, se han dirigido de Bizcaya a aquel señor, Secretario General de estos Congresos. De Lequeitio nos dicen haberse enviado 16 de Elantxobe 29, de Mundaca 69 y en Bilbao ha debido de llegar a una centena el número de los adherentes. Este se conocerá con toda exactitud antes del 10 del actual, pues para esa fecha M. Guilbeau habrá remitido a cada adherente la lista completa de todos con la indicación de sus direcciones*».

Nere ustez irrigarria ta alperrikakoa izango litzake onela egin-dako Biltzarrea. Eta zer da orain egin bear doguna? Lenbizi bururatu zitzaidan neronek nere kontura Guilbeau-ri egiñikako eskutitz ori, edo beste biguñago bat, argitaratzea ta beste lagunak egin zeza-tela bakoitzak nai zuena bere aldetik. Eltzeari irakiñerazteko surik asko litzake. Gauzonik irtengo otelitzake ordea?

Obe litzakela uste det guk bostok<sup>3</sup>, Arana-ri udazkenean eman-dako erantuerara oroiturik, zerbait Hendaya-ko guziaz bialtzea. Arana-ek eluke etsiko noski besteen iritzia. Orduan ekort egingo luke Hendaya-ko asmoak; eta angoak berak lan egin bear izango genduke Diputazioetan, berok sortu dezaten *Academia*. *Academia* gabe, bizardun aurrak ari diran bitartean, Ortografia ezta iñoiz batuko. Nik nere uste ta asmoa bezela erakutsi itzatzute zuek ere zerorrenak Donosti-ko isil-biltzarre ontan.

Jaungoikoarren (bizkaitarrez esan oi dan bezela) ez egon Donostiratu gabe. *Fonda de la Estrella*-n bildu genezazke, nai baldin badezute. Bazkolordurako ara jo bageneza, obe: arratsalde ta gau artan berean artuko genduke bear dan erabakia.

Gaur zortziarte agur, nere adiskide, erritar ta lagun maiteak.

*Azkue.*

<sup>1</sup> Sabino Arana Goiri-k argitaratu dei horrek du sortzen Hendaia-ko biltzarkideen artean azen haustura ekarriko duen eztabaida. Ikus, besterik ezean, «Obras Completas de Sabino de Arana'tar Sabin», Sabindiar-Batza, Baiona, 1965, argitalpenean dauden gutun eta agiriak: «Los Congresos Ortográficos de Hendaya», 2.095-2.150.orr.

<sup>2</sup> «Tar-dunak» deitzen dituzte Azkue ta bere adiskidek Sabino-ren jarraile itsu itsuak, honek duelakotz asmatu gaztelaniaz «de» preposizioa daukaten izenei «tar» atzizkia eratxikitzea, «ko» atzizkia, menturaz ezarri beharrean.

<sup>3</sup> «Bost» horiek dira Azkue bera, Broussain, Campion, Guerra, ja aipatu ditugunak eta Sera-pio Múgica (1854-1941) Gipuzkoar historialaria.

R.A.-P.B., 29.

*Bilbo-tik 1902-ko Zezeilaren 6-an.*

Neure adiskide maite Peru-ri:

Aspaldion Torquemada, bat egiñik zagoz. «Erre zazu paper au» esaten.

Ondo deritsot zuk diñozunari<sup>1</sup>. Ikusi daigun zer diñoen euren agirian Guilbeauk eta Daranatzek; eta bera irakurrita zer esango daben, A. eta G'tarr Sabiñ-ek eta bere gurtzailak.

Campion-ek eta Mugica-k erantzun deuste.

Campion-ek uste dau oba litzekeala lengo Batzarraren zuzendariak barriro batu ta Arana-ri arpegi artutea egin daben umekeri onegaitik. Il onen 21 arte, ezin itși dau bere Iruñako etsea.

Mugica-k pozik etorriko dala Donostiara. Batari ta besteari erantzungo deutset zuk diñozuna: itšaron daiela zer datorren ikusiarte.

Poz andia eukiko neban zu Donostian ikusteaz, batez bere onantza ekarri al izan ezkeru. Noz zara Bilbora etorteko?

Era obarik au baiño gatš izango da eukitea Bizkaira etorteko. Irureun-da-ogei iakitun ezaututeko erea eztago edonoz.

Agur, Torquemada.

Birburu izateari itšiko deutsalara Jaun Zuria II-garrenak<sup>2</sup>! ¡Ai olako bat! Baiña oba litzake, beretzako ta geutzako, kirten izateari itși baleio.

Gorantziak nire adiskideai.

Urte bete barru *Academiari* buruz (zuen erara esateko) lan egin bear dogu.

Agur neure adiskide mamintsu ta ernaia.

Zurea beti.

*Azkue Abadea.*

<sup>1</sup> Aintzineko Broussain-en gutuna ez dugu eskuratu.

<sup>2</sup> Nondik zetorren Sabino Arana-ren izengoiti hori jakiteko, ikus «Obras Completas», I.261.orr.

R.A.-P.B., 30.

1902-ko Epaialaren 3an.

Neure adiskide maite Peru-ri, lau berbatŕu:

1.<sup>a</sup> Zer deritsazu gure zerigiñ onen azatz (dirección) barriari?

2.<sup>a</sup> Guilbeau-ri eskutitz bat egiteko nengoan, esateko, Donostian Arana-ren asmo barri au<sup>1</sup> artzen badabe, bertan beera itŕiko dodala Hendaya-ko arlo ori. Ezin ibili giñaikez, ilargia legez, aldakuntzarik aldakuntza.

3.<sup>a</sup> *Centro Vasco*-ko Buru, Gorostiza osagileak<sup>2</sup>, arren-bai-arren zu gugana etortea gura leuke, Apirilaren 18an. *Centro Vasco*-n berbaldi bat irakurri daizun, Espainiako erderaz, orko Euskalerrialde orren ganean. Neuk edo beste batek zuzenduko doguz erdera onetan egin daikezuzan ustŕuak.

4.<sup>a</sup> Atsegin dozu *Ibaizabal*? Ondo doa?

5.<sup>a</sup> Oraintŕe goaz ostatu batera Aranzadi-ri<sup>3</sup> bazkari bat emoterra. Lengo bariaku edo egubakoitzean berbaldi eder bat irakurri eban Iruñako legegizon biotz andiko onek, Hendaya-ko *Hôtel de France*-n irakurri euskuna; baiña askozaz obeto egiña.

6.<sup>a</sup> Erarik badaukazu esaiozu Guilbeau-ri len esan deutsudana. Eztakit zegaitik ezteutsan Arresek erantzun. Nik birritan ziri egin neutsan Otŕandio-ko Arrese<sup>4</sup> onari.

Agur, ene adiskide maitea.

Urrengo arte

Beti zure

*Azkue.*

<sup>1</sup> «Asmu berri» horrentzat ikus «La Patria», 19. Bilbao, 2-III-1902.

<sup>2</sup> Gorostiza, Jose Maria de, «Centro Vasco»ko lehendakari berriak hitzaldi aipatu bat egina zuen Bilbon, 1896 an: «Jaungoikoa eta Foruak».

<sup>3</sup> Aranzadi, Estanislao de (1841-1918): «Reconstitución del pueblo euskalduna en la reconstitución de la lengua» Bilbao Astuy, 1902.

<sup>4</sup> Arrese Beitia Felipe (1841-1906), Bizkaitar olerkaria, Otxandiarra.

R.A.-P.B., 31.

*Bilbotik 1902-ko Epailaren 7-an.*

Nere adiskide maite ta lagun on Arbelbide, Broussain, Guilbeau ta Bayonaldeko beste biltzarkideai.

Atzo jaun Guilbeauk bialdurikako eskutitzean itz auek irakurri nituen:

*«Nos amis de Bayonne sont d'avis de suspendre pour le moment les travaux du Congrès Basque, et d'attendre des temps meilleurs pour les reprendre. Est-ce votre avis? Que faut-il faire? Faut-il abandonner le projet du Congrès de Fontarabie? En retranchant les 3 qui sont contre et les 10 qui se sont abstenus, il resterait pour la réunion de Fontarabie 60 ou 62 congressistes. Est-ce suffisant? Ou pensez-vous qu'il serait mieux de s'organiser en Association Académique (dont nous choisirons les membres)? Réfléchissez sérieusement et donnez-moi une réponse avant Dimanche»...*

Nere ustez Hendaya-ko Biltzarrea Ondarrabian burutu bear da. Ona zerren:

1) Biltzarkide geienak ala nai dutelako. Zertarako, bestela, eskatu zaie beren eritzia 320 berri aien sartzeaz? Geienak zer uste dute? Ezetz? Lagun berri oiek gabe, ezagunak laguntzat artuta edo lengoak utsik, Ondarrabian biltzea? Aurrera, beraz; Ondarrabia-ra, batzuek bostna *boto* ta besteak launa edo iruna idukitzeko asmo berri oiek aintzat artu gabe. Geienak nai dutena egin bedi.

2) Gero naste-borraste geiago izan eztezagun, Aranak nastu nai gaituelako, etsean geldituko otegera? Nastuago izango giñake, berari lekua utzi-ezker. Bere 320 oiek bilduko lituke Ondarrabian eta nolako naspil aundia elitzake Aranakeri ortatik aterako? Aranak berak LA PATRIA-n esan zuen (gero beste gauza bat esan badu ere), 320oiek laguntzat artu nai izan-ezik, berokin Biltzarre berezi bat egingo zuela berak.

3) Akademia ilik sortu eztedin. Akademia sortu bear bada (eta nere ustez gauza bear bearra da), Biltzarre biziaren barrenean bizia erne liteke; baiño Biltzarre ori ilten bada, bere erraietan aur bizia ernetea gauza zaila, nekea ta oieza izango genduke.

4) Erien luzapena erioa dalako. Akademia ori geroko utzi bageza, oraingo berotasun au galduko luke euskera eri gaisoak eta nere ustez ezkenduke gero Akademia sortu al izango. «Len ere asi ziran oiek, eta zer egin zuten? Utsa. Orain ere....» Au izango litzake, nere ustez, gerokoen izketa.

Aitortu bear det, alarik ere, orain ilebete-ta-erdi, Ilbeltzaren buruan, Aranakeri izugarri ura (haina —euskerarik eztakitenai ere maisu-eskua eman zien agiri ura— irakurri nuenean, nik ere uste nuela obe izango zala Biltzarrea ordu berean il eta Akademia berea-laše, al bazan, sortzea. Baiño gaur, len esan dedan orregatik, obe dala uste det udazkenerarte gure Biltzarreari bizia luzatzea.

Au gora-bera, zuen arteko geienak bestera nai badute, ni ere besteratuko naiz, denak elkartu gaitezen.

Agur, nere adiskide, erritar ta lagunak.

*Azkue apaiza.*

<sup>1</sup> Otsailaren 6 eko bere gutunean Broussain-ek (P.B., 44) aipatzen duen Guilbeau-ren «circu-lar»-ak ekarri emaitzak dira hauek.

<sup>2</sup> Otsailaren 2 eko Azkue-ren gutuna dugu hori: R.A., 28.

R.A.-P.B., 32.

*Bilbo-tik 1902ko Maiatzaren 5 an.*

Ene adiskide mutil zaarra:

Gauzatsú asko daukatsudaz esateko<sup>1</sup>.

1.<sup>a</sup> Ona emen zelangoa izango dan nire Iztegia. Eztakit, baiña, zelan ipiñi berba eratorriak: ala lerro banatan, bigarren paperean dagozanez<sup>2</sup>; ala, onetan lege, alkarri jarraika. Zelan deritšazu obeto: berezi ala batuta? Emen geienok uste dogu bereztea obeto izango dala.

2.<sup>a</sup> Datorren ilaren erdi-inguruan zure etše orretan egun batzuk igaro nai neukez; batetik, musika zaar niretzat barria orko atsoren bategaz ikasteko, bestetik zuk batuta daukazuzan berba ederrak nire Iztegian ezarteko: ta ganera Duvoisinin *S*, *T*, *Tch* ta *U* ikusteko, uste neban, osorik aratu nebala; baiña orain dakust letra onek enuntsazala ikusi.

3.<sup>a</sup> Zegaitik ezteutso Darricarrerek bere iztegia argitaratzeari iarraituten?

4.<sup>a</sup> Biotzean asko eragin deust Diharasarri-ren eriotzeak. ¡Giza-gaizoa! Atsedon on bat izan daijala<sup>3</sup>.

5.<sup>a</sup> Pleonasmoren eskutitz bat bart eldu iatan; *Aita gurea*-ren ezarpenerako 132, 80 libera edo franko bialdu deustaz<sup>4</sup>. Gaur goizeon erantzun deustat eta bide batez bialdu, beren gurariz, zuk niri bialduriko bere eskutitz bat. Onezaz ganera dirautsat zuk orain erakurriko dozuzan berba gipuzkoarrezko onek:

6.<sup>a</sup> «Ilebete-ta-erdiren buruan alde ortaratu nai nuke». Baditut egiteko batzuek: 1) sudur eder ta ederdunak ikusi. 2) Kantika zarrak bildu ta len bilduak birrentzun. 3) Santa Garazin edo beste nunbait nere Iztegia sendatzeko Akademia bat bildu erazi.

7.<sup>a</sup> Ontarako gure adiskide donaduari eskutitz bat egiteko «egon naiz».

Auše da, Peru, donaduarentzako eskutitza:

«Leia gartsua dadukat lau edo bost gizon euskalzale jakintsu-  
nekin ilebete-inguruan bizi izateko.

«Ostatu onik eztagoen baserri batean biltzarre ori izanezkero etše bat ilebete ortarako nere kontura artu nai nuke, lagunentzako ostatua izan diten. Akademiko orietarik bi izango dira (nere asmo edo tšede au bete baledi) Atsoa ta Constantin aita. Gañera nai nuke lapurtar bat, bere euskera ongi dakiena. Erronkari aldetik neronek norbait eramango det.

«Zer derizkiozute? Nola bete nezake gogo au, iñori buruko ta

zakeleko miñik eman gabe? Gure adiskide Arbelbide ta Broussain-en eritšia jakin nai nuke zurearen gainera».

8.<sup>a</sup> Zuk orain, Peru, ondo litzake lapurtar ori zeure etxean bilatutea. Alegin egizu Hazparne-ko donadua neugaz Santa Garazi-ra ilebeterako joan daitean; eta ezin badau onek, Hiriart-Urruty edo beste on bat begiz ioizu. Baita beste alegin bat be; Heguy-k eta Constantin Aitak ontzat artu daiela nire batzar gogo; ta Jaungoikoarren neure kontura izan daitezala *Akademia-ren gastoak*; bestela edo osterantzean Hazparne-tik etšera etorriko naz.

Mendigatša Kailesa<sup>5</sup> (*Roncalais*) Akademia orretara eroateko alegiña egingo dot.

Zeugandik, uste dot, erne iatala Santa Garazi-ko Akademia orren burutasuna. Augaitik, zeu, uste onen gurasoa zarean orrek, alegin guztia egin bear dozu loratu-orduko il eztaitean.

9.<sup>a</sup> Zeure anaiaren etše zuzenbidea bialdu zeustan-eskutitza galdu iat; eta ezteutsat oraindiño erantzun zure koiñateari. Alan bada, mesedez, bialdu barriro zuzenbide au.

10.<sup>a</sup> Igaz da igaz lenean legez enaz aurtan etorriko, zuk baturiko berba ta esakera ederrak neure libururatu barik. Hazparren-go iauregian bertan lan au egingo dot, egiñarte ezto andik iñora urten-go; bitartean, luzaro bazagoz berba ta esakera orrek niri emon barik, istar bat iango deutsut an nagoan artean. Zeuretzat kaltea.

11.<sup>a</sup> Bilbo-n zer iazo dan<sup>6</sup> jakin daizun eskutitz onegaz bateratsu elduko iatzu *La Patria*.

Sabiño bein ikusi dot aurtan; da orduan burua ostu eban, da ezin esan izan neutsan nai nebazan berba garratzak.

Agur, Hazparren-go mutil zar, donadu, neure adiskide maite Peru.

Datorren Ilerarte.

*Eketa*<sup>7</sup>.

<sup>1</sup> «Esateko» hauen erantzunak Broussain-ek emaiten ditu bere maiatzaren 16 eko eta bagilaren 9 ko bi gutunetan (P.B., 46 & 47).

<sup>2</sup> Paper horien kopiak jarri ditugu ohar hauen ondotik. Broussain-en aburua aldiz bagilaren 9 ko eskutitzean.

<sup>3</sup> Diharasarri Laurent (1848-1902), apeza, euskal idazlea eta politikaria, Saran jaioa eta Orzaizen (N.B.) ixtripuz hila. Ikus Villasante, op. cit., 176-177.

<sup>4</sup> 1902 ko urtarilaren 25 ean, Euskal Herri osoari dei bat egin zion Bilboko «Centro Vasco» deitu euskal elkarteak, Jerusalemen hogoi ta hamar hizkuntzatan «Gure Aita» idatzia zen tokian euskaraz ere jartzeko dirua bil zedin. Hemen Iparraldearen emaitza Daranatz «Pleonasmo», apezpikutegiko idazkari euskalzalearen eskutik: Zeregin honetaz ikus, Arana Gori-taf Sabin «Obras Completas», op. cit., 1881-1969.orr.

<sup>5</sup> Mendigacha Mariano, Erronkari Bidankozekoa (1832-1916), Bonaparte ta Azkueren lankidea: Azkue ta Mendigacha-ren arteko elkarridazketa ikus Alfontso Irigoyen-ek «Euskera»-n egin argitalpena, 1957, 119-170.orr.

<sup>6</sup> 1902 ko maiatzaren 2 an Bilbo-ko liberalek antolatu manifestaldiaren artetik «Centro Vascon-ren egoitza jaukitu eta funditu zuten.

<sup>7</sup> «Eketa», ni, neu edo nihaur. Ikus «Diccionario V.E.F.», 229.orr.



**Laba:** 1.º (G-bet), lo llano. Var. de *Laua*. 2.º (Bc.), horno. || LABABO (B-o), LABAO (B-m) boca de horno. || LABAZAIN (B-m), hornero. || LABAZARI (B-d), levadura. (?) || LABAGA (Bc.) palos con que se remueve la brasa del horno. || LABAGAN (B-a-m-o), LABABURU (B-m) parte superior del horno. || LABAGIN: 1.º (B-m), hornero (oficial); 2.º (B.) hornero (constructor). || LABAGINTZA: 1.º (B-m), oficio de hornero; 2.º (B. Ast.) fabricación del horno mismo. || LABA-IPIZKI (B.), LABA-IPITS (B-m), LABAKI. || LABAKADA, Hornada, horno lleno de... || LABAKI (B-o), escobilla o estropajo para limpiar el horno. || LABA-KIRKILLA (B-m), grillo de hornos. || LABA-KAPILA (B-m) LABA-KOSKA (B-m), bóveda del horno. || LABALDE. V. *Labeka*. || LABALDI (Bc), hornada. || LABAPARA (B-a-m), pala de horneros. || LABARI (B-d) hornero. || LABASARI (Bc), hornaje, pago por alquiler total o parcial del horno. || LABA-SARTAIN (B-m), sartén del horno. || LABASU (Bc), fuego de horno. Llámase a todo fuego intenso. || LABATE (B-a-m), puerta del horno. || LABA-TSIRRI (B-oñ), LABA-TSORI (B-a-l-ts), *labakirkila*.

**Labaztau** (B-ts-urd), resbalar.

**Labain** (gc): 1.º resbaladizo (terreno, piso...). 2.º impúdico, lascivo. 3.º adulador. || LABAINTZA (G-N-añib), resbaladero. || LABAINKERI, Adulación.

**Labaiña:** 1.º (Bc), navaja de afeitarse, 2.º (B-mu), navaja en general. 3.º (Gc), lo resbaladizo... etc. V. LABAIN.

**Labaki:** 1.º (AN, BN, G-bet, L.) noval, tierra que se cultiva de nuevo.

2.º (B-o), escoba para limpiar el horno. V. LABA.

**Laban:** (Bc) 1.º resbaladizo, liso. 2.º adulador. 3.º lúbrico. 4.º en el horno. V. LABA. || LABANARRI: 1.º (B. Mog.), ocasión de pecar. 2.º (G.), piedra de afilar. || LABANDU (Bc) 1.º resbalar. 2.º alisar un objeto. 3.º caer en la impudicia. || LABANKERI (Bc) LABANKURI. (B-ts) adulación. || LABANKETA (B. añib.), resbalón.

**Labana** (Gc) LABAIÑA.

**Labar:** 1.º (B-d), borde de precipicio. 2.º (B-a-m), terreno costanero. 3.º (B-o), leña delgada para horno.

**Labarto** (Bc), borona hecha de granos que se han secado junto al horno. La que se hace de granos secados al aire se llama AIZARTO.

**Labatz** (G-ber-ern-uz) LARATZ.

**Labe** (.AN, BN, G, L, S), horno. || LABE-ELTZE (An-b), bóveda del horno. || LABEALDI, LABEAGA, LABEATE, LEBESARI. V. LABA y sus derivados. || LABEZAI (G), LABEKARI (Oih), hornero. || LABEZATAR (Gc), LABE-ITSUSKI (G-oy), estropajo para limpiar el horno. || LABEZOMORRO (Gc), grillo de hornos. || LABEKA (S.-sal.), LABALDE (BN-sal) hornada. || LABETARA (, BN.), hornada. || LABETEGI (G, N, L.), sitio en que se hace el horno.

**Labera:** 1.º (B-o-ts), estigma; agujerito que se hace en la oreja de un animal. 2.º (B-bed), bóveda. || LABERABEDAR (B-ts), hierba con que se evita el derrame de sangre en los animales cuya oreja se agujerea.

**Labio** (B.-ant.), rabricorto. *Egia latz ta labio*, la verdad (es) áspera y rabricorta. (Refranes).

**Labo** (BN. Sal.), miope.

**Labore:** 1.º (Bc. Gc.) cereal. 2.º (BN.-sal.), pan de trigo, de maíz, centeno o cebada. || LABORARI (AN, BN, L, S.), agricultor, labrador. || LABORANTZA (AN, BN, L, S.), agricultura, labranza. (?)

**Laborri** (G-Itur.), espanto, estupor. Es alt. eufon. de *lau orri*. *Bil-durrez lau orrian dago* (G-uz.), está estupefacto de miedo.

**Labur** (c.), corto. LABURZKI (BN, S-Sal), en poco tiempo. LABURRARAZI (L, BN, S.) hacer acortar. || LABURBIDE (B.), atajo. LABURRERA (c.), LABURGO (Añib.), LABURKAI (Seg.), compendio. || LABURKERI: 1.º (B, G.), cortedad, carácter huraño. 2.º (AN-lez-oy, Gc), injuria, bajeza. || LABURKI (AN, BN, G, L, S), brevemente. || LABURKUNTZA (Dur.), LABURPEN, abreviación, compendio. || LABURTASUN (c.) cortedad. || LABURTU (c.), acortar. || LABURTZAPEN = LABURPEN.

**Laz:** 1.º (Dur. Lab. 167,30), viga. 2.º (c.) var. de *latz* en los derivados *lazgarri, lazki, laztasun, laztatu, laztu, laztura...*

**Laza:** 1.º (Bc. G), suelto, flojo. 2.º (B.G), satisfecho. 3.º (L. Haran, s. Mañ. VII, 3), la viga, traba. || LAZAKE-LABANDU (Bc) 1.º resbalar. 2.º alisar un objeto. 3.º caer en la impudicia. LABANKERI (Bc) LABANKURI. (B-ts) adulación.

LABANKETA (B. añib.), resbalón.

**Labá:** .º (G-bet), lo llano. Var. de *laua*. 2.º (Bc.), horno.

LABABO (B-o), LABAGO (B-a-o), LABAO (B-m), boca de horno.

LEBAZAIN (B-m), hornero.

LEBAZARI (B-d), levadura. (?)

LABAGA (Bc.) palos con que se remueve la brasa del horno.

LABAGAN (B-a-m-o), LABABURU (B-m) parte superior del horno.

LABAGIN: 1.º (B-m), hornero (oficial); 2.º (B.) hornero (constructor).

LABAGINTZA: 1.º, oficio de hornero; 2.º (B. Ast.) fabricación del horno mismo.

LABA-IPIZKI (B.), LABA-IPITS (B-m). LABAKI.

LABAKADA; Hornada, horno lleno de...

LEBAKI (B-o), escobilla o estropajo para limpiar el horno.

LABA-KIRKILA (B-m), grillo de hornos.

LABA-KORO (B-i-l-mond-ond), LABAKAPILA (B-m) LABA-KOSKA (B-m), bóveda del horno.

LÁBÁLDE. V. *Labeka*.

LABALDI (Bc), hornada.

LABAPARA (B-a-m), pala de horneros.

LABARI (B-d) hornero.

LABASARI (Bc), hornaje, pago por alquiler total o parcial del horno.

LABA-SARTAIN (B-m), sartén del horno.

LABASU (Bc), fuego de horno. Llámase a todo fuego intenso.

LABATE (B-a-m), puerta del horno.

LABA-TSIRRI (B-oñ), LABA-TSORI (B-a-l-ts), *laba-kirkila*.

**Labaztau** (B-ts-urd), resbalar.

**Labain** (Gc): 1.º resbaladizo (terreno, piso...). 2.º impúdico, lascivo. 3.º adulator.

LABAINTZA (G-N-añib), resbaladero.

LABAINKERI, Adulación.

**Labaiña:** 1.º (Bc)m navaja de afeitar. 2.º (B-mu), navaja en general. 3.º (Gc), lo resbaladizo... etc., V. LABAIN.

- Labaki:** 1.º (AN, BN, G-bet, L.) noval, tierra que se cultiva de nuevo. 2.º (B-o), escoba para limpiar el horno. V. LABA.
- Laban:** (Bc) 1.º resbaladizo, liso. 2.º adulador. 3.º lúbrico. 4.º en el horno. V. LABA.
- LABANARRI:** 1.º (B. Mog.), ocasión de pecar. 2.º (G.), piedra de afilar.
- Labana** (Gc) LABAIÑA.
- Labar:** 1.º (B-d), borde de precipicio. 2.º (B-a-m), terreno costanero. 3.º (B-o), leña delgada para horno.
- Labarto** (Bc), borona hecha de granos que se han secado junto al horno. La que se hace de granos secados al aire se llama AIZARTO.
- Labatz** (G-ber-ern-uz) LARATZ.
- Labe** (AN, BN, G, L, S), horno.
- LABE-ELTZE** (AN-b), bóveda del horno.
- LABEALDI, LABEAGA, LABEATE, LABESARI.** V. LABA y su derivados.
- LABEZAI** (G). LABEKARI (oih), hornero.
- LABEZATAR** (Gc), estropajo para limpiar el horno.
- LABE-ZOMORRO** (Gc.), LABE-ITSUSKI (G-oy), grillo de hornos.
- LABEKA** (S.-sal.). LABALDE (BN-sal) hornada.
- LABETARA** (L, BN.), hornada.
- LABETEGI** (G, N, L), sitio en que se hace el horno.
- Labera:** 1.º (B-o-ts), estigma; agujerito que se hace en la oreja de un animal. 2.º (B-bed), bóveda.
- LABERA-BEDAR** (B-ts), hierba con que se evita el derrame de sangre en los animales cuya oreja se agujerea.
- Labio** (B.-ant.), rabicorto. *Egia latz ta labio*, la verdad (es) áspera y rabricorta. (Refranes).
- Labo** (BN, sal.), miope.
- Labore:** 1.º (BC. Gc.) cereal. 2.º (BN.-sal.), pan de trigo, de maíz, centeno o cebada.
- LABORARI** (AN, BN, L, S.), agricultor, labrador.
- LABORANTZA** (AN, BN, L, S.), agricultura, labranza. (?)
- Laborri** (G-Itur), espanto, estupor. Es alt. eufon, de *lau orri*. *Bildurrez lau orrian dago* (G.-uz.), está estupefacto de miedo.
- Labur** (c.), corto. LABURZKI (BN, S-Sal.), en poco tiempo. LABURRA-RAZI (L, BN, S.) hacer acortar.

R.A.-P.B., 33

*Bilbo-tik 1902-ko Maiatzaren 31-an.*

Hasparrengo neure adiskide mamintsuari:

Azkenengo gure eskutitzean<sup>1</sup> aztu iatzun erantzutea nire lenengo itauneari: Ia zer eritšan zuk nire iztegi-zati aren taiuari; ea berba eratorriak (*derivativos*) zelan egongo ete zirean egokiago; ala banan banan, lerro banatan; ala mortšakan, piloan, guztiak esaldi baten.

Landerretše abadeak<sup>2</sup> ezin dabela erantzun deust eskutitz bigun eskergarri baten. Latiña ta Griegoa irakasten bizi dala.

Constantiñ<sup>3</sup>-ek baietz. Atsoak<sup>4</sup> eztau ezer erantzun.

Orreagako adiskideak (obeto esateko ulaideak) (\*) *eztiñost* ezer. Mendigacharentzako<sup>5</sup> bitartea eskatu neutsan. Bide batez itandu neutsan ea Saraitzu nai beste ibar bat edo besteko baserritarrak *akademikotzat* nik eukiteari berak gauza bearra edo nora-etzekoa ete eritšon.

Au itandu neutsan, berak eta beste kanonigoak Naparroako barri ondo dakielako eta ederto czagutuko dabe zeñ euskera-mueta daukadan ikasita ta zeñ ez. Nik esaten neutsan Baztan-go euskerea ondo batuta neukala. Lesaka-aldekoa be aren baten, baita Esteri-barkoa be. Ezetedau euretariko batek etorri gura izango?

Zein lapurtar begiz ioko dozue nire Akademia onetarako? Hiriart-Urruty?

*Barri tšarbat.* Gure Sabino estu erabiliko dabe. *El Nervion*-en irakurriko dozunez, baituran (preso) artu dabe<sup>6</sup>, Roosevelt-i telegrama auše bialdu deusulako:

*Roosevelt-Presidente Estados Unidos.*

*Washington.*

«Nombre partido vasco nacionalista felicito por independencia Cuba, Federación nobilísima que presidís que supo liberarla esclavitud.

Ejemplo de magnanimidad, de culto a justicia y libertad dan vuestros Estados, desconocido historia, inimitable para potencias europeas, especialmente latinas.

Imitáralo Europa, entonces nación vasca, su pueblo más antiguo, que más siglos gozó de libertad rigiéndose constitución que mereció elogios Estados Unidos, sería libre».

*Arana-Gori.*

Telegrama oni ibilpidea galarazo deutse. Atzo edo erañegun zen Bilbotik gizon bat Baiona-aldera ioateko telegrama au frantzez Roosevelt-i bialdutera.

*Beste barri bat.* Lengusu bat daukat, urte askotan Cuba-n egona, 50 urtekoa, bederetzi semealabaren aita, amasei urtetan urdailetik (estomagotik) gaisorik, batez be iru urte onetan. Inñun direan osagile ta osabide ta osagarri-artean ibili da. miñik eztauko. Ian ederto egiten dau, gogoz; baiña ez iandako beste; nai ian, nai ez ian, bardin; geroago, argalago, indargeago, ezarriago ta makalگو dakusku.

Azurra ta azala daukaz. Onelan badoa uda-goienara ezta bizi-rik elduko. Asimilaziorik eztauko.

Uste dozu Parisen edo nunbait badagoala onelango gatša osatuteko espezialistarik?

Zure erantzuerearen begira egongo naz, lengusuari atsegin puzka bat emon albadaiot. Agur Peru maitea.

Esango deutsut aurrez, noz urtengo dodan. Zuk nire egotaldia banatu dozun gisa orri guztiz egokia ta atsegiña deritšot.

Zurea beti.

*Resurrección.*

\* Nire jaioturian atsoren batzuk esaten dabe *ulaidea* zuen *elhairearen* ordez.

\* \* \*

<sup>1</sup> Maiatzaren 16 eko eta bagilaren 9 ko Broussain-en eskutitzen artean (P.B. 46 & 47) idazten du hau Azkuek.

<sup>2</sup> Landerretche Martin (1842-1930), Duzunaritzen (N.B.) jaioa, apez euskalzale ta euskaltzaina: ikus Villasante, op. cit., 304-305.orr.

<sup>3</sup> Constantin Jean Baptiste (1844-1927), Albert Constantin Atarratzeko sendagilearen aita. Bera Santa Grazian jaioa, Izpuran luzaz maisu egona. Ziberotarra eta Baxenabartarra berdin erraz zerabiltzan. Pertsu asko ondu zuen, «Joanes Garaztarra» izen pean, bai eta artikulu frango ere «Eskualduna» astekarian. Ikus adibidez «Aipamen llabur bat Haritchabalet Jaun Apezaren gainean», Egan Donostia, 1985, 3-4.

<sup>4</sup> «Atsoa», Julien Heguy orduan Santa Grazian apez dagona. Ikus Lehenago: R.A., 14 & 32.

<sup>5</sup> Aintzineko gutunean dugun Mendigacha Kailesaz bestalde, hemen eta urrunago Azkuek aipatzen dituen lankideen izenak argitzeko, ikus daiteke: «Diccionario Vasco-Español-Francés», «Prólogo», V «Colaboradores». Badaude hor Lesakako atso zenbait, Saraitzu-ko Francisca Fano, Esteribar-ko Mendizabal, Baztan-go Gorosurreta eta Goyeneche apezak eta Iparraldekoak bestalde.

<sup>6</sup> Maiatzaren 25 ean Bilbo-ko postan aurkeztu zuen Sabino Aranak bere telegrana. Maiatzaren 30 ean preso sartu zuten eta bost hilabeteren buruan, azaroaren 8 an askatu.

R.A.-P.B., 34.

*Bilbo-tik 1902-ko Bagilaren 11-an.*

Neure adiskide maite Peruri:

Jaun Moreau onaren gomuta<sup>1</sup> izan da izango naz neure arren laburretan. Gizon guztiak aren antzekoak balitzaz eskengokez tšarto.

Gaur edo biar elduko da zure *carte de visite* Sabiño-ren eskuetara<sup>2</sup>. Bere alde egingo daben lege-gizona (neure adiskide Irujo naparra, Iruña-ko Aranzadi-ren koñatua)<sup>3</sup> egon da gaur nigaz da esan deust ziorik (motiborik) eztaukala gobernuak Sabino baituran eukiteko, aitzakia besterik ez. Baiña Sabiñok berak bear litzakean baiño luzaroago burua barruratuko dau. Eskutiz onegaz batera artuko dozuzan paper biak azalduko deutsue au obeto.

Aitabitšigei naz; geia itši ta bitšitu-arte emen naukazu. Lengusiña bat daukat Mundakan<sup>4</sup> ama izan-egiñik edo zori zorian, da ordurarte ezin nik emendik alde egin.

Eztakit itšasoz ala legorrez Baionaratuko nazan. Eguraldi ona ta bide batezko ontzi on bat badaukat, itšasoz.

Zuen usteari (ni Santa Garazin egonda gero; Landerretše-gaz Donibanen egoteari) ezteritšot tšarto; baiña eztoz orretarako astirik naikoa izango. Baionan da Larresoron da Hasparrenen ariñeketan ibili ta be, Santa Garazi-n igaroi nai neukezan egunakaz elduko iat niri GaragarriTaren (Julioaren) 29.<sup>a</sup> Ta ezin luzaroago egon izango naz or. San Iñazio-egunean neure erritar abade gazte baten albotiko edo *parrain* izan bear dot.

Oba izango da beraz Landerretše-ri itši ta beste bat (laborari zaarrtšu bat ondo etorriko iaku) Santa Garazira eroatea. Atsoa. isilik dago. Nakar edo gogo barik ete dago?

Gaur ioako bigarren eskutitza. Orreaga-ko kanonigoa be isilik dago. Izan leike egun batzuk barru zerbait beragandik iakitea.

Gomutaratu niri, mesedez, Baionan nagoala Vinson<sup>5</sup>-ek oraiñ urte bete argitaraturiko liburu tšikia irakurtea. Gure adikide Arbelbidek daukala esan zeustan.

Nire ibilpidea au izan leike, ona baderitšazue: Baionara itšasoz, al bada, zuri aurretiaz iragarrita; Baionan lau bat egunean Duvoisin-en Iztegia ta Arbelbide-k daukan liburutšu zaar birmoldatua irakurri; Larresoro-n gau baten, nire Iztegiaren Ortografia guztion artean erabagi daidazuen; artu an Landerretše-ren ordezeko lapurtarra ta Santa Garazi-ra, Constantin aita Atharratzen artuaz; andik Kailes-era (au da *Valle del Roncal*-en izena, *Roncal*-erritšua Erronkari bada be); Kailes-era Mendigatša edo besteren bat artu ta Atsoaren ondora ta ekin Iztegi guztia burutik burura aratuarte.

Mila esker Bouchard<sup>6</sup>-en ezaupide ta zuzenbideagaitik. Eztakit nire lengusua gauza izango ete dan Parisera ioateko. Uste dot ezetz.

Agur nere adiskide maite Peru.

Zurea beti.

*Azkue.*

<sup>1</sup> Moreau komandantea, Broussain-en aitaizuna hil berri zen: Ikus R.A., 7-3.<sup>o</sup>.

<sup>2</sup> Larrinagako presondegian, Bilbon dago Sabino Arana: Ikus R.A., 33-6.<sup>o</sup>.

<sup>3</sup> Irujo, Daniel de. Manuel de Irujo abertzale ezagunaren aitak, auzia irabazi zuen.

<sup>4</sup> Mundakan ezkonduak ziren, 1857 an, Resurrección Maria Azkue-ren aitamak, eta jaiok hauen hiru gehienak: Ikus J.A. Arana Martija, op. cit., 8. orr.

<sup>5</sup> «L'Office de la Vierge Marie...», par Harizmendi, 1658. Réédition Vinson, 1901.

<sup>6</sup> Pariseko sendagile bereziaren izena, Broussain-ek emana: P.B., 47.

R.A.-P.B., 35.

*Bilbo-tik 1902-ko Bagilaren 16-en.*

Ene adiskide maitea:

Atzo artu neban, Orreagako kanonigoaren eskutitzean, Mendigacha-ren baietza. Zamari bat nai leuke, zaarra dagola-ta. Nai baleuz, buztartuta bi gertuko litzakioz. Saraitzu-ra (*Salazar*-ko ibarre-ra) eskutitz bat bialduko dot, ango euskaldun baten eske. Ikusiko dogu zer diraustan Eaurta-ko abadeak.

Santa Garazi-ko Atsoa isilik. Lenago, orain urte-ta-erdi inguru, Hasparrenen bizi zan Nagia. ¿Santa Garazin bizi eteda aspaldion? Santa Garazin batu ezin bagara, Atarratzen bertan edo ondoko baserrišuren baten izan leike gure batzarra.

Begia io zeuk Siberuko mintzazále «hoún» bat.

Zure «*carte de visite*» eldu da Sabino-ren eskuetara.

Agur ene adiskidea. Zurea beti,

*Azkue.*

<sup>1</sup> Ikus lehenago R.A., 33-5<sup>o</sup>.

<sup>2</sup> Eaurta (Jaurrieta) Nafarroa Behereko euskalkian sartzen da.

<sup>3</sup> Ikus P.B., 47-5<sup>o</sup>.



**R.A.-P.B., 36.**

*Bilbo-tik 1902 Bag. 18.*

Ene adiskide maitea:

Bariku arratsaldean elduko naiz, ondo banabil, Baionako gelu-  
nera,

Agur.

*R.M. Azkue.*

**R.A.-P.B., 37.**

*Urruñatik 1902-ko Bagilaren 22-an.*

Ene adiskide Peru:

Etzi, asteartean, elduko gera bazkal ordurako Larresoro-ra. Emen<sup>1</sup> ere lanean ari naiz, ta ala uste nuen baiño aurrerago darabilt nere arazoa.

Etziarte, beraz.

Agur nere adiskide maitea, Zurea beti.

*Azkue.*

<sup>1</sup> «Emen» hori, Abadia-ko jauregiaren liburutegia daiteke. Abadia-ko andere alarguna hila izana gatik, hor baitzegoen Verschaffel apez astronomua: R.A., 17-1<sup>o</sup>.

R.A.-P.B., 38.

*Ligui<sup>1</sup> a 7 de Julio de 1902.*

Carísimo Pierre:

Ayer poco después de haber recibido su carta salí con Constantin para Tardets.

Dentro de unos días le escribiré a V. Constantin el padre para darle cuenta de cómo va su hijo. La madre me encargó dijera a V. que el enfermo está tranquilo y nada peor.

A la tarde fue a visitar a Inchauspe<sup>2</sup> en compañía de Constantin y Echeandy<sup>3</sup>. El pobre anciano ha perdido casi por completo sus facultades. A los tres minutos de estar con él y de haberme reconocido, me preguntó agarrándome de la sotana si también yo era médico.

Días atrás, tuve carta de Juan Carlos<sup>4</sup>. Me encargaba saludara a V. cordialmente y que sentía no poder aceptar su invitación de venirse por aquí. Hablándome del *tirano de Sukarrieta* (palabras suyas) me decía que probablemente la voltereta política que ha dado será un fiasco. Ninguna persona de arraigo y significación le seguirá, pues nadie cree en la sinceridad de tal cambio.

Del valle de Salazar no he tenido noticias, Mendigacha y Laurents se conducen muy bien. Son muy curiosas las palabras que me da el primero. De la Academia en general no estoy muy contento; pues si un día tengo seis otros no tengo más que mis dos muletas (Mendigacha y Laurents).

Si pudiera conseguir tener aquí mañana y tarde dos suletinos y dos bajo-navarros, además de los citados académicos, esto sería hermosísimo.

De hoy en adelante conseguiré seguramente traer aquí a todas horas al primo de Albert Constantin<sup>5</sup> o en su defecto a Hardoy. Difícil es que este último sepa su dialecto mejor que el citado Alexis. Sabrá el viejo quizá algunas palabras más; pero en cambio el joven le lleva la ventaja de tener más iniciativa y memoria más fresca. Estoy satisfechísimo de dicho Alexis Constantin, del cura de Ligui<sup>6</sup> me formo cada día mejor idea.

Es muy seguro y conoce muy bien el subdialecto de las Aldudes y tiene buena voluntad; solo que de vez en cuando tiene que dejar la Academia por cumplir algún deber extraordinario.

Cuando V. venga puede V. traer mis dos tricots. Recibí la *Gaceta del Norte*.

Hace ya dos días pedí a Bustinza me enviara los manuscritos de Inchauspe<sup>7</sup> en paquete certificado (recommandé). Hacerlos co-

piar es punto menos que imposible, 1.º por su cantidad, 2.º por la letra pequeñísima difícilmente legible.

Respecto de lo que me dice de un tratado de botánica comprendo que sería muy bueno, pero vale más dejarlo para un suplemento.

A Dios mi querido amigo. Consérvese bueno y traiga sin falta su colección, «Hasparreniana»<sup>8</sup>.

Suyo,

*Azkue.*

<sup>1</sup> «Ligi» (Licq, frantsesez), Atarratzetik Santa Grazia eta Larrainerako bidean dagon herriska. Hor jartzen zaigu zenbait asterentzat Azkue.

<sup>2</sup> Inchauspé Emmanuel kalonje xaharrak 87 urte iraganak ditu: R.A., 10-2.º.

<sup>3</sup> Constantin aitarekin dator bere seme medikuaren laguna, Etchandy jaun medikua: Ikus A. Constantin-ek P. Broussain-i bidali gutuna, 30-III-1903.

<sup>4</sup> Juan Carlos (Gortazar), «Sukarrietako tiranoa-ren itzuli politikoaz» mintzo delarik Sabino Arana-ren «bilakaera espainolistaz» ari zaigu eta 1902 ko ekainaren 22 eta 29 eko «La Patria»-n agertu artikuluetaz. Ikus «Obras Completas», op. cit., 2.174-2.186.orr.

<sup>5</sup> Alexis Constantin ala Alexis Duque (Diccionario V.E.F., XII) deritzo ote Santa Graziako Constantin zaharraren ilobari?

<sup>6</sup> Ligi-ko erretora Uhart apeza Aldudarra dugu.

<sup>7</sup> Nahiz Inchauspé-ren hiztegia lehenago aipatu (R.A., 10-2.º), Azkuek bere Hiztegi handia-ren iturrietan ez du haren izenik emaiten.

<sup>8</sup> Hau daiteke horrenbeste aldiz Azkuek Broussain-i eskatu dion hitz zerrenda, bere Hiztegian «manuscrito de Hasparren» (ms-Haz) deitzen duena.

R.A.-P.B., 39.

*Licq-Atherey a 10 de Agosto de 1902.*

Carísimo amigo:

había dejado para hoy Domingo la tarea de acusarle recibo de su ya penúltima carta; y al disponerme a llevarla a cabo, me he encontrado agradablemente sorprendido con otra de V.<sup>1</sup> y con una del P. Verschaffel.

Antes aun de haber leído la de V. había formado mi juicio acerca de la invitación del astrónomo de Abbadia: aceptarla y proponer para presidente a nuestro amigo Arbelbide<sup>2</sup>. Dios quiera que esta fundación sea toda lo fecunda que V. augura y ambos ansiamos.

De V. a su amigo el Sr. Dibildos<sup>3</sup> anticipadas y cordialísimas gracias por la merced que hace ya tiempo (desde que leí en *Eskualduna* aquel hermoso discurso pronunciado por su amigo en la Iglesia de San-Juan-de-Luz) cuanto deseaba, digo, entablar relaciones con él.

Quisiera que para el día de su llegada reservase este anónimo río sus más sabrosas truchas y mis académicos sus más discretas observaciones, para que así la estancia en Escapil<sup>4</sup> le sea agradable.

En cuanto a mis trabajos estoy muy contento, si bien perdiendo de vista su fin.

Mutil bat daukat neure ondoan, neure lanetan lagun egitekoa; baiña bere sūrpeko (moustache) ta urteak gora-bera, mufil izena obeto dagokio. Onen lekua izan leiteke besteren batek bete bear izatea.

Berau asi zan nire udako mozkinak (melodiak) garbitan ezarten. Neuk lan ori barriren barri asi bear izaten dot. Lan neketsua, batzekoa baiño bere neketsuago ta astizaleagoa!

Neke ori gorputzak artu baleit ondo nengoke, jburuak artzen deust eta ezin ondo lorik egin dot.

Clément d'Andurain<sup>2</sup>-en eskutitza irakurri nebanean, neure izena lar edo geyegi albistarietan ez ikustearren, bertan bêra itši neutsan, Hiriart-Urrutyri erantzuteko asmoari<sup>3</sup>.

Mila-ta-ogei-bat kanta zar besapean nebazala eldu nintzan Bilbora Urriaren 15-garrenean. Neure sorterrian batu nebazan Amabi bat guztiz politak. Oraindiño badaukadaz, Bizkai-Gipuzkoan, Nafarroan ta Lapurdin bertan, eskualde batzuk arakizun (pour parcourir). Aratustez eta aste santuan aratuko dodaz Bizkai ta Gipuzkoako ibar ta eskualde orrek. Nafarroa ta Lapurdikoak datorren udan. Senperera eldu nintzan. Gure adiskide Durrizburuk<sup>4</sup>, eztaikit ala arazopeturik egoalako ala *Semaine de Bayonne*<sup>5</sup> irakurri ebalako, ezeustan ezertan lagundu. An irakurri neban *Eskualduna* ta eneban izan aurrera jarraituteko adorerik. Sara ta Itsasu ta Senpere bera ta Arbona ta beste alde batzuk geroago aratzeko ustez nago. Hasparrenen ikasi dodaz kanta zarrrik geyen<sup>6</sup>; Otzandion urrengo; irugarren, Orio dator. Uste dozu Lapurtarrak datorren udan lenago baizen abegi ona egingo deustela?

Gogoz birriratsi dodaz «Gure gelariak galde egin deraut»<sup>7</sup>... eta beste *ahapaldiak*.

Pozik artuko neukez «Baigorriko zazpi liliak»<sup>8</sup> «Ale» ta erdezako «à la» bat aldira? «a la francesa», «Pommes de terre à la Pompadour»...

Flaku, flakezia..., etc., = flaco, flaqueza (esp.  
Urquijogandik dakit *Cercle d'Etudes*<sup>9</sup> sortu dozuela (Bayonan?  
Nun?) eta ni zuen arteko egin nozuela. Mila esker.

Gure adiskide Daranatz ikusteko erarik badozu, esan neure ordez, enebala astirik edo gogorik izan, berak gogotan sartu eustan-Itsasuratea egiteko. Datorren udan, San Andres, *aphez gazteñoak*<sup>10</sup> Laphurdi aldeko bideak gaiztotu ezpadeustez, eldutsu bat egingo dodala.

Ta zure Amélie ta Madalen ta Jenofa? gorantzi asko. Agur, biotzeko ta betiko adiskide maitea.

*Azkue.*

<sup>1</sup> Berriz ere hiru urte geroago Azkue saiatu zen Gasteiz-eko «Chantre»-goa ardiesten. Debal-detan: J.A. Arana Martija, op. cit., 44-45.

<sup>2</sup> Andurain de Maytie, Clément d'(1878-1916), euskalzale Ziberotarra Maulen jaioa ta gerlan hila. «Uskaldünak Ibañetan» pasturala idatzi zuen, 1906 an, J. de Menditte, Muskildiko erretorarekin. Besterik ere idatzi zuen, «Arnaud d'Etchezar» izenordearekin. Orai aldiz, Hiriart-Urruty ta bestek Azkue jaukitzen zutelarik, honen alde idatzi zuen Lacombe, Constantin ta Broussain-en adiskideak.

<sup>3</sup> Urriaren 6 eko «Eskualduna»ren zenbakian idatzia zuen Hiriart-Urrutyk Azkue ta Hegoaldeko Euskaldunen kontra: «Frantzia eta Espainia» artikulua. Ikus Broussain-en irazkina, Amenduzetik bidali gutunean: P.B., 61.

<sup>4</sup> Dourisboure Alexis medikua (1863-1931).

<sup>5</sup> «La Semaine de Bayonne», 4 Octobre 1911.

<sup>6</sup> «Cancionero Vasco» kantutegiko aurkibidearen arabera, Hazparne aldean bildu kantuak 39 badaude hor; Otxandio-koak 26; Orio-koak 16. Baina bestalde ere badaude —gutun hau idatziz geroz bilduak, dirudienez— Lekeitio-koak 37; Baraibar-ekoak 30; etabar.

<sup>7</sup> R.M. de Azkue, «Cancionero Popular Vasco», 2.<sup>a</sup> edición, La Gran Enciclopedia Vasca Bilbao, 1968, II, 690. orr.

<sup>8</sup> J. Duvoisin, «Baigorriko zazpi liliak», «Les Sept Fleurs de Baïgorry et...», (en euskara et français), Revue des Basses Pyrénées et des Landes, 1884-1885, eta berriz argitaratuak «Journal de Saint-Palais», 1884 ez geroz agertzen den Amikuzeko astekarian: gai honetaz eta ingurukoetaz ikus P.B., 62, 63, 64, 65.

<sup>9</sup> 1911 ko azaroaren 9 an, Lacombe, Urquijo ta Broussain-ek bultzaturik, Baionako Bourneuf karrikako 53 an, bildu zen, lehen aldikotz, «Cercle d'Etudes Euskariennes» elkarte berria. Azkue bezala Hegoaldeko partaide egin zituzten Campion, Domingo Agirre, Gregorio Mugica, Carmelo Echeagaray, Luis Eleizalde ta Cruz Goyeneche. 1914-1918 eko gerlak geldiarazi zuen elkartea. Xehetasunentzat ikus Broussain Lacombe-n arteko elkarridazketa: P. Charriton, «Fonds Broussain, Les Lettres de G. Lacombe» eta «Fonds Lacombe, Les Lettres de P. Broussain», Bulletin du Musée Basque, Bayonne, 98.<sup>o</sup>, 108.<sup>o</sup>, 109.<sup>o</sup>, 110.<sup>o</sup>, 111.<sup>o</sup> (1982-1986).

<sup>10</sup> Azkuek badaki Daranatz adiskidea beti lagun izanen duela bere Kantu bilteta lanetan, baina badu susmoa orduan San Andres-en bikari den apez gaztea, hots, Hiriart Urruty-ren ikasle izana den Jean Saint-Pierre bera, Lapurdiko bideak tratatzen ari zaiola: «La Semaine de Bayonne»-eko artikulua hura ez ote zen harena? Badakigu guk Jean Saint-Pierre hori bera (1887-1957) ari izan zela, «Anxuberro» izenorde pean, «Euzkadi» egunkaritik, 1919 an, Euskaltzaindia kitzikatzten: Ikus Broussain-ek aita Lhande-ri idatzi gutuna (13-X-1919).



R.A.-P.B., 78.

*Lekeitio-tik 22-VIII-1912.*

Aspaldiko adiskide maite maitea:

Lau ilebete onetan beti egon naiz zuri ezkutitz bat edo beste irasteko ari-arian. Biarko egunari begira egon barik, gaur berean egin nai deutsut.

Cazenave<sup>1</sup> Haspandarrak Paristik nire *Conferencia sobre la música popular* eskatu deust. Esku-artean bat bere eztaukat. Nai deutsazu zuk zeurea bialdu? Nik gerotsoago orren ordez beste bat emango deutsut.

Datorren ilaren azkanetarantz barriro elduko naiz zuen artera, oyuki (ahaire) zar-billa, Azparren-aldakoak geyenak daukadaz ta beste nunbait, Isturitzen<sup>2</sup> nai Ustaritz-aldean nai beste toki zuk onentzat daukazu baten, astebete igaro nai neuke.

Ziberúla heltüren nüzü, ahair zahárren tserkatzéra.

Zor deutsadazanetatik<sup>3</sup> aurten asiko naiz zuri emoten. Mila bat franku eroango deutsudaz.

Españiatik eroandako zaldi ta karrosatšu batez ibilteko eragozpenik izango ete dot or? Bestela Ainhoa-aldean bat, merke merketšu bat, akuran artu bear izango dot.

1.105 oyuki daukadaz batuta. Beste irureun bat batu nai neuke. *Partido nacionalista* yagi jat aitzitiko batzaldi edo *Concours* onetan. Uste dot garailari izango naizala<sup>4</sup>.

Gorantzi andiak zure emazte ta alabatšo Mađaleni, Dibildosi ere bai.

Amar bat egunean Lekeition izango nazu, gero iges legez jo ona ta jo orra ibiliko naz.

Begiz jo zuk, adiskide batzuen bitartez, nortzuk direan Lapurdin tan Napparroa orretan nire lagungei onenak<sup>5</sup>.

¿Jenofa<sup>6</sup> sendoa dator? Agur. Nire ama ta arrebak osasunez ta pozkor bizi dira.

Beti zure biotz biotzetik.

*Azkue.*

<sup>1</sup> Guillaume Cazenave, Hazparne sorterrian «chantre»goa egin ondoan, Parisen «tenor» ofizioa ikasirik Frantziako eszenatoki gehienak kurritu zituen gizona. 1914-1918 ko gerla ondoan, garaipenaren ospakizunetan Baionako udaletxeko balkoitik honek kantatu zuen... «Gernikako arbola!».

<sup>2</sup> Isturitze herria Hazparnetik 10 bat kilometrotan dago, Nafarroa Beherean. Uztaritze aldez 15 kilometrotan, baina bestaldera, Lapurdin ere. Ainhoa berriz Lapurdin Nafarroako mugan.

<sup>3</sup> Gogoan har zenbait mila pesetako jesanak zizkiola Azkuek Broussain-i. Tours-en zegoelarik: R.A., 57-6.<sup>o</sup>; 69-1.<sup>o</sup>.

\* Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako hiru diputazioek, euskal kantuen bilketarako lehiaketa antolatu zuten urte horretan. Ondoko urtean, 1913 an 1820 «ahaire zahar» aurkeztu zituen Azkuek. Aita Donostia musikalaria kaputxinoak (1886-1956) 523 zituen ekarri. Beste «aitzitikorik» izan zuelakorik gure Azkuek ez dakigu. Dena dela epaimahaiak lehen saria eman zion 1915 eko martxoaren 20 an: J.A. Arana Martija, op. cit., 66-67.orr.

<sup>5</sup> Hemendik goiti, Broussain-ek Azkue-ri idatzi erantzunak —gerla ondokoak izan ezik— galdu egin dira. Badakigu halere Broussain-ek bere adiskidei dei egin ziela Azkue-ren alde laguntza eskatuz 1912 ko itzuli horretan: Broussain-en paperetan daude adiskide horien erantzunak. Hala nola Schlegel Kanboko erretoraren gutun luzea, Blaise Adéma Sarakoarena, Diesse Itsasukoarena, Alamon D. Garaziko notarioarena, Istebot Behauzeko errientarena eta beste.

<sup>6</sup> Jenofa Broussain, bigarren alaba aintzineko urtean jaioa.

R.A.-P.B., 79.

*Orreaga, 21-V-1913.*

Mad. et Mr. Broussain  
Maire de  
Hasparren (Basses-Pyrénées)  
Francia

Je ne connais pas à coup sûr le nombre de siècle qui, de ces souveraines hauteurs vous contemplent, vous *Señora Alcaldesa*, vous mon cher Peru et vous autres aussi mes petites Madalen et Jenofa... mais il est bien certain que moi... je vous contemple, en faisant des vœux de...

(Je vais)?, quoique très rapidement parcourir l'Aezcoa, Salazar, et Roncal, puis la Soule, par Larrau.

A bientôt.

*Azkue.*

<sup>1</sup> Orreaga-ko ospitalearen eta kaperaren irudia dakarran karta apurtu baten gibelean idatzirik daude hitz apur hauek, Goi Nafarroan eta Ziberoan gaindi, 1913 ko udaberrian, Azkuek egin ibilaldian igorriak.

R.A.-P.B., 80.

*Loyola-tik 8-VII-1913.*

Adiskide maitea:

Nola zera? Nola dira zure andre ta alabatsoak? Zortzi egun onetan ekitaldi eder bat (erretreta) egin det emen, etse andi eder bakesu onetan.

Biar Lekeition, Jainkoak nai badu.

Nai dezu Casenave<sup>2</sup> kantalaria nere izenean go datu, nere opera berr Urlo Bayonan ezaguta tiara ezkutititso bat baledi, ederki. Nik berea-lase erantzungo nioke.

Eztet luzeagotzeko astirik, betarik, aizararik, aitzinarik (\*).

Agur goraintziak altzoka ta bigunak emazteari. Potño bana aurrai.

Beti zure adiskide maite maitea.

1820 *ahaire zahar* utzi Bilbo-ko Diputazionera<sup>3</sup> etorri aurretsoan.

Agur. Beti zurea,

*Resurrección.*

Or ote da gure Dibildos? Goraintziak.

\* Azpandarrena eztezute au?

\* \* \*

<sup>1</sup> Azkuek urte honetan, otsailaren 10 ean, galtzen du bere ama, Maria Carmen Aberasturi eta beltzez markatu paper batean idazten du, apurturik gelditu zaigun gutun hau.

<sup>2</sup> Jokolari bila dabila Azkue «Urlo» bere opera berriarentzat. Guillaume Cazenave Hazpandarrari (R.A., 78-1.º) dei egitea gogoratu zaio, dirudienez.

<sup>3</sup> Lehenago aipatu lehiaketarako: R.A. 78-4.º.

R.A.-P.B., 81.

*Bilbotik, 30-X-1-14.*

Adiskide maite ta lagun zârra:

Zure ezkutitza artu baino askozaz lenagotik nuen buruan zuk or diozuna<sup>1</sup>.

Guda izugarri au asi zanekoše, Amerikara nere zordun bati, 50 Iztegi *Laurak bat* Buenos Aires-ko batzokian zabaltzeko eskatu zizkidan bati<sup>2</sup>, lenago bost aldiz bezela eskatu nizkion, ezkutizño biguñ batean, zor dizkidan 2.500 pesetak. Diru au nere eskuetara eldu ezarren uste det amabost bat egun barru *mila bat libera* zuri bidali al izatea<sup>3</sup>. Gainerakoa gerošeago; al dedan bezain laster.

Arrebai eskatzeko eretiarik ez tet. *Urlo* operaren ilorrak<sup>4</sup> 27.000 libera sakeletik aterarazi dizkit eta dirutza andi ori arrebak, beren diru-paperak salduz, aurreratu didate.

Orain *Linguistique* darabilt esku-artean. Nai nuke zuk *itzarri-rik*, aspaldion aginduriko *suffixes*<sup>5</sup> ta itzak igortzea.

Zure ezkutitza artu-aurretik ere oroitzen nintzan zure *koinatu*<sup>6</sup> orrezaz, batez ere Pierre nedukan ta dadukat biotzaren erdi-erdian sartua.

Otoitz egingo det bai (ta egin ta egiten ere) berentzat.

Berriz zure gutun gošo bat artu-arte agur, ene adiskide maite ta ona. Goraintziak emazteari ta bi alabatšo orrei mosutšo bana nere izenean.

Beti zure.

*Azkue.*

Guda iru ilebete lenago asi balitz, uste det Bayonako Apezpikuari, lau ilebeterako erretorgo tšiki bat eskatuko niola<sup>7</sup>.

<sup>1</sup> Azkuek hemen aipu duen Broussain-en gutun hori guk ez ezagutzen eta, ez dakigu zertaz zuen zuen solas: Diru kontu eta gerlako berri, menturaz.

<sup>2</sup> Zor zahar horretaz, ikus 1906 eko urriaren 2 ko gutuna: R.A., 74-5.º.

<sup>3</sup> 1912 an hasia —edo hasi nahia— zen Azkue bere zorra ordaintzen: R.A., 78-3.º.

<sup>4</sup> Zinez lotsagarria izan zen *Urlo* operaren «ilorra»: J.A. Arana Martija, op. cit., 88-90. orr.

<sup>5</sup> Baiona-ko «Cercle d'Etudes Euskariennes» deitu elkartearen landu gai nagusietarik bat izan zen, hain zuzen, eskal atzikiaren gaia. Ikus P. Charritton Fonds Lacombe, *Les Lettres de P. Broussain à G. Lacombe*, BMB Bayonne, 1985-1986, 33, 27, 34, 36, gutunak bereziki.

<sup>6</sup> Léon Baratchart, Broussain-en koinata, gerlako lehen egunetan hil zen: R.A., 61-3.º.

<sup>7</sup> Gerla bururatu arte hemen gelditzen da Azkue Broussain-en arteko elkarridazketa. Egia erran, 1916 eko maiatzaren 26 eko eskutitz batean, Georges Lacombe-ri Broussain-ek idazten dio Azkue-k bidali dizkiola bere «Espainol-Euskara» hiztegi berriaren lehen bi liburukiak eta lehenagotik ere bi gutun igorriak omen zizkiola, bainan ez zituela eskuratu: P. Charritton, «Les Lettres de P. Broussain à G. Lacombe», in «Bulletin du Musée Basque» n.º 89, 1986-1, 11. orr.

R.A.-P.B., 82.

*Bilbao le 19 Novembre de 1918.*

Mon très cher ami Pierre:

Si je m'avais proposé de répondre à votre épître philologique<sup>1</sup> avec une petite carte en français ou avec une longue lettre rédigée soit en basque soit en espagnol, il y a longtemps que vous l'auriez reçue.

Même cette lettre n'est pas une réponse. Je me réserve pour vous en donner une qui soit digne d'elle et de vous, mon cher.

Aujourd'hui je me propose de vous dire quelque chose sur notre Académie.

La deuxième réunion préparatoire et constituante a eu lieu avant-hier au Palais de Bizkaya.

Les académiciens chargés de nommer les autres huit pour former ensemble la section Philologique sont: Campion, Eleizalde, Urquijo et Bibi<sup>2</sup>: Je n'en ai que quatre candidats: le maire d'Hasparren, le P. Olabide<sup>3</sup> de Vitoria; le P. Azpiazu<sup>4</sup> (linguiste savant), de Saint-Sébastien; et Agerre<sup>5</sup>, de Pampelune.

Pourriez-vous m'en indiquer deux de la région basque française? Daranatz et Constantin sont-ils philologues? Lacombe connaît-il bien le basque? Est-ce qu'il le parle? Les conditions approuvées par les congressistes d'Oñate pour être académicien sont: que les candidats soient basques de race et de langue.

Auront-ils le suffisant loisir pour s'occuper sérieusement d'affaires de l'académie? On se réunirait à Saint-Sébastien *tous les quinze jours*, sauf deux mois à l'été.

Naturellement ma réserve en sera absolue.

Quant aux candidats pour la deuxième section nous pourrons parler de *ore ad os* à Saint Sébastien, à l'occasion de la 1.<sup>e</sup> réunion des 12 académiciens avec les représentants de la Presse basquise pour élire les autres huit immortels.

Si vous aviez été à Oñate<sup>7</sup>, vous qui parlez l'espagnol et auriez pu comprendre tout ce que l'on y a traité, vous seriez vraiment ravi du Congrès.

Mes meilleurs souvenirs à Mad. Broussain et baisers aux petites mesdemoiselles Mañalen et Jenofa.

Je n'oublie point mon offre d'airs populaires inédits. Je craignais la perte des documents.

Heureusement la guerre est finie et je pourrai vous donner pour Madalen à Saint Sébastien mon petit souvenir de presque paternelle tendresse. Toujours votre, cher Pierre.

*Resurrección Maria de Azkue.*

<sup>1</sup> 1918 ko aboztuaren 26 an Broussain-ek bidalia zion Azkue-ri eskutitz luze luze bat: P.B., 66. Azkue-ren frantsesak badu oraiko honetan herdoildu itxura, baina uzten dugu den bezala: nor berak egin ditzala zuzenketa egokiak.

<sup>2</sup> «Bibi», frantses «argot»ean «ni, neu» da edo Azkuek euskaraz behin idatzi zuen bezala «Eketa»: R.A., 32-7.<sup>o</sup>

<sup>3</sup> Erramun Olabide, s.j. (1869-1942) Gasteiztar euskaldun berriaren gain utzi zuen 1918 an Oñatiko Biltzarrak euskal akademia sortu beharraren araudia prestatzea. Bera lehen hamabi euskaltzainetarik izan zen baina ez eragozpenik gabe. Ikus Eleizalde-k Broussain-i idatzi gutun ixila.

<sup>4</sup> Joaquin Azpiazu, s.j., Donostiarra, 1887 an jaioa. Nahiz R.I.E.V.en, 1913 an (VII-423-427) artikulua bat idatzirik zuen mintzairaren didaktikaz, ez zen ezaguna euskalzaleen artean. Geroago ere sozial gaietara buruz itzuli zen.

<sup>5</sup> Jose Aguerre (1889-1962) Iruñearra. Lehen taldeko euskaltzainetarik izan zen, baina laster uko egin zion karguari: «Euskera», I-1, 70. orr.

<sup>6</sup> Hastetik bi sail eta bi batzorde: Iker saila ta Jagon saila izan zituen Euskaltzaindiak: «Euskera», I-1, 63. orr.

<sup>7</sup> Oñatin egin zen 1918 ko irailaren 1 tik 8 ra, Euskal Ikasketen Lehen Biltzarrea.

R.A.-P.B., 83.

Bilbao le 3 Juin 1919.

Bien cher ami Pierre:

Vous avez raison à moitié<sup>1</sup>. J'ai laissé passer pas mal de temps en silence, mais ne suis pas si endormi que vous le croyez peut-être. Occupé d'abord dans la rédaction de statuts pour la fondation d'une grande *association sacerdotale diocésaine*<sup>2</sup> déjà approuvée par Mgr. de Vitoria et puis dans la préparation du 1er volume de mon *Chansonnair (sic) populaire basque*<sup>3</sup>, il fallait me secouer pour entamer ma petite correspondance du plus en plus vieille et grosse.

Eh bien, pour ce qui concerne votre lettre d'Avril<sup>4</sup>, je signerais, le cas échéant, votre proposition d'engagement de chaque académicien pour une année.

Je regrette beaucoup que Constantin père se sente trop fatigué pour appartenir à l'Académie. Je crois connaître le chanoine Uhart<sup>5</sup>, ancien curé de Tardets. Sachez, mon cher, que vos avis sur le personnel basque-oriental de l'Académie sont les miens.

Vous voudriez savoir des nouvelles de Agerre de Pampelune<sup>6</sup>. Sur ce que je vous ai dit autrefois de lui, malheureusement je ne peux rien ajouter: Je l'ai vu une seule fois à Pampelune. nous avons passé ensemble une journée et demie. Depuis lors je ne sais rien de lui. Je lui avais envoyé mon petit *Ardi Galdua*<sup>8</sup>. L'aurait-il reçu?

Venons à votre deuxième lettre, celle du 24 Mai.

Tâchez mon cher, de mesurer juste la portée du suffixe *-arē* (Phonétiquement devenu *-karē*, *-zarē*, *-tarē*). Quel dommage qu'il ne fût autre chose qu'un banal synonyme de *-asun*, *arzun* (L'élément *-k* et *-t* des suffixes dérivatifs est purement et simplement épenthétique, en général).

Votre néologisme *noztarē* me plaît beaucoup. Un petit avis sur les néologismes<sup>7</sup> à créer: Il ne faut pas, autant que possible, déguiser leurs éléments constitutifs. Plus ils seront transparents, plus facilement ils seront acceptés par le peuple.

Votre *nešarbide* ne me semble pas acceptable pour «chagrin»: *Atsegabe*, *naigabe*, *biozkatasun*, (du populaire *biozkatu*), *min*, *ala*, *oinaze*, *gařamura*, *biotziltasun*. ... Vous croyez qu'il y a place là-dedans pour *nešarbide*?

*Eupen* pour «crime», c'est peu transparent. La peuple (et il faut compter avec lui) ne voit pas ses éléments. *Eupendi*, «criminel» s'oppose à la phonétique basque: Les lois phonétiques de déclinaison ne sont pas les mêmes que celles de dérivation: *n + g = ng* dans la déclinaison



raison des dialectes occidentaux n'est pas *ng* mais *nk* dans la dérivation: *afainki*, *mutilko*, *arainko* «petit poisson», etc.

De même *n + t* et *l + t* donnent *nd* et *ld* dans le premier champ de la phonétique et *nt* et *lt* dans l'autre: *Ontarzun* (\*), *isiltarzun*. Nous disons à Lekeitio *añenti*, «blasphème», pas *añendi*. Le suffixe dérivatif *du* de *isildu*, *bigundu* est paraît-il moderne, du latin *auditus*, etc. Vous pourriez voir dans les fables de Juan Mateo de Zabala, découvertes par moi à la Biblioth. Nation. de Paris et publiées dans la *Rev. Intern. d'Etudes Basques*, vol., II, pág. 529-535, le mot péjoratif *Zekentotzar* «très avare». Le même Zabala dit, je crois *Urtento* «hardiment» dans sa fable 15.<sup>o</sup>.

Quant au suffixe *-ore*, je vous en ai entendu parler il y a longtemps.

Opportunément nous parlerons d'autres jolis néologismes que je vois dans votre lettre. Que vous êtes bien doué pour la besogne! Pour ce qui concerne le mot *Izkelzaingo* «Académie», modifié par vous en *Izkelzaingu*, je crois que *aliquando bonus dormitat Homerus*. 1.<sup>o</sup> parece que *-gu* (vous n'avez sans doute pas lu mon *Ardi Galdua*<sup>8</sup> désigne un lieu où l'on fait quelque chose, tandis que *-egi* c'est le lieu où l'on entasse des objets. Lisez la première ligne de la page 154 de mon petit ouvrage: «*Iztegiko irugaren-gu aditzai dagokie, -egi (maizenik -tegi) izenai bezela*». Lisez le reste. 2.<sup>o</sup> quoique *-gu* fût suffixe d'entassement, de dépôt, nous, mon cher, nous ne tachons pas de régler combien de mètres doit avoir le bâtiment de l'Académie en hauteur, combien en largeur, etc., parce que nous ne sommes pas architectes ou maîtres d'oeuvres. Notre unique tâche doit être et est en effet de fonder *l'institution*, ce qu'exprime à merveille le suffixe *-go*.

Bravo pour *kamusada*. Le suffixe *-ada* est-il roman? Je n'en sais rien au juste. En tout cas il vit dans la moelle de notre langue.

Vous voyez, cher Pierre, que je suis bien éveillé. Quant à notre affaire, je crains bien que les tracasseries du gouvernement espagnol n'arrivent à faire se constituer une petite majorité antibasque au sein de notre Conseil Général. Ils ont supprimé un canton ou district tout à fait basque et institué un nouveau au coeur de la «maqueteria» à Bilbao. Les nationalistes se battront sans doute comme des lions le mois prochain pour les élections du Conseil Général.

Rien de plus. N'est-ce pas bien suffisant? Biotz biotzez beti zure.

R.M. Azkue.

\* Il y a, entre autres, une jolie répartition sémantique: *ondasun*, peut-être du bisc. *ondo* la propriété, les biens matériels et *ontasun*, la bonté.

<sup>1</sup> Lehenagoko Azkue-ren karta eta gutun zenbait bezala, hala nola urtatseko karta (P.B., 69.) eta martxoaren 17 ko eskutitza (P.B., 71.) galdu dukegu ere hemen Azkuek gogoan duen Broussain-en gutuna.

<sup>2</sup> «Unión Apostólica del Clero» deitu batasuna menturaz: J.A. Arana Martija, op. cit., 48. orr.

<sup>3</sup> Bartzelonan argitaratu zuen Azkuek II liburukitan bere Kantutegia, 1920 tik hara: Ibid., 67. orr.

<sup>4</sup> Apirilaren 24 ko gutunean (P.B., 71.) Broussain-ek egiten zuen proposamen hori.

<sup>5</sup> Uhart apezta, Atarratzeko erretor ohia, katedraleko kalonje Baionan gero izana Ziberotarra zen eta ez Nafarroa Beherekoa Lehenago aipatu den Ligiko erretora bezala. Beste Uhart honetaz ikus R.A., 38-6.º.

<sup>6</sup> Jose Aguerre, ikus aintzineko gutuna: R.A., 82-5.º.

<sup>7</sup> Badakigu zer ardura zuen Broussain-ek hizperrietaz eta maiatzaren 24 eko azken eskutitza ere oso osoa gai horretaz osatua zuen: P.B., 72. Horri zaio ihardesten hemen.

<sup>8</sup> R.M. Azkue, «Ardi Galdua», Bilbao, 1918.

R.A.-P.B., 84.

EUSKALTZAINBURUGOA  
BEIN BEINEKO ETXEA  
Ribera 18<sup>1</sup>  
BILBAO

2-III-1920.

P. Broussain, nere adiskide maiteari,

Ona emen erantzumen laburtxo bat zure ezkutitz eder bezen luzeari<sup>2</sup>.

1.º Bi aldiz itz egin diot nere adiskide Azcaray-ri zure *Vasco-leonesa* artaz<sup>3</sup>. Oraindino eztute bitartekoak deus egin al izan.

2.º Urquijo-ren ezkortasuna<sup>4</sup> (pessimisme) gora-bera aurrera gu beti. Euskaltzaindiaren errebista orretan eztegu âlkegarri dan irakurkizunik erakutsiko.

3.º Ezkutitz batean Urquijo-k oraintsu esaten zidan egoki litekela erderatiko itzen legeak azaltzea<sup>5</sup>: p. ex. *mainu* (balneum), *marka* (barca), *manku* (banco) ... *langerus* (dangereux), *laranya* (naranja)..., etc.

4.º P. Lhandek eta Landerretzek<sup>6</sup> igor bitzate oraindik orain bildu dituzten itz nik eztitutanak.

5.º Dakarrela Intzagaray<sup>7</sup>-k Ondarrabiatik argitaratu gabeko iztegi hura.

6.º Arbelola izango degu aurrerantzean gure batzarretan.

7.º Nik goitzo deritzayot *langue unifiée* ortaz gure lanak as-teari. Bizkaiko *bolchevique abertzale*<sup>8</sup> onen bildurrez obe dala uste det geroxeagorako uztea. Bainan nik igorriko dedan *ordre du jour* artan ezarri zenezake: *Proposition de Mr. Broussain: unification de la langue...*

8.º Euskaltzaintzakoak toki berezi bat izango dute: «guk eritzia (aburua) eskatu arte beude išilik». Asmo au nik agertzea baino egokiago (diplomaticoago) dirudi zerorrek azaltzea, biguñ ta eztiki.

9.º Ortografia-ko arazo orri azkena urrengo batzarrean eman bear zayo<sup>9</sup>. Onetarako Hazparneko auzapez oiari eskatu nion len bai len igortzeko bere asmoa, emen birregin ta batzarkide guztien eskuetan yartzeko; baina Pierre Lo... datza.

10.º Beti gure estueran gutxienez bi iztegi (nereak) izango ditugu.

11.º Len-bai-len ta *recommandé* igor itzadazu Euskaltzaindia-ren gutuntgirako «*Dictionnaire des idées suggérées par les mots*»<sup>10</sup>

ori ta gainera «*Cours de linguistique générale de Saussure*»<sup>11</sup>, Paris, 106 Boulev. St. Germain, 106 - Orien dirua emen emango dizut Euskaltzaindiaren sakelatik. Orain bidaltzea nai badezu, esan. Garaiz badatoz, urrenko erizkizunetan (*ordre du jour*) sartuko ditut: *Intelligence, conception...*, etc.

Ekar zazu ezkutitz au zurekin, ezer antzi eztakidan urrenko baztarretan.

Daranatz-i 40 gramatika Ithurry-renak<sup>12</sup> eskatu dizkiot: bat neretzat, beste bat gure gutuntegirako; gainerakoak aldunderako ta prospectus bitartez banan banan saltzeko.

Goraintzi minak emazte ta aurrai,

Beti ta biotzez zure.

Azkue.

<sup>1</sup> Orduko Erribera kaleko 18 zenbakia oraingo 6.a zen: J.A. Arana Martija, op. cit., 30. orr.

<sup>2</sup> Galdua dugu zorigaitzez Broussain-en eskutitz «luze ta eder» hori.

<sup>3</sup> ikus P.B., 77 (6-III-1920).

<sup>4</sup> Bere ezkortasuna Akademiari buruz erakutsia zuen Urquijok urte bat lehenago Ikus 1919 eko apirilaren 24 eko Broussain-en eskutitza: P.B., 71.

<sup>5</sup> Urquijok aipu dituen «lege» horiek Euskaltzaindiak aztertuko ditu hainitz urte geroago: ikus Euskaltzaindia, «Maileguzko hitz berriei buruz erabakiak», 1986.

<sup>6</sup> Aita Pierre Lhande, s.j. (1877-1957) eta Martin Landerretche apezka (1842-1930) lehen hamabi euskaltzainetarik ziren.

<sup>7</sup> Ramon Intzagarai (1878-1947), Donostiar euskaltzaina: ikus A. Zugasti «Intzagarai-z», Euskera, XVI, Bilbo, 1971, 90-97. orr.

<sup>8</sup> Ez zaigula handi izan horrelako solasa: Gogoan har zer zioen Eleizalde Broussain-i bere gutun ixilean, Azkue ta Jelzaleen arteko harremanetaz (30-IX-1919).

<sup>9</sup> Ortografiako arazo horretaz ere ikus Eleizalde Broussain-i idatzi gutuna (1-I-1920).

<sup>10</sup> Ikus Euskera, I-1, 75 y I-2, 77. orr.

<sup>11</sup> Hizkuntzalaritzaren oinarrizko liburua dela nork ez daki?

<sup>12</sup> Manex Hiriart-Urruty-k «Eskualduna» astekarian, 1894 argitaratzen hasi J. Ithurry (1845-1896) Sarako erretoraren euskal gramatika, Daranatz kalonjeak zuen azkenean argitaratu oso osorik, Baionan, 1920 an. Birrargitalpenak eman dituzte Donostian, 1980 an, «Hordago»k eta «Ediciones Vascas» ek.

R.A.-P.B., 85.

EUSKALTZAINBURUGOA  
BEIN BEINEKO ETXEA  
Ribera 18  
BILBAO

16-IV-1920.

Ederki lan egin dezu auzapez oi orrek aspaldi ontan. Oraino eztituzte saldu zuen bi Vasco-leonesa ayek. Bart eskuetaratu zizkidaten Saussure-n *Cours de Linguistique* eta bi (??) *Dictionnaire des idées*<sup>1</sup>. Bi eskatu ote nituen, burugabe onek, bat aski nuela? *Bazterretik*<sup>2</sup> ere emen det. Mila ta mila esker.

Ezkutitz au emendik egun ateratzekoa bada, azkena eman bear diot.

Badakizu lendik gure batzarrak il onen 24 an arratsaldeko 4 1/2 eta 25 an<sup>3</sup> goizeko amarretan izango ditugula.

Ordurarte ta beti biotzez zure.

*Azkue.*

Laster igorriko ditut erizkizunak.

<sup>1</sup> Ikus aintzineko eskutitza: R.A., 84.

<sup>2</sup> Apiril honen 16 eko gutun honek Broussain-ek martxoan idatzi hiru gutunei ihardesten die (P.B., 77, 78, 79), 7 koan bidalia zuen «Bazterretik» kantuaeren kopia. Bainan, dirudienez, Azkuek galduko du: ikus «Cancionero Popular Vasco», 490. orr.

<sup>3</sup> Egun horretan Broussain Paben beharra zen eta biharamunagoan, zorigaitzez, Orthez-en hil zen bapatean.

Piarres Broussain-ek  
Resurreccion M.<sup>a</sup> de Azkue-ri

PIERRE BROUSSAIN TA SALAGOITY-ren bizia urtez urte.

1859-VIII-5	Hazparne Barrandegian sortu aitaren umezurtz.
1866-VII-23	Baionan ama berriz ezkondu Jean Moreau-rekin.
— urrian	Larresoron ikasle.
1867 urrian	Akizeko «Cendrillon» ikastegian ikasle.
1870	Bordale-ko jesuitetan ikasle.
1880	Parisen mediku gai, eta euskalzale.
1887	Ikasketak bururatzen ari.
1888	Cyprien Broussain anaia Parisetik Londresera joan.
1894	«Jauregizaharrena» erosten Hazparnen, Manez Hiriart-Urruty-rekin harremanetan sartzen.
1895	Euskarazko lehen artikulua idazten.
1897 aboztuan	D. Lohitzuneko Euskal Bestetan Azkue-rekin harremanetan sartzen.
1899-I-25	Parisen Doktorgoa iragaiten. Hazparnen mediku jartzen. Bizkaiara lehen ikustaldia egiten.
1900 ekaina	Azkue-rekin Ziberoalat lehen itzulia egiten.
— urria	Pariseko Erakusketa Handirat ikustaldia.
1901 iraila	Euskalzaleen Hendaia-ko biltzarra.
— azaroa	Hondarribiako bilkura. Madrileko iloba tipiaren heriotzea.
1902 maiatza	Jean Moreau aitaizunaren heriotzea.
— uztaila	Ligi-rako ikustaldia.
— iraila	Euskalzaleen Biltzarra-ren sortzea.
1903 urtarrila	«Euskal katixima»-ren arazoa.
1904-VI-16	Amélie Baratchart Amenduztarrarekin ezkontzen.
— aboztuan	Bere ama Marie Salagoity galdu.
1905 aboztuan	Lehen alaba, Maddalen sortu.
— -IX-30	Broussain Hazparneko auzapez.
1906	J. Baptiste Broussain-en heriotzea Madrilen.

PIARRES CHARRITTON

1908 maiatza	Herriko botzak errazki irabazten.
1911	Bigarren alaba. Jenofa sortu.
--- azaroa	«Cercle d'Études Euskariennes» Baionan bildu.
1912 maiatza	Herriko botzak irabazten.
1913	Anaia Cyprien Broussain galtzen Parisen.
1914 aboztua	Gerla hasten eta Léon Baratchart koinata galtzen.
1918-XI-11	Gerla gelditzen.
1918-XII-22	«Euzko-Ikaskuntza»-k 2. buru-orde izendatzen.
1919-IX-21	«Euskaltzain» izendatua.
— -XI-4	Hazparneko auzapezgoa utzi.
— —XII-14	Hazparneko kontseilari general hautatua.
1920-IV-27	Orthez-en hil bapatean.



**P.B.-R.A., 1**

*Beti bizi bedi eskuara!*

*Hasparren 30 Août 1897.*

Mon cher ami:

Je ne veux pas tarder plus longtemps à vous remercier de la collection complète de l'*Euskalzale* que vous m'avez envoyée la semaine dernière. J'ai reçu également hier matin le numéro du 26 Août. J'y ai lu avec plaisir vos impressions sur les fêtes de St. Jean-de-Luz. J'ai été aussi agréablement surpris en retrouvant dans ce dernier numéro de *Euskalzale* la vieille chanson basque que vous aviez apprise et notée devant moi<sup>1</sup>. Vous avez très bien fait de mettre en regard du texte labourdin la traduction biscayenne. De la sorte, cette mélodie si originale, si vraiment basque pourra rapidement devenir populaire dans toute la Biscaye. Cette traduction servira aussi à faire connaître à nos frères de Biscaye un peu du dialecte qui se parle en Labourd. C'est comme cela qu'on arrivera à donner aux Basques d'une province le goût d'étudier les dialectes qui s'emploient dans les autres provinces. Ce sera un acheminement lent mais sûr vers l'unification des divers dialectes euskariens, unification que vous et moi nous ne verrons pas, mais que nos descendants pourront réaliser dans un avenir plus ou moins lointain, lorsque des jours meilleurs viendront pour notre bien-aimé Euskalerrri. En attendant l'époque bénie où les Basques jouiront enfin de l'existence nationale à laquelle ils ont droit par leur langue, leur race et leur traditions historiques, en attendant cet avenir idéal continuez à travailler, vous et la phalange des bons patriotes qui se groupent autour de vous, à faire aimer et à faire connaître notre admirable idiome, cet héritage sacré que nos ancêtres nous ont transmis et qu'il est de notre devoir de conserver intact.

Il existe aussi, croyez-le bien, au nord de la Bidassoa des hommes de bonne volonté et il faut espérer que leurs efforts ne resteront pas vains.

Je tiens absolument à vous faire connaître un lambeau de conversation que j'ai entendu l'autre jour à St. Jean-de-Luz, le jour de votre départ<sup>2</sup>. Je venais de vous quitter à la gare et me trouvais avec Mr. Sallaberry<sup>3</sup>, lorsque Mr. Guilbeau<sup>4</sup> l'ancien maire de St. Jean-de-Luz est venu se joindre à nous. Il s'est mis à causer des fêtes basques qui vont avoir lieu prochainement à Sare<sup>5</sup> et nous a dit qu'à cette occasion, il comptait, avec le concours de Vinson, grouper

quelques bascophiles de France et jeter les bases d'une Académie pour fixer l'orthographe de la langue euskarienne. Vous voilà prévenu. *Cuidado!!*

Il faut absolument empêcher Vinson, qui est notre ennemi, de faire partie d'une Académie basque. Seuls des bascophiles nés dans les sept provinces doivent faire partie de cette Société dont les décisions influenceront beaucoup sur l'avenir de notre langue. Faites votre possible pour mettre les Bascophiles du Sud de la Bidassoa en garde contre l'intrusion de Vinson et prévenez-les du danger qui nous menace. Comme je vous l'ai déjà dit, le mieux sera que les députations provinciales des quatre provinces d'Espagne choisissent d'abord les académiciens basques-espagnols. Ensuite ceux-ci nommeront les délégués qui devront représenter les trois provinces de France. De la sorte, on sera sûr d'exclure les Vinson, les Dodgson, les Lévy, etc.

Quand j'irai à Bayonne je tâcherai de me procurer la grammaire souletine de Gèze<sup>6</sup> et je vous l'enverrai.

Je vous quitte en vous priant de croire à mes sentiments affectueusement dévoués.

*P. Broussain.*

<sup>1</sup> «Euskalzale», I, 35. geia, 275 orr.: «Goizean goizik jeiki ninduzun». Ikus ere Azkue-ren «Cancionero Popular Vasco», I, 505. orr.

<sup>2</sup> R.M. Azkue-k Adema Zalduby zaharrari eskaini zion Gernikako arbolaren hosto bat, Donibaneke festa horien laugarren egunean (1897-VIII-18): «La Tradition au Pays Basque», rééd. Elkar 1982, 36. orr.

<sup>3</sup> J.D.J. Sallaberry-k eman zuen hitzaldi bat: «Le mascarades souletines avec airs notés», «La Tradition», op. cit., 265. orr.

<sup>4</sup> Guilbeau, Vinson, Dodgson, Lévy ta beste «errepublikazale» gorriez ikus R.A., 20-2.º; 3.º; 4.º; 6.º. Eta hemen berean P.B., 2.

<sup>5</sup> 4. oharrean aipu den talde horrek antolatu zuen, bere kideko zuen J.B. Elissamburu (1828-1891) Saratar ospetsuaren ohoretan, omenaldi bat, Saran, 1897 ko irailaren 13 an. Ikus J. Vinson, «Fête de l'Association Basque à Sare» in «Revue de Linguistique et de Philologie Comparée», 1898, XXXI, 193-223.

<sup>6</sup> L. Gèze, «Eléments de Grammaire Basque, dialecte souletin», Bayonne Vve Lamaignère, 1873. Rééd., Hordago, Donostia, «Euskal klasikoak», 27.º.

P.B.-R.A., 2.

*Hasparren le 27 Septembre 1897.*

Mon cher ami:

J'ai reçu votre seconde lettre<sup>1</sup> ce matin, au moment où je me préparais à vous écrire. Vous pouvez être assuré que je ferai tout mon possible pour vous envoyer le «Geroko gero»<sup>2</sup>. Si je ne le trouve pas à Bayonne, je le ferai venir de Paris. La semaine dernière, étant de passage à Bayonne, je vous ai envoyé par la poste l'ouvrage que je vous avais promis, la grammaire souletine de Gèze<sup>3</sup>. L'avez-vous reçue? A la fin de la grammaire il y a un vocabulaire souletin. Vous y trouverez pas mal de mots qui doivent vous être inconnus, mais je vous préviens que ce vocabulaire est loin d'être complet. Mon ami le Dr. Larrieu<sup>4</sup> qui habite près de Paris a recueilli beaucoup de mots qui ne se trouvent pas dans le livre de Mr. Gèze. D'autre part le chanoine Inchauspe<sup>5</sup> possède un dictionnaire souletin manuscrit qui attend la lumière et l'attendra peut-être longtemps, faute d'argent. Puisque nous sommes sur le chapitre des dictionnaires, je tiens à vous dire que j'ai été voir ces jours-ci à Halsou l'abbé Harriet<sup>6</sup> dont je vous avais parlé à St. Jean-de-Luz. Ce savant basco-philophile a préparé un travail considérable sur le vocabulaire basque et la partie étymologique y occupe une grande place. Malheureusement, il ne veut pas le publier, se prétendant trop vieux et prétextant que la révision de ce manuscrit lui demanderait un temps considérable. J'ai moi aussi, essayé de le faire changer d'avis, mais vainement. Peut-être serez-vous plus heureux que moi. Essayez. Je lui ai parlé de vous et il m'a dit qu'il serait très heureux d'avoir une correspondance avec vous. Ecrivez lui, cela lui fera beaucoup de plaisir et il ne sera pas en peine de vous répondre car, ayant longtemps habité Madrid, il connaît très bien la langue espagnole. Voici son adresse: *Mr. l'abbé Harriet, à Halsou, par Ustaritz (Basses-Pyrénées).*

De tous les Labourdins, c'est lui qui est le plus qualifié pour faire partie de la future Académie. Mais je doute qu'il veuille en faire partie à cause de son grand âge et de l'état de sa santé. Je puis en dire autant du chanoine Inchauspe<sup>7</sup>, qui représenterait admirablement la Soule (Ziberoa) si le poids des années ne se faisait trop sentir sur ses épaules.

Néanmoins, il faudra s'adresser d'abord à ces deux vénérables ecclésiastiques avant de songer à d'autres. Vous me demandez ma façon de penser sur Mr. Guilbeau<sup>8</sup> et sur l'effet que produirait au pays basque sa présence à l'Académie. Je crois que nous pourrions

sans inconvénient l'admettre dans cette Société. Guilbeau est, il est vrai, un des chefs du parti républicain au pays basque et comme tel a plusieurs adversaires et même plusieurs ennemis; notamment Goyeneche<sup>9</sup>, mais je vous ferai remarquer qu'il y a aussi plusieurs prêtres basques qui sont républicains depuis que le Saint-Père dans sa fameuse encyclique a recommandé aux catholiques de France de se rallier à la forme républicaine. Sincèrement je ne crois pas que Guilbeau soit anticlérical: Il va à la messe tous les dimanches et fait ses Pâques. D'autre part, je sais qu'il entretient d'excellentes relations avec le curé de St. Jean-de-Luz, Mr. Elissague. Dans ces conditions, je ne crois pas vraiment qu'il y ait le moindre inconvénient à ce qu'il fasse partie de la future Académie. J'y vois même des avantages, en ce sens que comme républicain, il pourra agir efficacement sur les municipalités républicaines qui sont nombreuses dans le pays basque et obtenir d'elles des subventions pécuniaires pour l'entretien de l'Académie. Je vous ai déjà dit que le Conseil Général des Basses-Pyrénées dont plus des deux tiers des membres sont Béarnais et Gascons ne voudra jamais subvenir aux dépenses d'une Société destinée à la conservation de l'euskara. Ce n'est que dans l'initiative privée ou dans les conseils municipaux (*ayuntamientos*) du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule que nous pourrions trouver une aide pécuniaire. Et encore ce ne sera pas facile! Il faudra se remuer beaucoup, faire de nombreuses démarches avant de réveiller les bonnes volontés endormies et de susciter un élan de patriotisme basque. Pour que nous puissions obtenir le concours de tous les Basques qui aiment réellement leur langue nationale, il faudra annoncer bien haut et bien clairement que l'Académie ne s'occupera d'aucune question politique, philosophique ou religieuse, que son but exclusif sera l'épuration, l'enrichissement et la conservation de la langue euskarienne. Ce n'est qu'à cette condition que tous les Basques versés dans la connaissance de leur langue pourront coopérer à l'oeuvre commune de la conservation de notre bel idiome, quelles que soient leurs aspirations politiques ou nationales. Travaillons d'abord à répandre l'amour de l'*eskuara*. Lorsque tous les Basques instruits, clergé, avocats, médecins, notaires, commerçants, industriels, comprendront vraiment les beautés de la langue basque et n'auront recours qu'à elle dans leurs relations sociales et au foyer paternel, ce jour-là, dis-je, l'idée nationale fera rapidement son chemin et les séparatistes qui ne sont encore qu'une poignée seront alors légion. Il faut bien être convaincu de cette vérité, à savoir que la langue est le meilleur véhicule des idées et que dans les revendications nationales des peuples, langue et patrie se confondent.

Vous verrez Mr. Campion<sup>10</sup> à Pampelune au mois de Novem-

bre. Peut-être même le verrez-vous plus tôt. Dans tous les cas vous lui demanderez, je vous prie, s'il a reçu une lettre de Goyeneche (de St. Jean-de-Luz). Goyeneche devait lui écrire pour le prier de faire un travail sur la langue basque, travail qui paraîtrait au mois de Janvier dans le livre qui sera publié pour rendre compte des fêtes basques de Donibane. Dans cet ouvrage seront reproduites toutes les conférences qui ont été faites durant cette semaine. Malheureusement personne à St. Jean-de-Luz n'a traité le sujet le plus intéressant de tous, la langue basque. Il serait étrange que le *livre de la tradition basque*<sup>11</sup>, qui aura la prétention de donner au monde savant un aperçu de toutes les originalités du peuple basque ne contienne pas une étude sur ce que les Basques ont conservé de plus original et de plus remarquable, leur langue. Je suis certain que d'ici au mois de Janvier Mr. Campion pourrait écrire une étude intéressante et très documentée sur l'*eskuara*. Si Mr. Campion ne connaît pas suffisamment la langue française pour publier son travail dans cette langue, qu'il l'écrive en espagnol. Il sera ensuite facile de traduire cela en français.

Dans le cas où Mr. Campion, à qui Goyeneche a dû s'adresser déjà, n'aurait pas le temps de mener à bien cette entreprise, vous pourriez vous en charger, et si vos occupations ne vous le permettent pas, ne pourrait-on pas s'adresser à Mr. Arana?

Dans tous les cas il importe que ce soit un Basque qui parle de sa langue maternelle et qu'on n'abandonne pas ce travail à un Vinton ou à un Dodgson. J'espère que vous m'écrirez de Pampelune pour me donner les détails sur le concours institué pour la chaire de langue basque. Quel dialecte enseignera-t-on à Iruña? Le guipuzcoan ou le navarrais? Jusqu'ici les divers dialectes et sous-dialectes de la Navarre ont été assez négligés. Il serait bon qu'on les étudiât davantage. Si le professeur de Pampelune enseignait soit le dialecte qui se parle au nord et à l'ouest de cette ville (haut-navarrais méridional), soit celui qui est en usage dans la vallée du Baztan (haut-navarrais septentrional), cela donnerait aux Navarrais plus de goût et plus d'encouragement pour étudier les diverses variétés et sous-variétés du langage de la Navarre. Il y a notamment dans les vallées de l'Ahescoa, de Salazar et de Roncal, trois sous-dialectes très curieux, aux formes très archaïques, et auxquels le prince Bonaparte a consacré une étude intéressante.

J'ai appris avec un vif plaisir que vos paroles ont trouvé de l'écho à Villaro et dans la vallée d'Arratia. Il faut espérer que le zèle qui anime les municipalités de cette vallée se communiquera également aux autres parties de la Biscaye et au Guipuzcoa et je ne doute pas qu'un vaste pétitionnement organisé dans ces deux provinces et dans la petite portion euskarienne de l'Alava obtienne faveur auprès de l'Évêque de Vitoria<sup>12</sup>.

J'ai reçu les livres que vous m'avez envoyés, «*Jaungoikoa eta Foruak*»<sup>13</sup>, «*Bein da Betiko*»<sup>14</sup>, etc. Merci mille fois. Avez-vous reçu la grammaire souletine? Dites-le moi, je vous prie dans votre prochaine lettre.

Dans le dernier numéro de l'*Eskualduna*, 24 Septembre, vous trouverez un article de l'abbé Hiriart-Urruty<sup>15</sup> intitulé «*Eskuara Espainian*». Il y parle de vous mais pas aussi longuement qu'il l'aurait voulu. Je l'ai vu hier à Hasparren et il m'a dit que'il se proposait de traiter encore ce sujet «*La langue basque en Espagne*».

Je vous quitte, mon cher ami, en attendant prochainement de vos nouvelles et en criant de toute la force de mes poumons «*Biba Eskualerria!!*»

Votre dévoué,

*P. Broussain.*

<sup>1</sup> Azkue-ren gutun hori, aintzinekoa bezala, galdua da. Eskuratu ahal izan dugun lehena 1899 ko aboztuaren 9 koa dugu.

<sup>2</sup> «Gueroco guero» Bordelen Milanges baitan egin Axular-en obraren bigarren edizioneari eman izena da. Honen edizio berri «garbitu xuxendu eta ordenatua» (?) egin zuen Baionan Lamaignère baitan, 1864 ean, Inchauspé kalonjeak. Azken argitalpen hau zen 1897 an Baionan edo Parisen salgai.

<sup>3</sup> Ikus P.B., 1-6.º.

<sup>4</sup> Ikus R.A., 4-6.º.

<sup>5</sup> Ikus R.A., 10-2.º.

<sup>6</sup> Villasante, «Historia de la Literatura Vasca» M. Harriet (1814-1904), 163-164. orr.

<sup>7</sup> Id., ibid., «M. Inchauspé» 1815-1902), 174-176. orr.

<sup>8</sup> M. Guilbeau (1839-1912), ikus P.B., 1; R.A., 20-2.º.

<sup>9</sup> Albert Goyeneche (1848-1900), Donibane Lohizuneko mediku eta auzapeza, «erregetiar» alderdi xuriaren buruzagia. Honek zituen antolatuta 1897 ko Euskal festa aipatuak.

<sup>10</sup> Arturo Campion (1854-1937), nafartar jakintsun handia Broussain-ek ezagutzen zuen gutierrez 1894 eko Hazparneko Euskal Festez geroz. Ikus bestalde argitaratzen dugun 1920 eko apirilaren 5 ean Campion-ek Broussain-i bidali gutuna eta Villasante, op. cit., 347-350. orr.

<sup>11</sup> Arturo Campion, «La Langue Basque», La Tradition au Pays Basque, 413-459. orr.

<sup>12</sup> Urte haietako euskalzaleen eskari nagusietarik bat izan zen bai Iruñean, bai Gasteizen, bai Baionan apezpiku erdaldunen ganik ardiestea euskara ikasgai izan zedin Euskal Herriko apezgaitegietan.

<sup>13</sup> R.M. Azkue, «Jaungoikoa eta Foruak», Bilbao J. de Astuy, 1896: Azkuek aintzineko urtean Gernikan, uztailaren 21 ean eman predikua badauka.

<sup>14</sup> R.M. Azkue, «Lenengo irakurgaia, Bein da Betiko», Bilbao Misericordia, 1893.

<sup>15</sup> Hiriart-Urruty, Manex (1859-1915), Broussain-en herritarra eta Larresoroko irakaslea (ikus Villasante, op. cit., 195-196 orr.) «Eskualduna» astekariaren lankide nagusia zen, kasik haste hastetik (1887). 1897 eko irailaren 24 eko artikulua horretaz beste artikulurik ere idatziko du zoriogaitzez Hiriart-Urrutyk Azkue-ri buruz; hala nola 1911 an, urriaren 6 ekoa, «Frantzia eta Espainia» izenekoa. Beste bat ere izen berekoa agertu zuen «Eskualdunak», 1914 eko urriaren 23 an Ikus R.A., 77-3.º eta P.B., 62.

P.B.-R.A., 3.

*Hasparren 8 Novembre 1897.*

Mon cher ami:

Je pense que vous avez reçu ma dernière lettre<sup>1</sup> dans laquelle je vous ai donné les renseignements que vous me demandiez sur les frères de Ploërmel. Je suppose que vous avez écrit à l'abbé Jégouzo dont je vous ai envoyé l'adresse, pour avoir des renseignements plus complets.

Depuis que je vous ai écrit ma dernière lettre le supérieur des frères de Ploërmel a été nommé. Il s'appelle Frère Abel. Goyeneche le maire de St. Jean-de-Luz, qui a dîné chez moi avant-hier, m'en a parlé en termes très sympathiques. il a eu l'occasion de le voir récemment à St. Jean-de-Luz et a pu constater que c'est un homme fort intelligent et tout disposé à faire, pour le pays basque, ce que son prédécesseur a fait pour la Bretagne, c'est à dire conserver et propager notre langue nationale en même temps que la doctrine catholique.

Goyeneche est plein d'espoir dans la réussite de l'oeuvre des Frères de Ploërmel dans l'Euskalherri<sup>2</sup>.

En même temps que cette lettre je vous envoie un colis postal contenant 1.° «*Dissertation sur la langue basque*»<sup>3</sup>, par Darrigol. 2.° «*Eskaraz egia*»<sup>4</sup>, par Hiribarren. 3.° «*Une carte du département des Basses-Pyrénées*» sur laquelle j'ai marqué au crayon rouge les limites actuelles de la langue basque en France. Pour faire ce tracé, j'ai copié scrupuleusement *la carte linguistique du pays basque*<sup>5</sup> par le prince Bonaparte. Vous remarquerez que les limites de l'eskuara en France sont très irrégulières, notamment entre Bardos (*Bardoze*) et Urcuit (*Urketa*). Entre ces deux villages, le patois gascon forme un coin assez avancé. C'est la conséquence du peuplement de cette partie de l'Eskual-Herri par une colonie de Gascons au 14ème ou 15ème siècle<sup>6</sup>.

Plus à l'est vous remarquerez également la pointe formée par Esquiule (Ezkiula) en territoire béarnais, tout près d'Oloron. Les limites de l'euskara en France n'ont pas varié depuis les temps historiques. Rien ne prouve qu'on ait parlé basque autrefois en dehors de la frontière linguistique actuelle. On pourrait cependant faire une exception peut-être pour quelques communes situées au nord du Labourd et dont les mons ont une physionomie euskarienne. Du reste, ces communes où l'on ne parle que gascon ou français ont des noms spéciaux dans la langue basque. C'est ainsi que Biarritz s'appelle

«Miarritze», Anglet «Angelu», St. Pierre d'Irube «Iriburu», Urt «Ahurti», Bidache «Bidašune», Came «Akamarre». De même à l'est de Tardets, quelques communes béarnaises ont des noms d'aspect basque. Mais elles ne sont pas nombreuses, par exemple Aramitz (*Aramitze*) qui a une consonance euskarienne.

Goyeneche m'a dit que Mr. Champion lui avait envoyé un travail remarquable sur l'euskara, travail destiné à paraître dans *le livre de la Tradition Basque*, au mois de Janvier. Il paraît que Mr. Arzac le fait paraître par morceaux dans la revue *Euskal-Erria* de St. Sébastien<sup>7</sup>. Dans l'espoir que vous m'enverrez bientôt des nouvelles du concours de Pampelune, je vous envoie ma plus cordiale poignée de mains.

*Peru Broussain ta Salagoity.*

<sup>1</sup> Azkue-ren paperetan ez dugu aurkitu Broussain-ek hemen aipu duen gutun hori.

<sup>2</sup> Jégouzo jaun apezaren eta Abel Gaudichon anaiaren bitartez. Azkue saiatuko da —Arbelbide ta Goyeneche-k sustaturik-Ploërmel-dar anaiak Euskal Herrian finkatzera, ustez eta, haiei esker, euskara sartuko den elizaren ikastetxetan.

<sup>3</sup> Darrigol, J.P., «Dissertation critique et apologétique sur la langue basque...» Bayonne Duhart-Fauvet, 1827.

<sup>4</sup> Hiribarren, Martin, «Eskaraz eguia», Baionan Lasserre, 1858.

<sup>5</sup> Bonaparte, L.L., «Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés», Londres, 1863.

